

ESKOLA TESTUINGURUKO BULLYING-AREN PREBENTZIOA ETA ESKU-HARTZEA

BIZIKIDETZA PLANAK ETA IRAKASLEEN FORMAKUNTZA OINARRI
HARTUTA



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

KRIMINOLOGIAKO GRADUA

2020-2021 IKASTURTEA

Ikaslea: Maddi Mendizabal Goikoetxea

Zuzendaria: Olaia Larruskain Mandiola

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honen bitartez, gaur egungo hezkuntza sistemaren eta gizartearen arazo garrantzitsu bat bilakatu den gai bai izango dut aztergai, zehazki eskola eremuan ematen den bullying-a edo jazarpena. Lanaren helburu nagusia, ikastetxeetako Bizikidetza Planek eta bertako irakasleek gai honen inguruan jasotzen duten formakuntzak, eskola eremuan ematen diren bullying kasuetan duten eragina ikustea izango da, horretarako metodo mistoa duen ikerketa lan bat burutuz.

Ikerketa lan honek bi atal izango ditu: alde batetik, ikerketa kuantitatiboa, eta beste aldetik, ikerketa kualitatiboa. Ikerketa hauen bidez, Urola Kostako bi ikastetxetako Bizikidetza Planak eta ikastetxe hauetako bi kideri eginiko elkarrizketak aztertu eta analizatuko ditugu. Horrela, gure hipotesiekin kontrastatu, ondorioak ateratzeko asmoz.

Hitz Gakoak: Bullying, bizikidetza, irakasleak, Bizikidetza Planak, formakuntza

RESUMEN

Mediante este Trabajo de Fin de Grado, se analizará uno de los temas que más preocupa hoy en día al sistema educativo y a la sociedad actual, como es el bullying o acoso que se da en el ámbito escolar. El objetivo principal del trabajo es ver que efecto tienen en estos casos bullying los Planes de Convivencia y la formación que reciben los profesores sobre este tema. Para ello, se realizará un trabajo de investigación con un método mixto.

Este trabajo de investigación constará de dos apartados: por un lado, la investigación cuantitativa, y, por otro lado, la investigación cualitativa. A través de estas investigaciones, analizaremos los Planes de Convivencia y las entrevistas realizadas a dos miembros de dos centros de Urola Kosta. Así, podremos contrastar nuestras hipótesis con el fin de realizar conclusiones.

Palabras Clave: Bullying, convivencia, profesorado, Planes de Convivencia, formación

ABSTRACT

Through this end-of-degree project, I will analyse one of the issues that most concerns the education system and the society, specifically, the bullying or the harassment that occurs in the school environment. The aim of this work is to see the impact of the Coexistence Plans and the formation received by the teachers in these bullying cases. To this end, I will carry out a mixed method research project.

This research work will consist of two sections: on the one hand, a quantitative research, and on the other hand, a qualitative research. Through this, we will analyse the Coexistence Plans and the interviews carried out with two teachers at different schools in Urola Kosta. In this way, we will be able to contrast our hypotheses in order to draw conclusions.

Key Words: Bullying, coexistence, teachers, Coexistence Plans, formation

AURKIBIDEA

| | |
|--|-----------|
| 1. SARRERA | 8 |
| 2. TESTUINGURUA ETA AURREKARIAK..... | 11 |
| 2.1. BULLYING-A ESKOLETAN: KONTZEPTUAK, ONDORIOAK ETA PREBENTZIOA ETA ESKU-HARTZEAREN GARRANTZIA | 11 |
| Kontzeptua..... | 11 |
| Bullying-a eskola testuinguruan | 12 |
| Bullying-a Kriminologiaren ikuspegitik | 13 |
| Bullying-a Gizarte Psikologiaren ikuspegitik..... | 14 |
| 2.2. BIZIKIDETZA PLANAK: BIGARREN HEZKUNTZAKO BULLYING-AREN AURREZAINZTA ETA ESKU-HARTZERAKO LAN-MARKOA | 17 |
| Kontzeptua..... | 17 |
| Bizikidetza Planak Gizarte Psikologiaren ikuspegitik..... | 17 |
| Bizikidetza Planen Helburuak eta Aplikazioa..... | 18 |
| Legedia: hezkuntza arloan aplikatua | 20 |
| Euskal Autonomia Erkidegoko plan eta programak | 20 |
| 3. GAIAREN EGUNGO EGOERA: BULLYING-A ETA EAEKO ESKOLA TESTUINGURUA: TENDENTZIAK ETA ROLAK..... | 21 |
| Bizikidetza planen beharra | 21 |
| Jazarpenean eragina duten faktoreak..... | 23 |
| Bullying-aren prebalentzia datuak..... | 24 |
| Eginiko ikerketak eta ondorio nagusiak | 25 |
| Irakasleen papera bizikidetza egoki baterako..... | 27 |

| | |
|---|----|
| Bullyingaren prebentzioa: KiVa programa (2006) | 29 |
| 4. LANAREN INTERESA | 30 |
| Interes zientifikoa | 31 |
| Interes soziala | 31 |
| Interes kriminologikoa | 32 |
| 5. METODOLOGIA | 33 |
| 5.1. HELBURU ETA HIPOTESIAK..... | 33 |
| 5.2. METODOLOGIA OROKORRA..... | 34 |
| • Bizikidetzaren Planak eskuratzea | 35 |
| • Elkarrizketak eskuratzea | 36 |
| • Lagina | 36 |
| 5.3. IKERKETAREN METODOLOGIA | 37 |
| 5.3.1. <i>Ikerketa Kuantitatiboaren analisiaren prozedura</i> | 38 |
| 5.3.2. <i>Ikerketa Kualitatiboaren analisiaren prozedura</i> | 41 |
| 6. EMAITZAK | 44 |
| 6.1. ANALISI KUANTITATIBOA..... | 44 |
| 6.1.1. <i>Bizikidetzaren Planak</i> | 44 |
| 6.1.2. <i>Elkarrizketak</i> | 47 |
| 6.2. ANALISI KUALITATIBOA..... | 51 |
| 6.2.1. <i>Bizikidetzaren Planak</i> | 51 |
| 6.2.2. <i>Elkarrizketak</i> | 56 |
| 7. ONDORIOAK | 61 |

| | |
|---|-----|
| 8. BIBLIOGRAFIA | 72 |
| 9. ERANSKINAK | 78 |
| 9. 1. ERANSKINA: ELKARRIZKETAK | 78 |
| 9. 2. ERANSKINA: B IKASTETXEKO BIZIKIDETZA PLANEAN ZEHAZTEN DUTEN JARRERA ZUZENTZAILEEN OHIKO PROZEDURA..... | 88 |
| 10. LANAREN LABURPEN EXEKUTIBOA | 89 |
| 11. ESKER ONAK | 100 |

1. SARRERA

Bullying. Hainbatetan entzun izan dugun hitz hori eta hain gutxitan erreparatu dioguna.

Bizikidetza. Denok nahi duguna, eta gutxitan lortzen duguna.

Gatazka eta arazoez inguratuak bizi gara bizitza honetan, jaiotzen garenetik, hiltzen garen unera arte. Nerabegarora hurbildu eta gu eta gure ingurukoak aldatzen hasten diren unean, alarman jartzen gara, eta horrela, une batetik bestera gatazkaren erdigune izan gaitezke.

Garrantzitsua da gure elkarbizitza eta bizikidetza ulertzea. Baita bertan eragiten duten faktore eta ezaugarriak ezagutzea. Boterearen eta autoritatearen menpe bizi gara. Gure egunerokoaren parte bihurtu dugularik. Familian, lagunartean ikastetxean, lantokian,...

Horregatik, nire Gradu Amaierako Lana, gai hauen inguruan egitea interesgarria eta bere horretan beharrezkoa iruditzen zait. Zehazki eskola inguruko bullying-aren inguruan, honen prebentzioan eragina izango duten Bizikidetza Planak eta irakasleek jasotzen dituzten formakuntzan oinarri hartuta.

Hain da errealitate gordin eta askotan ezezaguna, lantzeko beharra duen arloa iruditu zaidala. Jasotako datuen arabera, Espainiar Estatuan soilik 2012 eta 2017 urte bitartean, eskola jazarpenak salatzen ia 13.000 dei jaso ziren, horietatik soilik 5.557 kontsideratuz jazarpen kasuak. 2018-2019 urteko datuen arabera berriz, Euskal Autonomia Erkidegoan, ia 800 kasu aztertu zituzten, nahiz eta jazarpen kasu bezala 96 kontsideratu. Larriak izan daitezkeen zenbakiak dira, eta honen aurrean erantzun bat emateko beharra dago. Horiei aurre egiteko asmoz, ikastetxeetan hainbat proiektu eta programa martxan jarri dira, besteak beste bizikidetza planak.

Ikerketa hau aurrera eramateko beste arrazoi nagusietako bat, bullying-arak sortzen dituen eraginak dira, hain zuzen ere hainbat modutan eta arlotan eragiten duelako, horrela, eskola porrota, antsietatea, TEPT, insomnia edota autoestimuaeren gutxitzea eman daitezkeelako (Garaigordobil, 2019). Beraz, hauek ekiditeko eta gutxitzeko

beharrezkoak izan daitezkeen proposamen eta irtenbideen aldeko hurbilpen bat egin nezakeela iruditzen zait.

Ikerketa lan hau burutzeko, aldi berean ezinbestekoak dira Kriminologiaren eta Gizarte Psikologiaren ikuspuntuak. Kriminologiaren ikuspuntu batetik, zuzenean Oinarrizko Eskubideekin erlazionaturiko gai bat denez, honen bortxaezintasuna babestearen beharra aldarrikatzea ezinbestekoa izango litzateke. Gizarte Psikologiaren ikuspegitik bestalde, aztergai sakonago bat bilakatzen da, izan ere, talde harremanen, boterearen, normalizazioaren edota pertsona ororen nortasunarekin zuzeneko lotura edo binkulua duelako.

Lanaren helburuei dagokionez, esan beharra dago, garrantzitsuena eta nagusia Bizikidetzaren Planek, bullying-arekin edo eskola jazarpenaren inguruan duen eraginkortasuna identifikatzea izango dela, horretarako irakasleen rola eta formakuntzan duen eragina identifikatuz. Bestalde, irakasleek jasotako formakuntza horiek zenbateraino eragiten duten ere ikusiko da, horrela, beharrak eta ahulguneak identifikatuz eta hauen inguruan hausnartuz.

Hipotesiei dagokionean, hemen ere helburuekin erroturik, esan nezake, Bizikidetzaren Planek eragin positiboa izango dutela bullying edo eskola jazarpenaren, horretarako inplementazio eraginkorra garrantzitsua izango delarik. Ez hori bakarrik, aurretiaz ere esan dezaket, nire ustez, irakasleek gai hauen inguruan jasotzen dituzten formakuntzak ez direla nahikoak, batez ere bullying-ari erlazionaturako formakuntzei dagokionean. Hori horrela, azken hipotesi bezala, esan dezaket, irakasleek eskola jazarpenaren eta bullyingaren inguruan jasotzen dituzten formakuntzak egokiak badira, Bizikidetzaren Planetan eragina izango dutela, eta horrela, bullying-aren gutxitzean ondorioak eragingo dituela.

Gradu Amaierako Lanaren eta ikerketa guzti honen egiturari erreparatuz, lehenik eta behin aspektu teorikoenak aztertuko ditut. Hori horrela, testuingurua eta aurrekariak ezagutuko ditugu, zehazki bullying-a zer den, honen inguruabarrak, faktoreak eta ondorioak zein diren eta hauen esku-hartzearen garrantzia azpimarratuz. Aldi berean, Gizarte Psikologiaren eta Kriminologiaren ikuspuntutik duten begirada bat ere aztertuko da. Bullying-arekin batera, Bizikidetzaren Planen arlo teorikoa eta ezaugarriak ere aztertuko

ditugu, hauen egitura, aplikazioa eta legedia ezagutuz. Baita, EAE mailan martxan dauden planak aztertuz.

Testuinguruaren ostean, gaur egun gai hauek duten egoera ikustea beharrezkoa izango da, egoera ezagutu eta ondoren ikerketaren analisisian kontuan izateko. Hemen gai hauekiko egin diren ikerketa hainbat ikusiko ditut, ikusteko zenbateraino ikertu eta hausnartu den hauen inguruan.

Arlo teorikoena ikusi ondoren, arlo praktikora egingo dugu salto, hau da, ikerketara. Ikerketa ondo egiteko, urrats eta pautak batzuk markatzea beharrezkoa izango da, beraz, horretarako, metodologia egokiena hautatu eta finkatu beharko dugu, alde batetik ikerketa kuantitatiboa izango dugulako, eta bestetik, ikerketa kualitatiboa. Ikerketa hauen bitartez, eskuratutako Bizikidetzaren Plan ezberdinen eta ikastetxe ezberdinetako irakasle edo orientatzaileei eginiko elkarrizketen analisisia egin eta jasoko da. Datu eta informazioak eskuratuta, eta emaitzak argi izanda, analisisia egin daiteke, ondoren, hipotesi eta helburuekin konparatu eta ondorio batzuetara iristeko, hala behar izanez gero, proposamenak eginez.

Amaitzeko, bibliografia, eranskinak eta lanaren azken laburpen exekutiboa jaso dira.

2. TESTUINGURUA ETA AURREKARIAK

2.1. BULLYING-A ESKOLETAN: KONTZEPTUAK, ONDORIOAK ETA PREBENTZIOA ETA ESKU-HARTZEAREN GARRANTZIA

Kontzeptua

Bullying-a beti existitu den fenomenoa bada ere, azken hamarkadan kasuen kopurua eta horien intentsitatea handitu egin da. Hori dela eta, eskola-jazarpena errotik desagerraraztea egungo hezkuntza-sistemak duen erronka garrantzitsuenetariko bat da.

Euskaltzaindiak eskola jazarpena honela definitzen du: *“eskola bateko ikasle batek beste ikasle baten edo ikasle-talde baten aldetik tratu txar jarraitua, fisikoa nahiz morala jasotzea.”* (Euskaltzaindiaren Hiztegia, 2018)

Bullying-a eta jazarpena, tratu txar eta agresioen antzera, modu jarraitu batean ematen dira, behin baina gehiagotan errepikatuz. Sarritan ematen dira, denboran irauten dute, eta biktimari kalteak edo ondorioak eragiteko helburua dute. Horrez gain, biktimaren defentsa deuseztatzen dute (Wanceulen, 2016).

Bullying-a bere horretan, indarkeria mota bat da, kasu honetan, ikastetxeko eremura zentratzen dena (Vera, 2010). Vera Gonzalezek (2010) aipatzen duen modura, muturreko indarkeria da, non, erasotzaileak beste ikaskideen laguntzarekin (eta aldi berean isilik mantentzen direnen isiltasunarekin) biktimarekin bat egiten duen.

Kontzeptu honen atzean, sarritan, indar eta boterearen oreka falta bat dago. Honek ez du esan nahi biktima bere erasotzailearen aurrean zaugarria denik, baizik eta, biktima horrek, bere erasotzailearen edo erasotzaileen aurrean defentsa mekanismoak izatea zailtzen duela (Wanceulen, 2016). Esan daiteke, biktima defentsa gabezia baten aurrean dagoela, izan ere, egoeraren jabe diren horien isiltasuna nagusitzen da, arazo hau itzalpean geratuz (Vera, 2010).

Edozein arrazoi egokia da erasotzailearentzat jazarpen hori aurrera eramateko, dela pertsona baten itxura fisikoa, dela bere egoera, edota bere arazo fisiko edo psikikoak. Baita, eskolako kalifikazioengatik ere (Wanceulen, 2016).

Aipatu bezala, erasotzailearen partetik, botere harreman nabaria dago, horrela, larderiaren bidez biktimaren borondate osoa lortzen du. Horretan datza azken finena bullying-ak: erasotzailearen boterearen eta nagusikeriaren aldarrikapen batean. Honen bidez, besteen onarpena lortuko du biktima mendean hartuz irain, abusu, indarkeria eta errua sentiaraztearen bidez (Vera, 2010). Eskola jazarpenak, beraz, nagusiki hainbat ezaugarri bereizgarri ditu (Vera, 2010):

- Biktima bat dago
- Erasotzaile bat edo gehiago dago.
- Biktima eta erasotzailearen artean, desoreka eta desberdintasun egoera bat dago.
- Jokabide zehatz batzuk (indarkeria gehienetan) denbora jakin batean irauten dute.

Bullying-a eskola testuinguruan

Espainia mailako hezkuntza sisteman, eskola jazarpena, garrantzitsua den gai bat da, honek, eskolako klima hobetzera eta indarkeria eta gatazka egoerak gutxitzera eraman dezakeelako. Aldi berean, hezkuntza sistemak, kontuan hartu behar ditu ere ikasleen errendimendu akademikoarekin zerikusia duten arazoak, baita, emandako hezkuntzaren kalitatearekin zerikusia dutenak ere (Martinez, Goig, González eta Álvarez, 2019).

Bullying-aren eraginari erreparatuz gero, Garaigordobilek (2019) bere lanean aipatu bezala, bullying-aren biktima diren gazteen artean ondorio ezberdinak ikusi daitezke. Horien artean eskola porrota, autoestimua baxutzea, insomnioa eta amets gaiztoen agertzea, min fisikoak, antsietatea, TEPT edota depresioa (tristura eta auto lesionatzeko nahia) topa genitzake. Hori gutxi ez eta bullying kasu gehienak, ikastetxeetako jolas toki, gela eta pasilloetan eman ohi dira (Garaigordobil, 2019).

Ez hori bakarrik, badirudi, eskola-ingurune indarkeriaren arazoa gero eta nabariagoa dela, batzuetan, agresibitate-egoerak sortuz ikastetxeak. Horrek, irakasleen kontrol-gaitasuna gaintzera eraman dezake (Merma-Molina, Ávalos eta Martinez, 2019). Esaterako, 2018-2019ko datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan, 96 jazarpen kasu identifikatu ziren, nahiz eta aztertutakoak 755 izan. Ikus daitekeenaren

arabera, kopuruak gorako joera izan du hamarkada osoan zehar, izan ere, 2008-2009 ikasturtean 75 kasu izan baitziren (Eusko Jaurlaritza, 2019). Aipatzekoa da ere, kasu gehienak Bigarren Hezkuntzan eman direla, zehazki 50, hau kasuen %53ia izanik.

Aipatzekoak dira ere, bullying-aren edo eskola jazarpenaren inguruan burutu diren ikerketak ere. Ikerketa hauen atzean pareen arteko tratu txarrak aztertu dira, (Avilés, Irurtia, Garcia-Lopez eta Caballo, 2011), baita honen interbentzioan garrantzitsuak izan daitezkeen faktoreak (Martinez, Goig, González, eta Álvarez, 2019) edota interbentzioaren ebaluazioa (Ortega-Ruiz, del Rey eta Casas, 2016) besteak beste. Honen harira, badira ikerketak Bizikidetzaren Planek, Bullying-arekiko duten eragina aztertu dutenak, adibidez maila sozio-emozionalean nola eragiten duten (Llorent, Farrington eta Zych, 2020), prebentzio eta murriztean duten eraginkortasuna (Cerezo, 2016) edota badira ere gatazkak konpontzeko duten eraginkortasun eza defendatu duten ikerketak ere (Merma-Molina, Ávalos eta Martinez, 2019).

Bullying-a Kriminologiaren ikuspegitik

Esan beharra dago, kriminologiarentzat ere garrantzitsua den gai bat dela Bullying-a, izan ere, Espainiako Konstituzioa honakoa zehazten duelako: *“Pertsonaren duintasuna, pertsonari berez dagozkion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen librea, legearen errespetua eta besteen eskubideen errespetua oinarri dituzte ordena politikoak eta gizarteko bakeak.”* (EK 10.1.art)

Honi aurre egiteko asmotan, bi dekretu topatu ditzakegu: lehenengoa Otsailaren 21eko 19/2012 Dekretua, zeinak, Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Bizikidetzaren Behatokia sortzen duen. Bigarrena, 201/2008 Dekretua da, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.

Kriminologiaren ikuspegi batetik, bullyingak, eragin zuzena erakusten du biolentziarekin, horrek askotan kriminalitatearekin lotura zuzena izanik. Osasunaren Mundu Erakundearen (2002), arabera indarkeria edo biolentzia, indar fisiko edo boterea norberaren, beste pertsona baten edo talde edo komunitate baten aurka, lesioak, heriotza,

kalte psikologikoak, garapen-nahasmenduak edo gabeziak eragiten dituen edo eragiteko aukera asko dituen da bezala definitzen da.

Indarkeriak, suntsipen bulkaden adierazpena izan daiteke, eta era ezberdinetan eman daiteke, besteak beste tratu txar moduan, eraso moduan, diskriminazio moduan, jazarpen moduan, etab. Biolentzia edo indarkeriaren kontzeptuak ez ditu soilik jokaera oldarkorrek barne-biltzen, baita, gizakiaren agresibitatea maneiatzeko moduak ere (Núñez de Arco, 2010).

Indarkeria eta bullying honek kriminologiarekin duen lotura ikusteko, kasurik argienetakoak, jazarpenak eragindako suizidioak izan daitezke. Navarro-Gómezek (2017) eginiko ikerketa baten arabera, Espainiar estatuan, guztira 390.419 suizidio kasu egon ziren, horien artean, gehiengoak 25 eta 29 urte arteko gazteen artean ematen dira. Hainbat arrazoi ikusi dituzte horren atzean, baina, geroz eta indar gehiago hartzen doan faktore edo arrazoi bat bullying-a bera dela azaltzen dute, hauen artean, *ciberbullying* edo bullying homofobikoa gailentzen direlarik.

Horrelako kasurik ezagunena eta entzunena azken urteotan, Jokinen kasua izan da (STC 86/2005, maiatzaren 12an). Jokin 14 urteko ikasle bat zen, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zehar jasandako jazarpenaren ondorioz, bere buruaz beste egin zuenean. Autopsian erakutsi zen modura, aurretiazko lesio zantzuak zituen, hauek erasotzaileek eragindakoak. Hainbat sententzia eta errekurtsoren ondoren, erasotzaileak osotasun moralaren eta osasun psikikoaren aurkako delituengatik kondenatuak eta zigortuak izan ziren.

Beraz, esan bezala, ikuspegi kriminologiko batetik, suizidioaren prebentzio hau egiteko interesgarria litzateke, bullying-aren esku-hartze eraginkor bat eginez gero.

Bullying-a Gizarte Psikologiaren ikuspegitik

Gradu Amaierako lan hau ezin dut aurrera eramanez gaiaren errora joaten ez bagara, hau da, gizarte psikologiara. Gizarte Psikologia funtsezkoa da horrelako arazo eta gatazkak ulertzeko eta hauen aurrean erantzun bat emateko. Hori dela eta ezin da bullying-a bezalako kontzeptu bat Gizarte Psikologiako teoria klasikorik gabe ulertu.

Argi dago eskola jazarpenaren atzean hainbat arrazoi eta faktore egon daitezkeela, baina denek jatorrian talde harremanak eta eragin sozialak bezalako kontzeptuen mugetan finkatzen direla esan genezake.

Talde harremanez ari garenean, ezin dugu ahaztu bullying-aren faktore nagusietako bat talde bertan dagoen asimetria dela. Sachdev eta Bourhisek (1991) ondo adierazten duten moduan, asimetria horren atzean boterea, estatusa eta gehiengo edo gutxiengoa izatea bezalako kontzeptuak daude.

Boterearen eta estatusaren itxurak pisua izan dezakeela esan genezake. Talde bereko kideen artean talde hierarkizatu bat sortu daitekeelako boterearen bidez. Arnoso eta Larrañagaren (2013) arabera, boterea bera ere estatus bereizketa egiteko mekanismo bat da, horrela diskriminazioa egoteko faktore beharrezkoena izanik. Ez hori bakarrik, boterearen bidez endotaldearen eta exotaldearen arteko bereizketak egiteko gaitasuna eskaintzen digu. Eta esan nezake, hori bera dela jazarpena eragiten duten pertsonen erabiltzen dutena biktima edo jazarpena jasango duen pertsonaren gain erabiltzen duena: boterea. Pertsona horrek bere boterea eta estatusa mantentzeko asmotan, bere exotaldean edo bere taldetik kanpo dagoen norbaiten gain boterea sentitu beharko du, beste pertsona horren gainetik dagoela ziurtatzeko.

Arnoso eta Larrañaga (2013) adituek talde psikologiari buruz argitaratutako lanean erreferentzia egiten den modura, *ardi beltzaren teoria* azpimarragarria izan daiteke. Arnoso eta Larrañagaren (2013) hitzetan, ardi beltzaren efektuaren helburua taldeko identitate soziala mantentzea da, horrela, taldeko identitatean eragin negatiboren bat izan dezaketen taldekide horiek baztertzen dituzte. Beraz, esan daiteke, identitate kolektibo hau arriskuan edo mehatxatua sentitzean aktibatzen dela. Hau bullying-aren esplikazio argi bat izan daiteke. Talde identitate horren barruan ezberdina den oro baztertzea.

Honekin azken finean eragin sozialarekin duen erlazioa ikusten da. Eragin sozialen artean nagusienetarikoa Sherifen (1935) normalizazio prozesua da. Normalizazioa (Arnoso eta Larrañaga, 2013), maila bereko taldekideen artean ematen den prozesu bat da, non, elkar ebaluatzeko erreferentziazko markorik ez duten. Horrela, taldekide guztiak adostasun batera iritxi ahal izango dira, irizpide ezberdinak arau eta lege bihurtuz.

Sherifen (1935) arabera, egoera berri eta egituratu gabeen aurrean, erantzun kolektiboak sortzen dira taldekideen artean, horrela, aipatu bezala, arau koherente bilakatuz.

Beste eragin sozial nabarmenetakoa konformitatearena (Arnosó eta Larrañaga, 2013) da; hau da, talde bateko pertsonen eragindako talde presioa dela eta talde bertakoa ez den pertsona batek, bere jokabide zein iritziak aldatzea.

Talde baten parte izateak norbera den horri nortasuna ematen dio. Edo hala dela uste dugu. Taldekide sentitzearren edozer egitera iritxi gaitezke, horrela, boterea duten horiek gure gain edozein modutara erabiltzen uzten dugularik. Momentu batean, gu garen hori alde batera uzteko gai gara, izaera eta izatea guztiz aldatuz, onartuak izateko edo onartuak sentitzeko. Behin talde horren barnean gaudela, hau da, behin endotalde bat sortu dugularik, gure arau propioak sortzen ditugu, gurea normalizatuz, besteena arrotza joaz. Horren ondorio izan daitezke jazarpena bezalako ekintzak.

Beraz, ikusi dugun modura, Gizarte Psikologiak ematen digun ikuspegia interesgarria izan daiteke bullying-aren eta eskola jazarpenaren fenomenoak ulertu eta ezagutzeko, izan ere, arlo honek oinarrian dauden hainbat kontzeptu baliagarriak zaizkigu atzean dauden faktoreak ulertzeko. Azken finean ez dugu jazarpen mota hau ulertuko, baita, gizartean ematen diren botere-harreman, gatazka eta eztabaidak ulertzeko ere, izan ere, hauen atzean gehienetan boterea, estatusa eta bestearekiko ditugun jarrerak daude.

Behin bullying-a aztertuta, gure ikerketa lan honen beste atal nagusi bat ezagutu eta ulertu behar dugu, hau da, Bizikidetzaren Planak. Hemen ikusiko dugu zein diren, nola aplikatzen diren edo zein plan ditugun martxan orain bertan EAEn.

2.2. BIZIKIDETZA PLANAK: BIGARREN HEZKUNTZAKO BULLYING-AREN AURREZAINNTZA ETA ESKU-HARTZERAKO LAN-MARKOIA

Kontzeptua

Bizikidetza Planak, tradizionalki, ikasleei eragiten dieten bizikidetza-arazoak prebenitzeko eta horietan esku-hartzeko neurriak biltzen dituen programa gisa definitu izan da (Dobarro, García & Álvarez, 2013), hezkuntza-komunitate osoa inplikatzeko duen bizikidetza hobetzeari buruzko neurriak ia sartu gabe (Merma-Molina, Ávalos eta Martínez, 2019).

Bizikidetza Planak, ikastetxeen bizimoduari eusten dioten oinarritzko zutabeetako bat dira, eguneroko eskolak jasotzeaz gain, balioak partekatzeko eta komunikazio- eta lankidetzak-kanalak ezartzeko leku gisa uler daitezkeen (González-Calvo, Hortigüela-Alcalá, Hernando-Garijo eta Pérez-Pueyo, 2019).

Bizikidetza Planak Gizarte Psikologiaren ikuspegitik

Bullying-aren aurrezaintza eta esku-hartzearen aurrean, lagungarria izan daiteke Gizarte Psikologiak eskaintzen dizkigun arlo ezberdinen bidez Bizikidetza Plan hauen beharra eta elkarbizitza egoki baten zentzua ulertzea.

Bizikidetza Plan hauekin erlazio gehiena duen kontzeptua gutxiengo edo minoriena (Moscovici, 1976) izan daiteke, zehazki gutxiengo hauek gizartean eta aldaketetan izan dezaketen eraginean. Gutxiengo hauek esan genezake helburu jakin bat dutela eta beraz aldaketara zuzenduak egon daitezke.

Berriz ere, Arnoso eta Larrañagaren (2013) lanera zuzenduz, hauek esaten dutenaren arabera, gehiengoek duten edo gehiengo horiei eman zaien botere eta kontrol hori gutxiengoek ez dutenez, azken hauek posizio garbi bat izan behar dute, ideiak argi izanez, presioei aurre egiteko. Hauen ustez tinkotasuna eusteko mezu koherente, errealista, ezberdin eta objektibo bat izan behar dute. Hori dela eta plan hauek bullyinaren eta jazarpenaren aurreko minoria izan daitezkeela planteatu dezakegu. Planak eta plan hauek aurrera eramaten parte hartzen duten pertsona oro izan daiteke gutxiengoa, zeinak, jazarpenaren aurrean tinko eutsi behar duten.

Bizikidetza Planen Helburuak eta Aplikazioa

Plan hauen helburuei dagokionez, hainbat ikuspuntu ezberdin daude, nahiz eta alorrean guztiek elkarrekin bizitzen ikastea izango dute. Hori horrela, ikastetxeko eguneroko gatazka eta buruhausteekin konektatzea izango dela diote zenbaitek, horretarako beharrezkoak izango delarik, hezkuntza komunitateko partaide ezberdinen parte hartzea. Beraz, honakoa lortzea proposatzen da (Uruñuela, 2020):

- Pixkanaka, behetik gora abiatuko den eztabaida- eta elkarrizketa-prozesu bat sustatzea, burokratizazioa saihesteko.
- Hezkuntza-komunitateko sektore guztien parte-hartzea sustatzea. Adibidez, irakasleak, familiak eta ikasleak.
- Irakasle, ikasle eta familiak kezkatzen dituzten bizikidetza-arazo errealeetatik abiatzea, erantzun proaktiboa eta positiboa eman ahal izateko.

Ikusi bezala, helburu hauek, diagnostikoarekin koherente izanik, hezkuntza-komunitatearen beharrei erantzuten diete. Baina, helburu hauek betetzen direla jakiteko, eta batez ere eraginkorrak diren ikusteko baloratu egin beharko dira, eguneraketak eta egoera berrietara egokituz (Merma-Molina, Ávalos eta Martínez, 2019).

Honen aurrean esan daiteke, jarrera aldaketak lortzeko helburu horiek bete daitezkeela, bullying-aren gutxitzea bermatuz eta elkarbizitza hobeago bat izanaz.

Helburu komunitario eta kolektibo bat duten moduan, esan beharra dago, Bizikidetza plan hauen eraketan parte hartze komunitario bat eskatzen dela, irakasle, ikasle, familia eta langileen partetik. Nahiz eta dokumentu teknikoki egoki bat izan, hauen lanik gabe ezingo litzateke plana trinko heldu (Eusko Jaurlaritza, 2016).

Bizikidetza Planak sortu eta aurrera eramateko Uruñuela (2020) autorearen arabera, batez ere hiru gauza dira kontuan hartu beharrekoak. Alde batetik burokrasia ekiditea, bestetik, ikastetxeetako eguneroko konexioak sustatzea eta azkenik hezkuntza komunitatearen inplikazioa lortzea.

Halaber, Eusko Jaurlaritzaren (2016) Ikastetxeen elkarbizitza plana egiteko gidan, oinarritzko bost puntu izango dituela dio:

- Elkarbizitzaren inguruko hausnarketa bat, eta honen inguruko ikuspuntuak ulertzea.
- Ikastetxearen indarguneak eta ahulguneak zein diren identifikatzea.
- Helburu orokorrak finkatzea.
- Elkarbizitza hau hobetzeko ekintzak prestatu eta martxan jartzea
- Aurrera eramandako ekintza hauen balorazio eta jarraipena egitea.

Plan hauek modu ordenatu batean aurrera eramatea funtsezko izango da. Horretarako Rodriguezek (2007) hainbat ezaugarri bete behar dituela zehazten du:

- Hauen funtzioak ezin dira inprobisatu, jarraipen bat izan behar dutelako
- Ebaluazio, balorazio eta hausnarketa pertsonalak zein taldekoak egitea gomendatzen da.
- Planifikazioa eta interbentzioa analisi bezala ulertzea, instituzioaren (edo kasu honetan, ikastetxearen eta ikasleen) hobekuntza batera eramateko, beti ere, prebentzio aldetik begiratuta.
- Behar errealetan oinarritutako planak izan behar dute, zentru bakoitzeko egoerarea egokituak.
- Prebentzio asmoa duen proposamen bat eskeiniko dute plan hauek; nola jokatu, nola hobetu eta arazoak nola ekidin esango duena.
- “Bizikidetza Plana” bezala izendatzen diren txosten hauek ez dira nahikoa bizikidetza planak aurrera eramateko, izan ere, plan hauek aurrera eramane behar dira, hainbat ekintza, ebaluazio edo errebisio bidez.

Legedia: hezkuntza arloan aplikatua

Elkarbizitza Planen legediari erreparatzen badiogu, hainbat legeren bidez arautzen diraela ikus genezake. Horien artean 2/2006 Lege Organikoa, Hezkuntzari buruzkoa aurkitzen da, bertan heziketa proiektuei buruzko arauketa aipatzen da. 85/2009 Dekretuak ere elkarbizitza planen helburu, objektu eta egiturak zehazten ditu. Euskal Autonomia Erkidegoan ere Hezkuntza sailburuordearen R2016ko urtarrilaren 18ko Ebazpenak, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan eskola-jazarpenerako egoeretarako jardun protokoloaren aplikazioa arautzen du. Horrez gain, “Bullying” atalean aipatutako legeak ere aplikagarriak dira elkarbizitza egoki baterako ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko plan eta programak

Euskadi mailan ditugun elkarbizitzaren hobetzean laguntzeko asmoa duten plan edo programei erreparatzen badiogu, hainbat ditugu eskura. Gipuzkoako Foru Aldundiak, *Aniztasuneko Bizikidetzarako Foru Plana* (2018) aurkeztu zuen, bertan diskriminazio eza bultzatzeko ekintzak zehaztuz. 2016. Urtean, Foru Aldundiak (2016) berak, *Bizikidetzak Lantzen* izeneko plan bat abiatu zuen, bake, bizikidetzak eta giza eskubideen aldeko udal politikak sustatzeko helburua zuena. Eusko Jaurlaritzari dagokionean ere, *Bake eta Bizikidetzarako Plana* (Eusko Jaurlaritza, 2013) argitaratu zuten, “gizartea elkartzea helburu” lelopean izanik. Azkenik, gure lanari estuki lotua dagoen *Ikastetxeen Elkarbizitza Plana* (Eusko Jaurlaritza, 2016) topa genezake. Hau izenak aipatzen duen moduan, hezkuntza arloko elkarbizitza sustatzeaz arduratzen den gida bat da, bere horretan, ikastetxeetan aplikatzeko elkarbizitza planei buruzko hainbat pauso eskaintzen dituelarik.

Behin horrela nire lanaren arlo garrantzitsuenen oinarritzko testuinguru eta aurrekariak aztertuta, hau gaur egun nola islatzen den ikustea izango da egokiena, horretarako, gaur egungo egoeraren analisi bat eginaz.

3. GAIAREN EGUNGO EGOERA: BULLYING-A ETA EAEKO ESKOLA TESTUINGURUA: TENDENTZIAK ETA ROLAK

Bizikidetza planen beharra

Argia da eztabaidatua eta gorabeheratsua den gai bat dela bullying-arena. Ikusi dugun moduan, geroz eta gehiago.

Gaur egun hezkuntza sistema bera, gizartearen islada argia izaten da gehienetan. Konfliktu edo gatazken kontzeptua, zerbait negatibo eta arazotsua denaren pertzepzioa nagusitzen delarik. Askotan, gatazka, biolentziaren pareko jartzen dugu, patologia eta disfuntzioaren ia sinonimotzat joaz, ondorioz, derrigorrez zuzendu beharreko eta ekidin beharreko zerbait kontsideratuz (Jares, 2001).

Ildo beretik, sarritan, zenbait pertsona arazotsutzat eta arazotsutzat jotzen ditugu soilik gurekiko jokabide ezberdinak erakusten dituztelako. Hala ez bada, aurreiritziz josten ditugu, beraien ekintza, balore eta jokamoldeak kritikatzuz. Baina, nahigabe ere, gatazkaz inguratuak bizi gara, eta gure existentzian eragiten diguten bizitzako atal desberdinen parte dira (Rodríguez, 2007).

Gatazkaz eta biolentziaz ari garela, esan beharra dago, Castellsen (1998) ustez biolentzia ikasitako zerbait dela. Aldiz gatazka, giza harremanen arteko ondorio izan daiteke, askotan ekidin ezin daiteken zerbait bihurtuz, gatazkek dinamika propioak dituztelako. Castellsek (1998) dioen moduan: *“El conflicto en sí es un estado normal de la sociedad y de las relaciones interpersonales”*.

Eskola eremuetan ematen den jazarpenaz ari garelarik hitz egiten, esan beharra dago, ikastetxeak, instituzioak diren heinean, bizikidetza bermatuko duten lekuak izan beharko luketeela. Baina, egia da, askotan, hezkuntza zentroetan bake eta bizikidetza hau hautsi egiten da, bertako ikasleen formakuntzan zailtasunak sortzera iritxiz. Konfliktuoz beteriko atmosfera bat sortzen bada, bortizkeria gailendu egin daiteke, horrela, irakasle eta hezitzaileen lana aldrebestuz (Greta, Martínez-Otero, Rodrigo, Rodrigo, 2020).

Ez hori bakarrik, eskola bezalako inguru sozialetan, haur eta nerabeen ongizateaz arduratzen dira, baita, hauek izan dezaketen influentzia suntsitzaileen ekiditean eta prebentzioan, horrela, biktima zein erasotzaileak babestuz (Rodriguez, 2007).

Aipatu behar da, ikastetxeak bizikidetzarako ez direla kontexturik errazenak, izan ere, instituzio bezala konplexuagoak bihurtzen ari dira, bizi garen jendartearen islada direlako (Bravo eta Herrera, 2011). Eskolak bestalde dibertsitatearen erronka ere badu, hala dibertsitate kulturala, nola soziala eta etnia dibertsitatea. Hortaz baliautuz, ikastetxeetan konpromisoa erakutsi behar dute, ez soilik irakasle bezala, baizik eta hezitzaile bezala (Rodriguez, 2007).

Ikerketek erakutsi duten moduan, indarkeriak, indarkeria gehiago sortzen du. Biolentziaz beteriko bizikidetzaren batean, indarkeria honen areagotzea eman daiteke, baita, biktima izateko aukera ere, batez ere, haurtzarora edo nerabezarora bezalako garai zaurgarrietan (Rodriguez, 2007).

Ikastetxeetan ematen den indarkeria, ikastetxetik kanpo eragiten duela ere esan daiteke, zehazki bizikidetzaren publikoko arazo bezala kontsideratuz. Geroz eta gehiago arduratzen duen fenomeno da, hezkuntza prozesuan trabak sortzen dituelako. (Trianés, 2000).

Kasuak kasu, ikastetxe askotan, gatazkek oihartzuna izaten hasten direnean, aurre egin beharrean, tapatzeko joera izaten dute, errazago desagertuko delakoan. Aldiz, errealitateak bestelakoa izan beharko lukeela aipatzen du Rodriguezek (2007), hau da, gatazka hauek ikasteko aukeratzat hartu behar direla esaten du, horrela, hauen gestioa errazagoa izango litzatekeela defendatuz. Ez hori bakarrik, gatazkei konponbide bat aurkitzeko probabilitatea areagotzen dela ere esaten du, horrela, hauei etorkizunean aurre egiteko mekanismoak landuz, ekiditeko aukerak baliautuz.

Bizikidetzaren arazoak nolana eta nonahi azaldu daitezke. Beraz, gatazken izaera naturaltasunez hartu beharreko zerbait dela defendatzen du. Oinarrizko erronka bat dela kontuan hartuz, garapen eta hezkuntzarako aukerak sortuz (Rodriguez, 2007).

Jazarpenean eragina duten faktoreak

Gauzak horrela, aipatutakoa gehiago sakontzeko, gatazka, jazarpen eta biolentzia guzti horren atzean egon daitezkeen faktoreak gainbegiratu genitzake. Martinez-Oterok (2001) eskolako elkarbizitzaren inguruan eginiko ikerketan aipatu bezala, hainbat faktorek biolentzia eta gatazka sortu lezakete. Lehenengo eta behin gizarteaz hitz egiten du. Gure egunerokoaren parte den gizartean bertan, desberdintasuna, pobrezia edota langabeziaz inguratuak gaude. Desegitura honek, adaptazio ezaren eta jarrera antisozialen sorrera ekarri lezakeela ziurtatzen du Martinez-Oterok (2001). Bigarren faktore gisa komunikabideak aipatzen ditu, hauek ikasleengan bereziki eragiten dutela esanez. Horregatik, eta autorearen iritziz pertsonaletik, komunikabideak -eta batez ere telebista-hezitzaileak izan daitezten izatea nahi badugu, kontuan hartu behar direla gazteek pantailaren aurrean igarotzen duten denbora, baita kontrolatu ikusten dutena eta honen aurrean alternatiba osasuntsuagoak eta hezitzaileagoak eskaini.

Faktore garrantzitsuen familia jotzen du. Haur eta nerabeen garapenerako sostengu dira familia-kideak, beraz, familia barneko edozein egoerak sakonki eragin diezaiokete gazteari; hala nola, familia desegituraketa batek, guraso baten ausentziak, tratu txarrak edo biolentziaren erabilerak, kideen (batez ere gurasoen) botere harremanek edota kideen arteko ezberdintasunek.

Eskola ere faktore oinarrizkoa izan daitekeela ziurtatzen du. Eskola bera hierarkizatua dagoen instituzioa dela dio Martinez-Oterok (2001), eta organizazio honek berak ondorioak izan ditzakeela. Horregatik, eskolaren barnean dauden ahulguneak topatzen saiatu behar dela esaten du. Azkenik, eta eskolarekin erlazioa eginik, erlazio interpertsonalei egite die erreferentzia, zehazki irakasle artekoari, irakasle eta ikasle artekoari eta ikasleen artekoari. Laburbilduz, Martinez-Oterok (2001) esaten duena da, aipatutako pertsona hauen arteko erlazioek eskolako kliman eragin zuzena dutela, beraz, hauen arteko gatazkek ere zuzenean beraien hezkuntzan eta garapenean eragingo duela.

Beste ikertzaile batzuen ustez, bostgarren kausa mota bat aipa daiteke, hau da faktore indibidualak. Hauen artean kokatzen dira, hala nola, nahasmendu motaren bat egotea, trebetasun sozialik ez izatea, autoestimua-arazoak edo norberaren jokabidearen autoerregulazio-arazoak (Álvarez-García, Rodríguez, González-Castro, Núñez eta Álvarez, 2010).

Gizarte Psikologiaren arrazoiak azpimarratzea ere garrantzitsua izango da, faktoreak ulertzerako orduan. Aipatutako desorekak, hierarkizazioak edota desegituraketek boterearekin erlazio zuzena izan dezakete, honek, aurretiaz esan bezala, taldeen arteko bereizketak ekarri ditzakeelako (Arnosó eta Larrañaga, 2013), horrela, diskriminazioari zein jazarpenari bide eginez. Autore hauen *ardi beltzaren teoriari* ere erreparatu diezaiokegu, taldeko identitate soziala mantentzeko nahi horrek, bazterketak ekarri ditzakeelako, hau ere, jazarpenean eragin dezakeen faktore zuzen bat izanik.

Normalizazioa eta konformitatea (Sherif, 1935; Arnosó eta Larrañaga, 2013) ere faktore bilakatu litezke, talde presioa sortu dezakeelako, taldeko kide izanez. Horrela, adibidez, gerta liteke ikasle batek, jazarpena egiten duen taldearen biktima ez izateko asmoz, bera ere bullying egiten hasi daiteke, talde presioa sentitu dezakeelako jazatzaileen partetik.

Bullying-aren prebalentzia datuak

Eskola jazarpenaren eta bullying-aren inguruko datuei dagokionez, esan beharra dago ez dela guztiz erraza eguneratutako datuak aurkitzea, edota datu oso zehatzak topatzea.

Baina, Espainiar Estatuan, 2012 eta 2017 urte bitartean Hezkuntza Ministerioak (2018) jasotako datuen arabera (zeinak 2018an argitaratu diren), guztira, ia 12.799 dei jaso zituzten eskola jazarpena salatzen. Dei guzti horien ostean ordea, 5.557 soilik izan ziren eraso edo jazarpen bezala kontsideratuak izan zirenak. Eboluzioari begiratzen badiogu, 2012.urtean 890 izan ziren bullying-aren biktimak, 2013an 800 eta orduztik igotzen joan da, 2017.urtean 1.054 izan zirelarik eskola jazarpenaren ondorioak jasan zituztenak. Autonomia erkidegoei dagokionez, 2017. urtean, kasu gehien erregistratu zirena, Andaluzia izan zen, guztira 255 kasurekin, eta dauden datuen arabera, Errioxa da gutxien izan zituena, zehazki 4 kasu.

Aipatzekoa da ere biktimen adinari erreparatzea, izan ere, urte horietan zehar, kasurik gehienak 12 eta 14 urte bitarteko nerabeen artean ematen dira. Hau da, Bigarren Hezkuntzan dauden garai horretan (Hezkuntza Ministeriotzat, 2018).

Esan nezake adin konplikatua izan ohi direla, taldeak, norbanakoak baino pisu gehiago izan dezakete garai hauetan, eta beraz, talde harremanek, botereak eta talde baten kide izateko nahi horrek, erraztu egin lezake bullying-aren eta eskola jazarpenaren igoerak.

Bullying-aren atalean jadanik esan modura, Euskal Autonomia erkidegoan, 2018 eta 2019 urte bitarte horretan, gorakada nabaritu da, aztertutako kasuak 553 izatetik 755 izatera igaro zirelako, eta hala izan ziren kasuak zehazki 79tik 96ra igo zirelako (Eusko Jaurlaritza, 2019).

Eginiko ikerketak eta ondorio nagusiak

Estatuko Herri Defendatzaileak (2007) eginiko txostenean, ikastetxeetako tratu txar eta jazarpenaren inguruan zegoen hutsune zientifikoa betetzeko helburua jarri zuen. Aurretiazko ikerketa lauso batzuk eginak egonda ere, datu gutxi zeudela uste zelako, eta hauek fidagarritasun maila gutxi zuten, izan ere, arazoaren muinera heltzea zailtzen zuten, baita, arazoaren ezaugarriak zein ziren eta esku-hartzeko beharra zuten arloak zein ziren ezagutzea ere zailtzen zuten.

Baina esan beharra dago, bullying-aren eta eskola jazarpen edo erasoen gutxitzearen eta Bizikidetzaren Planen arteko erlazioak aztertu dituzten hainbat ikerketa egin dituztela urteetan zehar. Hainbat izan dira, alor hau jorrazera ausartu direnak, denek ere oinarri bera izanik. Batzuk Bizikidetzaren Planen eta elkarbizitza beraren inguruan zentratu dira, hauek eskolako gatazketan izan dezaketen eragina eta elkarbizitzarekiko duten pertzepzioa aztertuz, horrela sentitzen duten babesa aztertuz edota bullying-aren aurrean aurreikuspenak egiteko baliagarriak den ala ez ikusiz (Del Rey, Ortega eta Feria, 2009; Del Rey, Ortega eta Casas, 2013). Baita eskolako elkarbizitzan dauden arazo eta konponbideak bilatu dituztenak ere (Martinez-Otero, 2001).

Del Rey, Ortega eta Feriak (2009) eginiko ikerketak, lagin modura ikastetxe ezberdinetako ikasle, irakasle eta familiak hartu zituzten. Hauen helburua elkarbizitzarekiko zuten pertzepzioa aztertzea zen. Ikerketan ikusi zutenaren arabera, ikastetxeetan orokorrean bizikidetzaren handia da, baina, hala ere, horrek ez du esan nahi gatazken maila gutxiagokoa zela. Hala ere, kritikoak izan dira, eta horren atzean,

informazio falta sumatu dute, batez ere, guraso eta familiaren partetik, hauek izan baitira gutxien informatuak bizikidetzaren inguruko planei eta aktibitateei buruz. Bestalde, bizikidetzaren pertzepzioa dela eta, DBHko ikasleak positiboak ikusi zituzten. Beraz, horrek esan nahi du, hau guziaren barne, ikasleak elkarbizitza nahiko egokia ikusten dutela, irakasle eta familiarekin alderatuz.

Hala ere, badira, ikasle, irakasle zein familien ahotsa entzun nahi izan dutenak eta Espainiar estatuan zehar hauek bizikidetzaren arazoengatik inguruan duten balorazioak jasotzen dituztenak (Gázquez, Cangas, Padilla, Cano eta Pérez-Moreno, 2005).

Ezin geratu gure lan honetan irakasleek duten paperaren inguruan hitz egin gabe. Izan ere, badira ikerketak irakasle figuraren rola aztertu dutenak, zehazki eskolako elkarbizitzan duten paperaren inguruan (Monge-López eta Gómez-Hernández, 2020). Eskola jazarpenaren inguruan, irakasle izango diren horien formakuntza ere aztertu dute zenbaitek (Álvarez-García, Rodríguez, González-Castro, Núñez eta Álvarez, 2010). Irakasleen ahotsa entzun eta hauek eskolako klima eta elkarbizitzaren inguruan duten pertzepzioaren inguruan ere ikerketa egin dute beste batzuk (Peñalva, Vega-Osés, López-Goñi eta Satrústegui, 2015).

Hala eta guztiz ere, Merma Molina, Ávalos eta Martinezek (2019) Espainiar estatuan, Bizikidetzaren Planen eraginkortasuna ebaluatu duten ikerketa fidagarriarik oraindik ez dela aurrera eramanean ziurtatzen dute hauek ere. Halaber, ikastetxe eta zentro ezberdinetan bizikidetzaren egokiagoa izan dadin, hainbat ikerketa egin dituztela ziurtatzen dute, horrela, estrategia eta proposamen berriak baloratuz.

Ez hori bakarrik, ikusi dute eskolako bizikidetzaren arautegiari garrantzi gutxi eman zaiola. Gainera, ohartu dira ikasle hauen guraso eta familia kideak ez direla behar bezala informatuak izan Bizikidetzaren Planei buruz, ezta, ikastetxeak plan hau aurrera eramateko antolatzen dituen ekintzei buruz ere (Merma Molina, Ávalos eta Martinez, 2019). Hauen hitzetan Bizikidetzaren Planak ez dira batere estrategikoak, horrela arrazoituz: *“tienen más debilidades que fortalezas, siendo el diagnóstico, la falta o inadecuada temporalización y asignación de responsables para las actividades, y el deficiente seguimiento y evaluación los problemas más relevantes. En consecuencia, es necesario un enfoque holístico, real y práctico de la convivencia escolar, orientado al cambio en la cultura escolar.”*

Halaber, egoera honen aurrean hobetu daitezkeen hainbat proposamen eskaini zituzten ere (Merma Molina, Ávalos eta Martínez, 2019). Adibidez, hezkuntza administrazioak laguntza gehiago eskaintzea, dialogo eta eztabaidan oinarritutako mekanismo egokiak izatea, interbentzio eta prebentzio ekintza gehiago sustatzea (jarrera prosozialak bultzatuz) edota zuzendarientzako programa bereziak ezartzea. Azkenik, gehien interesatzen zaidan proposamenak aurkeztu zituzten, irakasleei zuzendutakoak. Hiru autoreek irakasle eta irakaskuntzan orokorrean, gai hauekiko formakuntza hobetzea; batez ere, Bigarren Hezkuntzako Masterretan, zein Magisteritzako Graduan ere, hauetan mediazio eta interbentziorako teknikak erakutsiz, gatazken kudeketa landuz, gaitasun komunikatibo zein emozionalak, hezkuntza kooperatibo bat sortzeko.

Ikerketa hauek erabili dituzten metodologiari eta laginei dagokionez, esan beharra dago orohar, gehienek metodologia antzerakoak ibili dituztela; zehazki galdetegiak eta elkarrizketa erdi garatuak.. Horien artean, azpimarratzekoa iruditu zait, bat baino gehiago izan direla Ortega eta del Reyen (2007) *Cuestionario sobre el Estado Inicial de la Convivencia Escolar* eta honen adaptazioak erabili dituztela. 50-90 minutuko erdi egituratutako elkarrizketak ere erabili dituzte Gonzalez-Calvo, Horigüela-Alcalá, Hernando-Garijo eta Pérez-Puevok (2019). *Test sobre recursos para la convivencia escolar (TRECE)* izeneko test batez baliatu dira bestalde Álvarez-García, Rodríguez, González-Castro, Núñez eta Álvarez (2010). → izen hauek kursiban daoz!

Laginen aldetik, askotarikoa izan da batzuk, ikasleetan soilik zentratu dira, hauek nagusiki Bigarren Hezkuntzakoak izanik. Esan bezala familiakideak ere ikertu dituzte zenbaitek, eta orokorrean gehien zentratu direnak irakasleengan izan dira.

Irakasleen papera bizikidetza egoki baterako

Aipatu bezala, ez da lehen aldia irakasleen paperaren garrantzia azpimarratu dutela ikerketetan. Bizikidetza eta diziplina arazoek irakasleei buruhausteak sortzen dizkiete, batez ere Bigarren Hezkuntzan. Sarritan ematen dira eta urtetik-urtera hauen kasuak igotzen doaz (Defensor del Pueblo, 2000).

Hori dela eta, garrantzitsua da irakasleek elkarbizitzaren inguruan duten papera, izan ere, gatazken inguruko eztabaida eta dialogo pedagogikoak, ikasleen ikasketa,

hezkuntza eta baita inklusio prozesuan eragin berebizikoa izan dezaketelako (Parker, 2016).

Hezkuntzaren eremuan indarkeriazko jokabideak agertzea ezin zaio kausa bakar bati egotzi, batez ere aipatzen dituen jokabide-aniztasun handia kontuan hartuta. Behar bezala ulertzeko, elkarren artean eragiten duten kausa-multzo batera jo beharko litzateke. Arrazoi horietako batzuk ikastetxeari berari dagozkio. Besteak beste, zentroaren antolaketa, eskolak emateko modua edo ikaskideen presioa (Félix, Soriano, Godoy eta Martínez, 2008).

Eskolako indarkeriaren jatorria konplexua eta kausa anitzekoa denez, konponbidean gizarte osoak parte hartu beharko luke (familia, legegileak, komunikabideak...). Hala ere, irakasleen zeregina, azken batean, arazo horiei egunero aurre egiteko lan zaila duena denez, bereziki garrantzitsua da (Álvarez-García, Rodríguez, González-Castro, Núñez eta Álvarez, 2010).

Álvarez-García, Rodríguez, González-Castro, Núñez eta Álvarezek (2010) irakasle izateko ikasten ari diren ikasleei buruz eginiko ikerketan aipatzen duten bezala, hauen lanaren emaitzetan erakutsi da eskolako bizikidetzaren inguruko formakuntza egoki bat baliagarria dela. Aldiz, lan mundu horretan esperientzia gehiago izateak ez du erakutsi formakuntza jasotzea baina baliagarriagoa denik, ez baitu esperientzia horrek gaiarekiko jakinduria gehiago ziurtatzen. Beste era batera, irakaskuntzan esperientzia izateak klaseak ematerako orduan eta ikasleekin tratatzerako orduan konfiantza eta erraztasun gehiago izango dute, baina, ez dute erakutsi teknika edo legedi baliagarrien inguruko ezagutza gehiago dutenik. Horrenbestez, formakuntza eta esperientzia gehigarriak kontsideratzen dituzte.

Peñalva, Vega-Osés, López-Goñi eta Satrústeguik (2015) eskolako klimaren eta bizikidetzaren planen inplementazioan irakasleek duten pertzepzioaren inguruan eginiko ikerketan erakutsi duten modura, gatazka eta estresa sortu dezaketen egoerak sortu ditzakete irakasleek beste subjektuekin duten erlazioek, dela irakasle eta familia arteko erlazioek, dela irakasle-ikasle artekoek, edota irakasle-irakasle artekoak. Hori oinarrian hartuta, eginiko ikerketaren erantzunek dioten modura, irakasleen gaitasun emozionalen hobetzearen beharra sumatu dute, nahiz eta irakasleek beraien lana egoki egiteko aurretik duten formakuntza egokia izan. Ikusi dutenaren arabera, azken boladan, irakasleen

gaitasun emozional hauei garrantzi gutxi jarri zaie formakuntza sisteman zein sistema laboralean.

Córdoba-Alcaide, Ortégak-Ruiz eta Nail-Kröyerrek (2016) argitaratutako liburuan, hainbat elkarrizketa egin zizkien ikastetxe ezberdinetako irakasleei. Bertan, irakasleek esan zutenaren arabera, gelako giroa egokia zen eta harreman-espazio gisa kalifikatu zen, izan ere, ikasle eta irakasleen artean alde zuzenetik adostutako bizikidetzara oso mugatuak zeuden, horrela, arau horiek errespetatzera bideratuz. Hau gainera, indartu egiten da irakasleek ikasleen ezaugarrietara egokitutako baliabide erabilgarriak erabiltzen dituztenean, baita jardura deigarriak eta ordena- eta garbitasun-testuinguruak erabiltzen dituztenean. Testuinguru honek, errutina bat ahalbideratzen dien, denborarekin ikasleak modu autonomoan bere ohiturak konfiguratuko ditu, eta adi egotea ahalbidetuko dio etengabeko errefortzu positiboa emateko. Honen guztiaren baturak, ikasleen motibazio pertsonala zein akademikoa ekarriko diola baieztatzen dute.

Honekin esan nahi dudana da, irakasleen papera benetan erabakigarria izan daitekeela eskola klima hobetzeko eta horren baitan, eskola jazarpena eta bullying egoeraren gutxitzeak emateko. Horretan baliabide bezala Bizikidetzaren Planak erabiliz eta hauetan irakasleen roleri garrantzi eta indar gehiago emanez.

Bullyingaren prebentzioa: KiVa programa (2006)

Hainbat ikerketa eta azterketa aipatu eta ikusi ondoren, garrantzitsua iruditzen zait, eskoletan gaur egun martxan dagoen proiektu bat azpimarratzea. Esan bezala, gaur egungo bullying kasuei aurre egiteko asmoarekin, mundu mailan hainbat proiektu eta programa abiatu dira, eta honenbestez, baita EAEko ikastetxetan ere. Horien artean aurkitzen da aski ezaguna den KiVa proiektua.

KiVa proiektua Finlandiako Turkuko Unibertsitatean garatu den programa bat da, honekin, bullying-ari aurre egiteko asmoarekin sortua. Hori dela eta, ikastetxeek arazo honi aurre egiteko hainbat tresna eta material eskaintzen ditu. Material horien artean, irakasleentzako zein gurasoentzako gidaliburuak, jolasak, ikus entzuneko materiala, inkestak edo grafikoak aurki daitezke.

Aipagarria da esatea ere, mundu mailan gehien aztertua izan den bullying-aren aurkako programa dela. Programa honen helburu nagusia, aipatu bezala, bullying kasuei eraginkortasunez erantzun bat ematea izango da, horretarako hiru elementu oinarri hartuz: prebentzioa, esku-hartzea eta jarraipen bat egitea. Prebentzio-ekintzak, ikasleei zuzenduta daude, eta kasu hauei aurre hartzea dute asmo. Esku-hartzearen bidez, bullying kasuan inplikatuak egon direnei zuzentzen dira, honekin amaitzeko helburuarekin. Azkenik, ikastetxe bakoitzak egoeren jarraipen bat egiteko tresnak eskaintzen dizkie proiektu honek (esaterako, inkestak).

Irakasleen paperarekin erlazionatuz, argia da, proiektu honek ikastetxeetan irakasleen inplikazioa beharrezkoa duela, horrelako egitasmoak aurrera eramane eta bideratu ahal izateko.

Halaber, ikusirik gaur egun bullying-aren eta Bizikidetzaren Plan hauek duten egoera, eta hauen inguruan irakasleen duten eragina aztertu ondoren, lan hau egitearen interesa azalduko dugu, zehazki zientifikoki eta sozialki izan dezakeen garrantzia azpimarratuz.

4. LANAREN INTERESA

Zentroetako ikasleak, beraien bizitzaren zati handi bat, ikastetxean bertan igarotzen dute, zehazki hamahiru edo hamabost urte inguru. Urte luze hauek aukera modura hartu beharko lirатеke, beraien oinarrizko hezkuntzan eta beharretan zentratuz eta hauek lantzeko mekanismoak sortuz. Baita, elkarbizitza sustatzeko, talde harreman berriak sustatzeko (endotaldearekin edota exotaldearekin), desberdintasunak onartzeko eta edozein motatako jazarpen eta indarkeriak saihesteko.

Ikerketa lan hau hori dena sustatu ahal izateko baliagarria zian daitekeela iruditzen zait. Ez soilik arlo zientifikoko batean, baizik eta arlo sozial, kriminologiko eta baita pertsonalean ere.

Interes zientifikoa

Ikusi dugunaren arabera, nahiz eta ikerketa ezberdin asko egin, horrek ez du esan nahi denek %100ean errealitatea erakusten dutenik, ezta denak baliagarria direnik ere. Ikertzen jardun naizen orduan, hutsune ugari topatu ditut bidean, izan ere, zenbaitek gai honen inguruko azterketa egin ostean, balorazio edo ebaluazio eraginkorrik egiten ez zituzten egiten.

Ikerketa asko gainera, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo burututakoak izan dira, komunitate edo autonomia handiagoetan zentratuz. Hori dela eta, nire ikerketa lan honekin beste ikuspuntu bat lortu nahi dut, orain arte egin diren ikerketekin alderatu eta lan horietako emaitzak nire inguruko errealitatearekin bat datozen ikusi. Zehazki, Urola Kostako inguruan zentratuko naiz, hau da, EAeko bailara txiki batean. Horrekin, errealitatea beste begirada batetik aztertzea lortuko da.

Interes zientifikoa dela eta, esan nezake, lan honekin Bizikidetza Plani buruzko bestelako hausnarketa bat egin nezakeel. Horrela, lortuko ditudan emaitzen bidez, elkarbizitza errazago eta hobetagoa lortzeko asmoa duten plan hauentzat proposamen berriak bildu ditzaket, behar bada, bullying-aren edo jazarpenaren prebentzioan eta ekiditean aldaketak eraginez.

Interes soziala

Merma-Molina, Ávalos eta Martínezek (2019) eginiko lanean hezkuntza komunitatea larriki kezkatuak azaldu direla egungo mugako egoera eta gertakariekin. Kezka honek, egoera muturrera eramatean edo gertaera benetan larriak gertatzen direnean, presentzia eta garrantzia hartzen duela ere baieztatzen du, hau larria izanik ez baitute ordura arte arreta edo ardura berezirik jartzen egoera hori iritxi arte.

Pertsonalki, horrelako perspektiba izatea larria eta kezagarria iruditzen zait, izan ere, zerbait ondo egin ez denaren ondorio izan daitekeelako, edo behar bezalako neurri eta planak ez direlako aplikatu. Eta zuzen-zuzenean ikasleei eragiten diola kontuan hartuta, oraindik eta kezagarriagoa da.

Ikerketa lan honen bidez, Bizikidetza Planetan aldaketaren bat proposatu ahal izango banu, horrek hobekuntzak ekarritz, pozgarria litzateke, horrela, bullying-ari eta jazarpenari garrantzi gehiago emango diogulako.

Pertsonalki askotan izaten dut sententzioa gai honen inguruan sententzio falta dagoela (edo hori da nik inguruan sentitu dudana), behar baino garrantzia gutxiago ematen zaiola. Ez soilik arlo akademikoan, baita arlo administratiboan ere. Aztertzen egon naizenaren arabera, elkarbizitza baketsu baten aldeko proposamen ugari daude; baina gehienak terrorismoarekin, biolentziarekin edota arrazakeriarekin lotuak. Baina, gutxi dagoela iruditu zait eskola jazarpenaren arloan. Beraz, horrekin, interesgarria iruditzen zait arlo administratiborako ere, Bizikidetza Planen berritze eta hobetzean lagundu badezaket, aurrera-pausuren bat egiteko balio badezake.

Arlo administratiboan kontzientzia gehiago zabalduz gero, arlo akademikoan ere aurrerapenak ekarriko dira, baita komunikabideetan ere, horrela, sozialki presentzia gehiago lortuz bullying-ak eta eskola jazarpenak.

Irakasleei dagokionez, hauentzat ere lagungarria izan daitezke egin ditzazkeden ekarpenak ere; batez ere, Bigarren Hezkuntzako irakasle izateko masterra egiten ari diren horientzat. Mekanismo berriak sustatu eta aplikatzea ekarri lezake, horrela, beraien komunikazio gaitasunak eta gaitasun sozial zein emozionalak garatuz, ikasleen arteko gatazkak identifikatu, prebenitu eta ekiditeko.

Hori gutxi ez eta ikasleen artean beraien arteko harremanetan eraldaketak ematea ere suposatuz dezake, hauen arteko botere harremanak, talde presioak edota estatusak nolabait deuseztatuz edo arinduz. Horrek ere bullying-aren gutxitzea ekarriko luke, eta eskolan eta ikasgelan bertan egongo den klima hobetuz.

Interes kriminologikoa

Lan guzti honek ere badu bere arlo kriminologikoa. Kriminologia batez ere, delituan, delitugilean eta biktiman zentratzen da. Oraingo honetan biktimaren papera rol garrantzitsuenetakoa dela esango nuke, azken finean, ondorio gehienak jasaten dituztenak baitira. Askotan, biktimek, horrelako egoeren aurrean zer egin ez dakitenaren sententzioa dut, ez dakitela norena jo, edo nola azalerratu beraien egoera. Egoera hau zaildu egin

daiteke hirugarren pertsonak isilpean geratzen badira, eta testigu isil moduan jokatzeko badute. Honen aurrean Bizikidetzaren Planen hobetzeak, irakasleen rola gehiago aktibatzen badu, eta hauei ikasleekin duten komunikazioa hobetzen laguntzen badiete, mekanismo berriak sustatuz, biktima edo jazarpena jasaten ari diren pertsona horiek egoerarekiko duten pertzepzioa aldatu dezakete. Hau da, egoera ulertzea lortu dezakete, irakaslearekin hitz egiteko aukera gehiago badituzte, gertatzen zaiena azaleratzeko aukera berriak lortuko dituzte eta egoerari aurre egitea erraztuz.

Hau gutxi ez balitz, bullying-a ikuspegi kriminologikotik azaldu dugun unean aipatu bezala, bullying-ak suizidio eta buruaz beste egiteekin erlazio estua duela ikusi da. Hori horrela, bullying-aren esku-hartze eta prebentzio lan eraginkorra egiten bada, suizidio tasa ere gutxitu egin daiteke.

5. METODOLOGIA

5.1. HELBURU ETA HIPOTESIAK

Ikerketa kuantitatibo zein kualitatiboari buru-belarri heldu baino lehen, funtsezkoa da proiektuan zehar gure helburu eta hipotesiak zein diren behar bezala argitzea. Gaiaren inguruan informatzen eta saltsatzen ibili naizen heinean, nire lanaren helburuan finkatzen joan naiz.

Hori horrela, ikerketa honen helburu nagusia izango da Bizikidetzaren Planek, bullying-arekin edo eskola jazarpenaren inguruan duen eraginkortasuna identifikatzea; horretarako kontuan hartuz irakasleek gai hauen inguruan jaso duten formakuntzak, planen inplementazioan eragina izan dezakeela.

Helburu zehatzago eta espezifikoei begira, garrantzitsua izango da ikustea ea gaur egun irakasleek jasotzen dituzten formakuntza horiek eraginik duten ala ez eta horren harira, formakuntza gehiago beharko liratekeen edo ez hausnartzea; hori hala izanez gero, proposamenak eginez.

Gauzak horrela, eta lanaren helburuak kontuan izanda, honakoak izango dira nire hipotesiak:

H1: Bizikidetza Planek eragin positiboa dutela bullyingaren eta eskola jazarpenean gutxitzean.

H2: Irakasleen papera Bizikidetza Planen inplementazio eraginkorrean garrantzitsua dela.

H3: Irakasleek bullying-aren inguruan izaten dituzten formakuntzak ez direla nahikoak.

H4: Irakasleen formakuntzak ez dira nahikoak izango.

H5: Irakasleek bullying-aren eta eskola jazarpenaren inguruan izan duten formakuntza egokia bada, Bizikidetza Planetan duten paperak eragina izango duela bullying-aren eta eskola jazarpenaren gutxitzean.

5.2. METODOLOGIA OROKORRA

Ikerketa lan baten oinarrian, mota ezberdinen bidez jasotako datuen analisia dago, horrela gure hipotesi eta helburuekin erlazionatutako emaitza eta ondorioak lortuz.

Gibbsen (2007) arabera, hainbat formatan aurki ditzakegu datu hauek; hala nola, elkarrizketa bidez, dokumentu, liburu edo aldizkari bidez, web orrien bidez, pelikulen bidez eta beste hainbat modutan. Halaber, gehien erabiltzen den datu analisia, testu bidezkoa izaten dela dio. Askotan, testu hauek elkarrizketen transkripzioak izaten dira, eta beste askotan lan etnografikoak zein dokumentu ezberdinak.

Nire kasuan, ikerketa lan hau aurrera eramanez erabili dudana metodoa, metodo mistoa izan da, hala ikerketa kualitatiboa, nola ikerketa kuantitatiboa jasotzen dituen metodoa zehazki.

Horretarako, bi iturri nagusi erabiliko ditugu. Alde batetik, ikastetxe ezberdinetako Bizikidetza Planak eta bestetik, elkarrizketak (*ikusi 1. eranskina*). Ikerketa kuantitatiboan zein kualitatiboan, ikastetxe ezberdinen Bizikidetza Planak eta

elkarrizketak izango ditugu aztergai. Elkarrizketetan, ikastetxe ezberdinetako irakasle, koordinatzaile eta orientatzaileei lan hau oinarritzen den gai garrantzitsuenen inguruko galderak egingo dizkiet, gure hipotesiak egokiak diren ala ez ikusteko.

Atal etikoari eutsiz, aipatzekoa da, beste ikerketekin alderatuz, zenbaitetan, ikerketa kualitatiboaren faktore etikoak ezberdinak izaten direla, planifikazioan eta datu biltzean eragiten duelarik (Gibbs, 2007). Autore honen ustetan, ikerketa honetan parte hartuko duten laguntzaile zein elkarrizketatuek zehazki jakinaren gainean egon behar dute beraien bidez lortuko diren datu eta informazio guzti hori zertarako erabiliko den, baita, zein asmo eta helbururekin erabiliko den. Horrez gain, ikerketatik edozein unetan atera daitezkeela ere adierazi beharko zaiela dio.

Hori horrela, eta aspektu etikoa kontuan hartuz, ikerketan lagundu didan ikastetxe orori lehenik eta behin, lan honek duen interes akademikoa azaldu diet, hau da, datu hauek beraien osotasunean ikerketarako izango direla, nire lana burutzeko eta nire hipotesi eta helburuak aurrera eraman ahal izateko. Horrez gain, anonimotasuna bermatuko niela ziurtatu nienez, ez dut inongo momentutan ikastetxe hauen izenik aipatuko ezta hauek kokatzen diren herriak ere, beraz, ikastetxe bakoitzak kode bat izango dute analisisa egiterako orduan. Aipatu ere, Gibbsek (2007) esan bezala, ikastetxe bakoitzari, harremanetan jarri nintzen lehen unetik azaldu nizkien ikerketaren nondik norakoak, zein helburu nituen eta datu hauek zehazki zertarako erabiliko ziren.

- **Bizikidetza Planak eskuratzea**

Datuak biltzerako unea nahiko gora-beheratsua izan da, izan ere, ez zait batere erraza egin. Ikerketa hau mugatua izatea nahi nuenez, nire bailaran zentratzea erabaki nuen, zehazki Urola Kostan. Horrela, hainbat ikastetxeetara deiak egin eta korreo elektronikoak bidaltzen ibili nintzen.

Guztira nire bailarako 6 ikastetxerekin saiatu naiz harremanetan jartzen, horien artean batzuk herri eskolak eta beste batzuk Ikastolak, horrela, agian ikastetxe publiko eta kontzertatuen artean ezberdintasunak topatzeko ideiarekin.

Zenbait ikastetxeetatik ez dut erantzunik jaso, eta deitzen saiatu izan naizen arren, ez dut lortu harremanetan jartzea. Besteren batzuk zuzenean nire ikerketa lanean parte

hartzeko interesik ez zutela esan zidaten. Baina, azkenean, gutxi batzuen baiezkoa izan nuen, zehazki bi ikastetxeena. Hauekin ere, esan beharra dut, harremanetan jartzea ez dela erraza izan, baina, behin komunikatzea lortu nuenean, gustu handiz eskaini didate laguntza, berehala eskuragarri jarri izan dizkidalako hauen ikastetxeetako Bizikidetza Planak, baita, irakasleek bullying-a eta bizikidetzaren inguruan jasotzen dituzten formakuntzen nondik norakoak ere. Bizikidetza Planak mezu elektronikoko bidez bidaldu zizkidaten biek hala biek.

- **Elkarrizketak eskuratzea**

Bizikidetza Planak eskuratzean aipatu dudan moduan, ikastetxeekin harremanetan jartzea nahiko arazotsua izan zen. Hori horrela, sei ikastetxeetatik, azkenean bi ikastetxe soilik izan dira nire Gradu Amaierako Lanean parte hartzeko prest egon direnak.

Baiezkoa eman zidaten bi ikastetxe horiek, lehenik eta behin, korreo elektronikoko bidez beraien bizikidetza planak bidali ostean, beraiekin harremanetan jarraitu nuen, elkarrizketak egiteko ordua eta eguna zehazteko hain zuzen ere. Flexibilitate handia eskaini zidaten hau finkatzeko orduan, horrela, berehala geratzea lortu genuelarik.

Aipatutako A ikastetxeko elkarrizketatuarekin online bidezko plataforma bat erabili genuen elkarrizketa egiteko. Aldiz, B ikastetxeko pertsonari elkarrizketa egitera, ikastetxe bertara hurbiltzea lortu nuen, herri bertan nuelako.

- **Lagina**

Bizikidetza Planei dagokionez, eta arazo eta gora-behera guztien ondoren, azkenean nire bailarako bi ikastetxe, eta zehazki bi Ikastola izan dira parte hartu dutenak. Hauek, beraien zentroko Bizikidetza Planak eskuragarri utzi dizkirate.

Hori horrela, A ikastetxea eta B ikastetxea bezala kodifikatuko ditut, hauen anonimotasuna bermatu asmoz.

Elkarrizketei dagokionez, berriz, Bizikidetza Planak eskuragarri jarri dizkidaten ikastetxe bereko kideak izan dira elkarrizketatuak hurrenez-hurren.

A ikastetxeko kidea, hau da, A elkarrizketatua, gizonezkoa da eta Ikastolako Kiva taldeko arduradunetako bat da. Aldi berean, irakasle ere bada, beraz, irakasle-ikasle arteko dinamika gertutik ezagutzen duen pertsona bat dela esango nuke.

B elkarrizketatuari dagokionez, aldiz, A elkarrizketatua ez bezala, emakumea da eta B ikastetxeko orientatzaile lanetan ibili da orain dela ia hamar urtetatik.

5.3. IKERKETAREN METODOLOGIA

Ikerketa dokumental batean, datuek dibertsitate nabarmena eskaintzen digute, komunikatzeko modu ezberdinen bidez (Gibbs, 2007) .

Gibbsen (2007) hitzetan, ikerketa kualitatibo batean, fenomeno partikular baten esplorazio sakon bat egiten da.

Ikerketa kuantitatibo eta kualitatibo honen helburua hipotesiekin kontrastatzeko informazioa eta datuak eskuratzea izango dela. Hori horrela, eskuratutako Bizikidetzeta Planetan eta eginiko elkarrizketetan, jazarpenaren inguruko puntuak aztertuko ditut, baita, irakasleek plan hauen aplikazioan eta bullying-aren gutxitzean izan ditzaketen esku-hartzeak eta inplikazioak.

Kvaleren (2011) arabera, erdi-egituratutako elkarrizketa baten bidez, elkarrizketatuak bizi izandako eguneroko gaiak bere ikuspegitik ulertu genitzake. Hala ere, elkarrizketa profesional eta akademiko batek, helburu edo foku zehatz bat dute, horretarako aplikatuko den teknika batekin.

Elkarrizketa hauen helburua, hasieran planteatutako helburu eta hipotesien kontraste bate egitea izango litzateke, ea gure hipotesiak egokiak diren ala ez ikusi eta horren inguruko analisi bat egiteko.

Erdi-egituratuak izatean, ez dira eguneroko solasaldi edo hizketaldi irekiak, ezta galdetegi guztiz itxiak ere (Kvale, 2011). Horrez gain, Pattonen (2002) arabera, metodo kualitatibo honetan erabilitako elkarrizketek, ikertzaileari gure ikerketan agertzen diren planteamendu espezifikoen barruan, gai sakonagoak eta zehatzagoak aztertzeke aukera ematen diote. Bestalde, ikerketa kualitatiboetan erdi-egituratutako elkarrizketa bat

erabiltzean, malgutasun handiagoa ematen digu galderak sakonago ulertzeko eta datu gehiago eta zehatzagoak lortzeko (González-Calvo, Hortigüela-Alcalá, Hernango-Garijo eta Pérez-Puevo, 2019).

Azken honen harira, Diaz, Torruco, Martinez eta Varela (2013) hitzetan, elkarrizketen bitartez, informazio zabalagoa eta zehatzagoa lortzen da; gainera, momentuan zalantzaren bat egonez gero hau argitzeko parada dago, jasoko den informazioa erabilgarriagoa izanez.

Elkarrizketatzaileak, elkarrizketatuak esandako guztiaren esanahi bat atera beharko du, honen hizkera, ahoskera eta bestelako adierazpen mota guztiei ere erreparatuz. Ez hori bakarrik, elkarrizketa oinarrituko den gai horien inguruko gutxiengo ezagutza bat ere bermatu behar du (Kvale, 2011).

Elkarrizketaren interpretazioari edo analisiari dagokionez, Kvaleren (2011) arabera, ez dago modu zehatz bat elkarrizketa baten analisia egiteko, eta hauen esanahi esentzialesara iristeko. Baina, badira, hainbat foku edo ikuspuntu ezberdin elkarrizketak eta hauen esanahien analisia egiteko, nor ala nor bere teknikekin. Horrela, bi motatako analisiak egon daitezke: alde batetik esanahian zentratzen direnak, eta besteak lengoaiari zentratzen direnak.

5.3.1. Ikerketa Kuantitatiboaren analisiaren prozedura

Bizikidetzaren Plan eta elkarrizketa hauek aztertzerako orduan, garrantzitsua da jakitea, zer den zehazki kontuan hartu nahi duguna, jakiteko zein gauza diren garrantzitsuak eta zein ez. Hori horrela, kodifikazioaz baliatzea erabilgarria izan daiteke.

Kodifikazioari heldu baino lehen, garrantzitsua eta erabilgarria izango da eginiko elkarrizketa hauen transkripzioak egitea, horrela, eskura izateko behar dugun informazio guzti hori.

Transkripzioa egiteak, nolabaiteko eraldaketa bat eskatzen du, modu batera edo bestera, baina, ez dago modu zehatz bat onargarriagoa dena beste bat baino (Kvale, 2011).

Kodifikazioa, analizatu beharreko datuak tratatzeko bakoitzak izan dezakeen modua da. Horrek esan nahi du, gure ikerketarako interesgarriak izan daitezkeen testu eta pasarteak identifikatu eta erregistratu ditzakegula, gure ideia teoriko eta deskriptiboak indartuz. (Gibbs, 2007). Hori horrela, metodo honen bitartez, datuak eta informazioa modu organizatu batean antolatu eta gestionatu genezake, modu egituratu batean analisi bat egitea lortuz (Gibbs, 2007).

Hori kontuan hartuta, eskuratu ditugun Bizikidetza Planen eta elkarrizketen, analisi bat egin nahi badugu, informazioa antolatu eta egituratu egin beharko dugu. Beraz, hainbat kodigo edo kategoriatan banatu beharko dut. Bizikidetza Planen ikerketa kuantitatiboari dagokionez, alde batetik, bullying-aren inguruan dagoen informazioa bilatuko dut. Baita, bizikidetzaren inguruan aipatzen dutena eta honen aurrean, dituzten helburuen inguruan. Jazarpen edo bullying kasu hauen aurrean dituzten protokolo eta esku-hartzeak ere ikertuko ditut, baita, guzti honetan irakasleek duten papera aztertuz ere. Informazioa kategorizatu eta kodifikatuta, informazio horrekin datuak eta ehunekoak ateratzeko aukera izango du.

Elkarrizketen ikerketa kuantitatiboko kodifikazioa eta kategorizazioa apur bat aldatuko da. Hemen ere, bullying-ari eta bizikidetzari lotutako informazioa berreskuratuko dugu. Baina, baita, irakasleek jasotzen duten formakuntzaren ingurukoa ere, eta irakasleen paperaren garrantzia ere. Baina, irakasleek esku-hartze eta Bizikidetza Plan hauetan izandako paper eta rolak, bullying-aren eta jazarpenaren gutxitzean eraginik izan duten ikusiko dugu, gutxitzerik egon bada.

Ikerketa kuantitatiboarekin amaitzeko, interesgarria iruditu zait konparaketa bat egitea Bizikidetza Planen artean. Nahiz eta kodifikazioaren bidez informazio oinarrizko bat lortu, informazio hori zerbaitekin konparatzea beharrezkoa den zerbait iruditu zait. Hau horrela, eskuragarri izan ditudan bi ikastetxeen arteko bizikidetza planek; Eusko Jaurlaritzak (2016) bizikidetza eta elkarbizitza Planak egiteko oinarri hartzen duen gidarekin konparatuko ditut.

Analisi konparatibo batek, maila deskriptibotik haratago joatea ahalbideratzen digu, horrela, faktore, fenomeno, kasu edo inguruabar ezberdinen arteko erlazio bat lortzera eraman gaitzake Gibbse (2007) ustez.

Amaitzeko, lortutako informazioan oinarrituta, ondorio batzuetara heldu behar gara, horretarako, hasieratik finkatuak ditugun helburu eta hipotesietan errotuz.

Gauzak horrela, ikerketa kuantitatiboan aurrera eramango dudan prozeduraren eskema edo taulak egitea lagungarri izan daiteke, momentu oro kontuan edukitzeko. Kontu honetan bitan banatu dudalako elkarrizketen arteko konparaketarik egingo.

1. taula

Bizikidetza Planen ikerketa kuantitatiborako prozedura

| BIZIKIDETZA PLANEN IKERKETA KUANTITATIBORAKO PROZEDURA | |
|---|--|
| 1. PAUSUA | Bizikidetza Planak irakurri eta ulertu. |
| 2. PAUSUA | Kodifikatu eta kategorizatu: bullying-a, bizikidetza, helburuak, esku-hartzea eta irakasleen papera. |
| 3. PAUSUA | Kodifikazioaren ondorioz lortutako informazioa bildu eta ehunekoak atera. |
| 4. PAUSUA | Konparaketa egin: bi ikastetxetako bizikidetza planen artean eta Eusko Jaurlaritzako gidarekin. |

Oharra: Las entrevistas en investigación cualitativa liburuan oinarrituz osatutako taula

2. taula

Elkarrizketen ikerketa kuantitatiborako prozedura

| ELKARRIZKETEN IKERKETA KUANTITATIBORAKO PROZEDURA | |
|---|--|
| 1. PAUSUA | Elkarrizketak burututakoan, transkripzioak egin. |
| 2. PAUSUA | Kodifikatu eta kategorizatu: bullying-a, bizikidetza, irakasleek jasotako formakuntza, irakasleen papera bizikidetza planen inguruan eta Bizikidetza Planen eta bullying-aren arteko erlazioa. |
| 3. PAUSUA | Kodifikazioaren ondorioz lortutako informazioa bildu eta ehunekoak atera. |

Oharra: Las entrevistas en investigación cualitativa liburuan oinarrituz osatutako taula

5.3.2. *Ikerketa Kualitatiboaren analisiaren prozedura*

Aipatu modura, aurreko atalean, honetarako ere beharrezkoak izango ditugu elkarrizketen transkripzioak eskura izatea, informazioa bertan izan eta lana errazagoa eta arinagoa izateko.

Ikerketa kuantitatiboaren antzera, ikerketa kualitatiboan ere, lortutako informazio guzti hori modu egoki eta antolatu batean jaso nahi badugu, informazio hau kategorizatu edo kodifikatu egin beharko litzateke, errazago lan egiteko asmoz. Elkarrizketak eta Bizikidetza Plan hauek antzeko prozedura izango badute ere ikerketa kualitatibo honetan, kategorizazioa apur bat ezberdina izango da.

Bizikidetza Planen kategorizazioari dagokionez, ikerketa kuantitatiboaren antzera, bullying-a, bizikidetza, helburuak, irakasleen rola edo papera edota esku-hartzea aztertuko ditut modu sakonago batean. Horrela, dugun informazio antolatua eta ulerterrazagoa izango dugu analisi bat egin ahal izateko.

Elkarrizketei dagokionez, ez dago modu zehatz bat analisi bat egiteko, baina, kasu honetan, elkarrizketatuak emandako erantzunen esanahian eta hitzetan zentratuko gara, analisi linguistiko batean baino. Analisi kuantitatiboan egin dugun moduan, hemen ere, kodifikazio eta kategorizaziora jo dezakegu. Elkarrizketan zehar egondako gai ezberdinak identifikatu eta kategorizatu genitzake; besteak beste, bullyinga ikastetxean, horren aurrean duten esku-hartzea, irakasleen rola bullyingaren aurrean eta irakasleen papera bizikidetzaren inguruan.

Halaber, hau kontuan izanda ere, prozedura zehatz eta argi bati jarraitu gabe ere egin daiteke elkarrizketa baten analisisa. Horrela adierazten du “*El análisis de entrevistas como bricolaje*” atalean Kvalek (2011). Honen hitzetan, modu honetara, teknika ezberdinen arteko interakzioa ekar lezake. Hori horrela, hainbat teknika ezberdin nahastea egokia dela iruditzen zait, ikerketa kuantitatiboan egin dugunaren antzera. Esan bezala, aurrena, elkarrizketa kodifikatzeko patroi edo gai jakin batzuk identifikatu eta antolatuko ditut. Hauen inguruko informazioa lortu ostean, informazioa konparatu egingo du. Kasu honetan bi elkarrizketetan jasotako erantzunak konparatuko ditut, amaitzeko, bi ikastetxe hauen ikusitako prebalentzia eta tendentzia hauek, nire hipotesiekin duten erlazioa aztertuz eta ondorioak ateraz.

Hemen ere, beharrezkoa iruditzen zait prozedura argi eta garbi izateko taulak osatzea.

3. taula

Bizikidetza planen ikerketa kualitatiboaren prozedura

| BIZIKIDETZA PLANEN IKERKETA KUALITATIBOAREN PROZEDURA | |
|--|--|
| 1. PAUSUA | Bizikidetza Planak irakurri eta ulertu. |
| 2. PAUSUA | Kodifikatu eta kategorizatu: bullying-a, bizikidetza, helburuak, esku-hartzea eta irakasleen papera. |
| 3. PAUSUA | Kodifikazioaren ondorioz lortutako informazioa bildu. |
| 4. PAUSUA | Ondorioak atera. |

Oharra: Las entrevistas en investigación cualitativa liburuan oinarrituz osatutako taula

4. taula

Elkarrizketen ikerketa kualitatiboaren prozedura

| ELKARRIZKETEN IKERKETA KUALITATIBOAREN PROZEDURA | |
|---|--|
| 1. PAUSUA | Elkarrizketen transkripzioa eskura izatea. |
| 2. PAUSUA | Kodifikatu eta kategorizatu: bullyinga ikastetxean, horren aurrean duten esku-hartzea, irakasleen rola bullyingaren aurrean, irakasleen papera bizikidetza planen inguruan eta Bizikidetza Planen eta bullying-aren arteko erlazioa. |

| | |
|------------------|--|
| 3. PAUSUA | Konparatu bi elkarrizketen bidez jasotako informazioa. |
| 4. PAUSUA | Ondorioak atera. |

Oharra: Las entrevistas en investigación cualitativa liburuan oinarrituz osatutako taula

Gauzak horrela, eta metodologia behin argi izanda, datu, dokumentu eta elkarrizketak ikusi, ezagutu, ulertu eta analizatzeari ekin beharko diogu, horrela, gure hipotesi eta helburuekin kontrastatu ondoren emaitza eta ondorioak atera ahal izateko, horren aurrean proposamenak egiteko beharrik izanez gero.

6. EMAITZAK

6.1. ANALISI KUANTITATIBOA

Gradu Amaierako Lan honetan erabiliko dugun metodologia ikusi ondoren, eta zehazki ikerketa kuantitatibo eta kualitatiboan erabiliko ditugunak aipatu ondoren, emaitzen analisiari ekingo diogu.

6.1.1. Bizikidetzaren Planak

Datuen kategorizazio eta kodifikazioarekin hasteko, lehenik eta behin bullying-aren kategoria aztertuko dugu. Honi dagokionez, %50ak soilik zehazten ditu, zein diren zuzendu beharreko jarrerak, horrela, A ikastetxeak hauek zehazten dituen zerrenda bat eginen duelarik. B ikastetxeak aldiz ez du horrelako zerrendarik aurreikusten.

Bizikidetzari dagokionez, hemen ere, %50ak soilik zehazten du nolakoa den bizikidetzaren, zein den hau lortzeko beharrezko diren urratsak zein diren eta hauen bitartez lortu nahi diren helburuak zein diren. Hemen, bullying-aren atalean ez bezala, B

ikastetxea da gailentzen dena, hauek argi zehazten dituztelarik zein diren helburuak eta lortu beharrekoak.

Esku-hartzeari eta aurre egitekin prozedurei dagokionez, aztertutako %100ak zehazten du modu batera edo bestera, ikastetxeko ikasleek izandako jarrera desegoki zein jazarpenaren aurrean hartu beharreko neurrien zerrenda bat edo gutxienez, honen aurrean aplikatu beharreko protokoloren bat. Hala ere, aipatu beharra dago, B ikastetxeak, plan eta esku-hartze hau garatuagoa duela. Hau gutxi ez eta, jokabide hauen aurrean hartu beharreko neurriei eta prozesuei buruzko grafikoa argi eta zehatzak erakusten dituzte (*ikus 2. eranskina*).

Irakasleen paperari dagokionean, %0 dira hauen garrantzia aipatu edo bereizten duen Bizikidetzaren Planak, nahiz eta soilik aipatu irakasleek parte hartzen dutela esku-hartzean.

Bizikidetzaren Planen analisi kuantitatiboarekin amaitzeko, interesgarria iruditu zait, bi ikastetxe hauek eskuragarri utzi dizkidaten Bizikidetzaren Plan hauek, Eusko Jaurlaritzak (2016), Ikastetxeetako Bizikidetzaren Planak egiteko duen gidarekin konparatzea, ikusteko Bizikidetzaren Plan hauek egokiak diren hala ez, eta horren arabera, eraginkorrak diren ala ez ikusi ahal izateko. Taula honekin, ikusiko dugu, Eusko Jaurlaritzako (2016) gidan eskatzen diren eduki eta egiturak betetzen dituzten.

4. taula

Jasotako Bizikidetzaren Planen eta Eusko Jaurlaritzak, Ikastetxeetako Bizikidetzaren Planak egiteko duen gidaren konparaketak

| EUSKO JAURLARITZAKO GIDA | A IKASTETXEKO BIZIKIDETZA PLANA | B IKASTETXEKO BIZIKIDETZA PLANA |
|--------------------------|---------------------------------|---------------------------------|
| Sarrera | 0 | 1 |

| | | |
|---|---|---|
| Elkarbizitzaren definizioa | 0 | 1 |
| Elkarbizitzaren diagnostikoa | 0 | 1 |
| Helburu orokorrak | 0 | 1 |
| Helburuen lorpena bultzatzeko egiturak | 0 | 1 |
| Jarduteko irizpide eta ildo orokorrak | 1 | 1 |
| Bizikidetza planen urteko zehaztapena: urteko plangintza | 0 | 1 |
| Zabalkundea | 0 | 0 |
| Bizikidetza planaren jarraipena eta ebaluazioa | 1 | 1 |
| Eranskinak | 1 | 1 |

Oharra: Jasotako Bizikidetza Planetako informazioarekin osatua

Taula honen interpretazioari ekin baino lehenago, kontuan izan behar da, taula honetan, 0 zenbakiak, Bizikidetza Planean atal hau ez dela betetzen edo ez dagoela esan nahi duela. 1 zenbakiak aldiz, atal hori betetzen duela edo planean bertan zehaztua dagoela esan nahi du.

Taula honetan ikusten den moduan, gida honetan hamar jarraibide, pauta eta puntu zehazten dira. Sarrerari dagokionez, 2 ikastetxetatik batek soilik du sarrera bat bere Bizikidetza Planean, hau da, ikertutako planen %50ak. Berdina gertatzen da, elkarbizitzaren definizioa zehaztean, elkarbizitzaren diagnostikoa egitean, helburu orokorrak zehaztean, helburu hauen lorpena bultzatzeko egiturak osatzean eta Bizikidetza planen urteko plangintza aurreikusterakoan. Ez hori bakarrik, gida betetzen duen horren %50 hori, B ikastetxea da kasu guzti hauetan.

Halaber badira, ikastetxeen %100ak jasotzen dituzten pauta eta atalak. Hauek zehazki, jarduteko irizpide eta ildoak dira, baita, bizikidetza planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko jarraibideak eta azkenik dituzten eranskinak. Azkenik, bada, %0ak, hau da, inork betetzen duen atalik ere, zehazki *zabalkundea* izena duen atala.

Laburbilduz, ikusi daiteke, A ikastetxeak 10 urrats edo item hauetatik 3 besterik ez dituela betetzen, non, aldiz, B ikastetxeak 10 itemetatik 9 betetzen dituen.

Honekin argi eta garbi ikusten dena da, A ikastetxeak ez duela Eusko Jaurlaritzak (2016) abian duen gida kontuan hartu, eta aldiz B ikastetxeak bai. Zer pentsaraztera eramaten nau, horrela, A ikastetxeak osatutako Bizikidetza Planaren eraginkortasuna eta fidagarritasun maila apur bat zalantzan jarritz.


6.1.2. Elkarrizketak

Elkarrizketan hitz egindako gaiten kategorizazioarekin edo kodifikazioarekin hasteko bullying-ari helduko diogu. Ikusi daiteke, kasuen inguruko datuak eskatu ditugunean, A elkarrizketatuak adierazi moduan, orain dela 4 urte baino kasu gutxiago izaten dituztela, eta izaten dituztenak ere, nagusiki berak esan modura, “arinak” direla, hauek irainak, burlak edo barre egiteak izanik; hau da, inoiz ez dituztela jarrera fisikoak izaten. Hauek izandako tendentzian egoera askotarikoak izan direla esan du. Guztira, azken ikasturte honetan, zentratuz, 8 kasu izan dituztela esan du, kasurik gehienak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailan gauzatu direlarik. Zehazki LH5-ean, kasu bat, DBH1-ean 4 kasu, DBH 2-an 2 kasu eta DBH 3-an beste kasu bat. Baina, urteetan ikusi duten tendentziaren arabera, Bigarren Hezkuntzako lehen bi urteetan ikusi dira.

1. figura

A ikastetxean azken urtean izandako kasuak mailaren arabera




Oharra: Datu hauek A elkarrizketatuak zuzenean eskainiak izan dira.

Kasu hauetan parte izan diren pertsonaren generoari buruz ere galdetu zaie, eta datuen erabera, 8 kasuetatik 5 kasuetan jazartua mutila izan da eta beste 3 kasuetan neska. Dionaren arabera, kasu guztietan, jazartuaren jazartzaileak, genero berdina izaten duela ikusten du.

2. figura


A ikastetxean azken urtean izandako kasuetan, bullying-a jasan dutenen generoa



Oharra: Datu hauek A elkarrizketatuak zuzenean eskainiak izan dira.

3. figura

A ikastetxean azken urtean izandako kasuetan, bullying-a eragin dutenen generoa



Oharra: Datu hauek A elkarrizketatuak zuzenean eskainiak izan dira.

B elkarrizketatuari galdera bera egin badiogu ere, datu zehatzik ez duela adierazi digu, nahiz eta urtero izaten dituztela esan. Halaber, azpimarratzen du, ikusi dutena dela DBHn detektatu dituzten bullying edo jazarpen kasu asko, Lehen Hezkuntzan zutela oinarria, garai horietan hasita baitzeuden jarrera hauek.

Bizikidetzaren barruan, %50ak lasaia dela esan du beraien ikastetxeko bizikidetzan, baina, beste %50ak ez dela batere ona esan du. Hala ere, ikastetxe hauen %100ak jazarpen eta bullying kasuak izaten dituztela zehaztu dute.

Irakasleek, esku-hartzean eta Bizikidetzan Planen inplementazioan duten parte hartze, rol edo paperaren inguruan ere analizatu genezake. Hauetan, %100ak, paper horren garrantzia eta beharra adierazi du, honekin lotua, formakuntzak duten garrantzia azpimarratuz. Baina, %100 honek berak, ere, irakasleen partetik zenbaitetan ematen den axolagabekeria eta inplikazio falta aipagarriak direla adierazi dute, baita, irakasleek orokorrean duten denbora murrizta ere.

Esku-hartze eta Bizikidetzan Planek, bullying eta jazarpenean izan duten eraginari buruz galdetu zaienean ere, %100ak hobekuntzak nabariak izan dituztela argi ikusi dute. Pixkana egin beharreko lan bat dela, baina, datuen gutxitzea lortu dutela. A ikastetxeak zehazki, KiVa proiektua martxan jarri zutenetik, jarrera hauen kasuak, %16tik, %6 arte jaitsi direla, hau da, %10ean egin dute behera bullying eta jazarpen kasuek. Baina, azpimarratzen du, bullying-aren aurkako proiektu hau martxan duten herrialdeetan, bullying kasuak %5etik behera jaitea ia ezinezkotzat jotzen dutela proiektuaren arduradunek.

Datu kuantitatiboekin erlazionaturik, B elkarrizketatuak, gai hauen harira egiten duten *Socio-bullying* izeneko inkesta baten garapena aipatzen du. Inkesta hau, Ikastolako Lehen Hezkuntzako 5.mailan dauden ikasle guztiei pasatzen zaie, honen helburua gelakide bakoitza bullying edo jazarpenaren inguruko zein rol duten identifikatzea izango da. Horrela, ikasle bakoitzak, bere gelakide bakoitza 1etik 5eko eskala batean kokatuko du.

1 = jarrera iraingarriak/zirikatzaileak dituen pertsona (erasotzailea)

2 = irain/zirikatzeak jasotzen dituen pertsona (biktima)

3 = maila berean daudenak, hau da, batzuetan zirikatatu egiten du eta beste batzuetan jaso egiten ditu (zirikatzailea)

4 = irainak/zirikatzeak egiten dituztenei babesa ematen dietenak (erasotzailearen jarraitzailea)

5 = laguntza eskaintzen diona irainak/zirikatzeak jaso dituenari (biktimaren laguntzaileak)

6=ikuslea eta ezer egiten ez duena edo isilik geratzen direnak (ikuslea)

Nahiz eta inkesta honen oinarrian, ikasle bakoitzak besteekiko duten pertzepzioa egon, gutxi gora-beherako profila atera dezakete, ondoren, bakoitzaren gaineko aurrezaintza eta esku-hartzeak egitea ahalbideratzen duelarik.

6.2. ANALISI KUALITATIBOA

6.2.1. Bizikidetzaren Planak

Ikerketari, eta zuzenean kodifikazioari heldu aurretik, beharrezkoa iruditu zait ikastetxe edo Ikastola hauen Bizikidetzaren Plan hauen begirada orokor bat izatea, bakoitzean zer topatuko dugun ikusteko asmoarekin.

A ikastetxeko Bizikidetzaren Planari dagokionez, gainbegiratu batean ikus dezakegu hainbat arlo eta atal ezberdin dituela. Lehenik eta behin ikasleei zuzendutako apartatua dugu, hemen, hauen printzipio, eskubide eta betebeharrei zuzentzen zaio. Bigarren puntu batean, diziplinari begira dauden printzipio orokorrak aurki genitzake, zuzendu beharreko jokabide moten zerrenda, edota jokabide hauek zuzentzeko izango dituzten neurriak zein diren. Jokabideak zuzentzeko bide alternatiboei buruzko eta neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozedurei buruzko atalak ere badituzte. Azkenik eranskinen barruan, ikus daiteke jarraipenak eta ebaluaketak egiteko irizpideak zehaztuak dituztela.

Aipamen orokor bat egite arren, orokorrean, A ikastetxeko Bizikidetzaren Plana, formatu aldetik, ez dut oso egokia ikusten, antolamendua ez dela egokia iruditzen zait, eta apartatu eta atal ezberdinak ez direla ondo bereizten, dena pila batean egongo balitz

bezala sumatzen dut. Gainera, ez du aurkibiderik, beraz, ez da modurik errazena behar dudan informazioa bilatzeko.

B ikastetxeko Bizikidetza Planaren laburpen azkar bati dagokionez, plan hau 2017-2021 ikasturtean zehar aplikatzeko plan edo proiektu bat da. Honen aurkibidean aurki daitekeenaren arabera, Ikastolaren inguruko datu eta ezaugarri orokorrak aurki genitzake. Bizikidetzari zuzenduta, honen definizio eta nondik norakoak ditugu, honen diagnostikoa zein den eta plan honen helburu nagusiak azpimarratuz. Jarduera irizpideak zein diren ere ikus daitezke, honekin batera, urteko plangintza zein duten zehaztuz. Aipagarria eta nolabait, interesgarria iruditu zait ere, formakuntzaren beharra eta bizikidetza plan hauen ebaluaketa eta jarraipena egiteko beharraren eta moduei buruzko apartatuak zehaztea.

Hala ere, plan hauen edukien azaleko deskribapen labur bat eginda eta gure ikerketara itzuliz, bizikidetza plan hauetan interesatzen zaizkigun gai, kode edo kategoriei eutsiko diot.

Lehenik eta behin, bullying-ari egiten dien erreferentziak aztertuko ditut. A ikastetxeko bizikidetza planera joaten bagara, aipatu bezala, zuzendu beharreko jokabide moten zerrenda bat agertzen da. Horien artean, hainbat jarrera daude, puntualtasunari, ikastetxeko instalakuntzen zaintzari edota kalifikazio eta azterketei zuzendutakoak batez ere. Hala ere, badira, jarrera batzuk, bullying-arekin erlazioa izan ditzaketenak, hala nola, eta planean aipatzen den bezala, *“Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezako jarrera, keinu edo hitzak”*. Ikus daitekeenaren modura, lotura zuzena izan dezake bullying eta jazarpenera eraman gaitzaketen irain, burla eta eraso berbalen aurrean gaudela.

Hori gutxi ez eta, zehazki bizikidetzaren aurkako jokabideak ere zerrendatzen dituzte. Hemen ere, irakasleekiko errespetu faltak, azterketen ereduak lapurtzea eta ikastetxeko hainbat instalakuntza eta zerbitzuekiko jarrerak aipatzen dira. Baina, zerrenda honetan, ikaskideen eta hezkuntza-komunitateko kideen aurkako mehatxuak edota irainak ere aurreikusten dituzte, beti ere, bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokabide gisa sailkatzen dituztelako. Horrez gain, besteen ohorea, intimitatea eta irudi propiorako eskubidea ez errespetatzea ere zerrendatzen dute. Azken honek, argi eta garbi Espainiar Konstituzioko Oinarrizko Eskubideari zuzentzen zaiola ikus genezake.

Diskriminazioari erlazionatutako edozein ekintza edo jokabide onartezintzat jotzen dituzte, adibidez, arraza eta etnia, generoa orientazio sexuala, erlijio, kultura edota gaitasun fisiko edo psikikoekin erlazionatutako edozein jarrera baztertzailer eta diskriminatzaile oro. Apartatu batean, ikastetxe barruan, bullying-az gain, jazarpen sexualari ere erreferentzia egiten diote, sexua dela eta, hitzez edo hitzik gabe edota fisikoki eman daitezken edozein jokabide edo ekintza.

B ikastetxeko Bizikidetza Planari dagokionez, hasieratik aipatzen ditu erakundearen balioak zein diren eta horien artean, pertsonaren osotasuna kontuan hartzea, giza eskubideekiko errespetua eta berdintasuna edota diskriminazio eza bermatzen direla ikus daiteke. Hau horrela, bullying-ari erreferentzia zuzenena egiten dion atala KiVa programari zuzendutako eta bideratutakoa da. Hemen, programaren nondik norakoak azaltzen ditu. Baina, egia esan gutxi aipatzen da izan daitezkeen jarrera desegokiez.

Plan hauen izenari erreferentzia eginaz, txosten edo dokumentu hauen oinarrian zentratuko gara, hain zuzen ere bizikidetzan. Bizikidetzan kalte eragiten duten jarrerak ikusi ditugun moduan bullyingaren kategoriaren barruan, orain ikastetxe hauetako bizikidetza zertan oinarritzen dugun ikusiko dugu. A ikastetxeko Bizikidetza Plana aztertu ondoren, ikusi dut, Bizikidetza Plan honek ez duela sarrerarik, honenbestez, ez dituzte zehazten Bizikidetza Plan honek dituen helburuak, ezta beraien bizikidetza egoera nolakoa den, zuzenean ikasleen eskubide eta betebeharrak jotzen dutenez. Aldiz, B ikastetxeko plana aztertuz gero, bizikidetzaren inguruko hausnarketa sakonago bat ikus genezake.

Hasieratik esaten dute bizikidetzako giro egoki bat lortzeko ikasgeletan, diziplina eta ordena bezalako prozesuak beharrezkoak direla, ikastetxeak, beraien ikasleak bizikidetzan hazi eta hezteari nahi dutelako. Berrikuntzaren kontzeptu eta definizioetan ere murgiltzen dira, hori horrela, beraien hitzetan honakoa esaten dute: *“Konfiantzan oinarritutako pedagogia bultzatzerakoan, segurtasun afektiboaren gunea bilakatu nahi da Ikastola non lankidetzan arituz ikasle guztien garapen integrala ahalbidetuko den.”*. Ikastetxeko bizikidetzaren diagnostiko bat ere eskaintzen digu, 1997 urtetik gaur egun arte, bizikidetzaren alde eginiko ekintza eta eraldaketak zerrendatuz. Bizikidetza Planaren helburu orokorrei dagokionez, ikastetxeko elkarbizitzarako eta bortxazko jokabideen aurre egitea lortu nahi du. Horretarako hainbat puntu gailenduz:

- Elkarbizitza hobetzeko ekimenak sustatu eta garatzea.
- Komunitatea osatzen duten kide guztien arteko harremanak modu egokian bideratzea.
- Gatazken aurrean, modu baketsuan erantzutea.
- Bakean eta errespetuan oinarritutako elkarbizitzarako beharrezkoak diren arauak eta hezkuntza komunitateko kide guztien eskubide eta betebeharrak ezagutzera emateko ekimen prebentiboei lehentasuna emanen diogu, horretarako ditugun tresnak erabiliz
- Bizikidetzarekin zerikusia duten formakuntza jarduerak proposatu eta garatzeko konpromezua hartzea.

Helburu orokor hauek oinarrian hartuta, helburu espezifikoagoak ere zehazten dituzte, ekimen prebentiboen sustapena, gatazken ekiditea edo interbentzioan zentratzen direnak. Helburu hauek aurrera eramateko, Bizikidetzaren Behatoki bat dute, hauen funtzio nagusia Bizikidetzaren Plan hau egin eta martxan jartzea delarik, besteak beste.

Aipatzekoa da ere, Ikastolak berak, bizikidetzaren egungo egoeraren inguruko datuak eskuratzeko asmoarekin, inkesta zenbait burutu zituztela. Inkesta honek, hainbat aspektu baloratzen zituen, besteak beste, gurasoen eta ikasleen egoera, hauek elkarbizitzarekiko zuten pertzepzioa, ikastetxeak bizikidetzaren eraikitzen izan duten parteak hartzea, indarkeria eta jazarpen ororen inguruan eginiko prebentzioa, elkarbizitzaren inguruan eginiko ekintzen ezagutza eta balorazioa, gatazken kudeaketan eta ebazpenaren balorazioa edota ikasle-ikasle, ikasle-irakasle eta irakasle-familia arteko harremanen balorazio bat. Horrela, Ikastolako bizikidetzaren inguruko perspektiba bat osatuz.

Ez hori bakarrik, ahulgune eta indarguneen zerrendak ere osatu zituzten, ikasle, irakasle eta gurasoei zuzendutakoak. Datu hauen arabera, eta batez ere irakasleengan, eta zentroko langileengan orohar fokua jarritz, ahulguneetan enpatia, konfiantza eta errespetu falta gailendu dituzte, arlo akademikoan gehiegi zentratzen direla aipatuz baloreak alde batera utziz. Kudeaketa falta, eta proiektu berriekiko duten beldurra ere azpimarratzen dute. Hala eta guztiz ere, irakasleen lan egiteko borondate eta grina goraiatzeko, inplikazio eta dedikazioz egiten omen dutelako lan.

Jarrera hauen aurrean duten esku-hartzeari edota jarrera hauen zuzenketa ere aipatzea funtsezkoa da. A Ikastolako Bizikidetzaren Planean argi eta garbi zehazten dute atal hau, *jokabide desagokien zuzenketa* izeneko atalean hain zuzen ere. Hauen artean, kalte ez hain larriak eragiten dituzten jokabideen eta kalte larriak eragiten dituzten jokabideen zuzenketa bereizten ditu. Ez hain larrien aurrean, honako neurriak hartzeko aukerak dituzte: egindako jokabidearen eta hauen ondorioen inguruan hausnartzea, guraso edo legezko ordezkariari adieraztea egoeraren berri, ikaslea taldez edo gelaz aldatzea edota ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru egunez. Kalte larria eragin ditzaketen jokabideen aurrean ordea, honako neurriak hartzeko aukera izango dute: lan hezigarriak ezartzea edota hiru eta hogeita egunen artean ikastetxera joateko eskubidea etetea.

Neurri hauek kontuan hartu eta aplikatu ahal izateko, hainbat aspektu hartzen dituzte kontuan. Besteak beste, jokabide deskribatuek zer neurritan eragozten diete hezkuntza komunitateko gainerako kideei beren eskubideak eta betebeharrak betetzea, ikaslearen jokabidearen gain eragina izan dezaketen inguruabarrak nahiz ikasleak bere betebeharrak bete ez dituela eta oinarritzko gaitasunetako hutsuneak zuzen balioestea ahalbidetzen duten inguruabar pertsonalak eta sozialak eta jokabidea osatzen duten gertakariak gauzatzearekin zerikusia duten inguruabarrak. Honekin batera, ikastetxez aldatzeko proposamena egiteko aukera ere aurreikusten dute, beti ere, ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten duen jokabideren bat bi aldiz zuzendu bazaio, tratatu txar edo sexuagatiko jazarpena badakar eta irakasle bati erasotu izan badio. Neurri zuzentzaile hauek proportzionaltasunez aplikatzen direla bermatzeko ere, hainbat irizpide eta pautak zehazten dituzte. Ez hori bakarrik, jarrera eta jokabide desagokiak zuzentzeko bide alternatiboak ere aurreikusten dituzte.

Neurri zuzentzaile hauek aplikatzeko ere prozedura bat zehazten du A ikastetxeko Bizikidetzaren Planak. Bertan, zehazki aipatzen du jokabide hauek irakasleak zuzenduko dituela eta kalte larria eragiten duten jokabideak izaten badira, zuzendariak zuzendu beharko dituela. Bertan, zehazki neurri hauek aplikatzeko epeak, eta ezaugarri eta urratsak zehazten dituzte.

B ikastetxeko planera joz gero, gelako gatazka ez hain larrien aurrean nola jokatu ondo zehaztuta dute, baina, baita, gatazka larriak direnean hartu beharreko pausuak ere. Hori horrela, eta ulertuz bullying eta eskola jazarpena gatazka eta jokabide larriak direla, ondorengo ekintza hauek burutzen dituzte:

1. Zuzendariak edo talde pedagogikoko edozein kidek gatazkaren berri izan bezain azkar informazio zehatza jasotzeko bideak adostu.
2. Bileran parte hartuko dutenak izendatu.
3. Bileran esan beharrekoak zehaztu.
4. Hartu behar diren neurriak aurreikusi.
5. Sortutako gatazkaren ingurukoekin biltzeko datak eta orduak zehaztu.
6. Gatazka sortu edo pairatu duten ikasleekin bildu eta informazioa jaso.
7. Beraien irakasleekin bildu, informatu eta informazioa jaso.
8. Gurasoei deialdia eginez gutuna bidali
9. Gatazkaren inguruko informazioa eman eta gurasoengandik informazioa eta iritziak jaso
10. Guraso, irakasle eta ikasleen artean jasotako informazio guztia aztertu eta ondorioak atera.
11. Hartu behar diren ondorioak adostu posible den neurrian
12. Bileran esandakoaz akta jaso baina ikasleen eskubide eta betebeharren dekretuan jartzen duena errespetatuz
13. Gatazkaren inguruko ondorioak eta adostutako neurriak informatu talde pedagogikoan eta horrela badagokio eskola kontseiluan Hartutako neurriak betetzen direla ziurtatu, jarraipena egin eta prozesua bera baloratu.

6.2.2. Elkarrizketak

Metodologian aipatu bezala, lehenik eta behin elkarrizketan aipatutakoa antolatzeko kategorizatu egingo dugu. Kategorizazioarekin batera, informazioa lortuko dugu, horrela, informazio deskriptibo eta objektiboak lortzeko.

Lehenik eta behin, bizikidetza orokorraren inguruan galdetu zaie, eta A elkarrizketatuak argi erakutsi du nahiko lasaia dela, ez dutela arazo larririk izaten, Ikastola bera ere ez delako handia, eta herri txiki batekoak izanik, eragina duela. Aldiz, B elkarrizketatuak berehala esan digu ez dela ona. Ikastola hau nabarmenki handiagoa da ikasle kopuruz, eta bizikidetza arazo ugari dituztela adierazi du, uneoro gatazkak daudela esanez.

Bullying-aren ikastetxeko egoeraren inguruan galdetu nien, eta analisi kuantitatiboan ikusi bezala, bi ikastetxeek urtero kasuak izaten dituztela adierazi zuten. Hala ere, ikusi dugun moduan, A ikastetxeak kuantifikatuak ditu urtean zehar ematen diren kasuen nondik norako guztiak, baina, aldiz B ikastetxeak ez. Pertsonalki zerbait garrantzitsua iruditzen zait, kasuen jarraipen egoki bat burutu ahal izateko kasu hauek zehaztuak izatea.

Irakasleen rol eta parte hartzean zentratzen bagara, galdera ezberdinak egin dizkiet, hauek arlo ezberdinetan izan duten inplikazioaren inguruan. Hori horrela, lehenik eta behin gai hauen inguruan jasotzen duten formakuntza zein den galdetu nien. Honen inguruan erantzun nahiko antzekoak izan dira.

A elkarrizketatuak nagusiki KiVa proiektuaren inguruko formazioa jasotzen dutela adierazi du, formakuntza honen helburu nagusiak esku-hartzea eta prebentzioa direla adieraziz. Beraz, formakuntza honen bidez, irakasleek eskura dituzten materialak eta gidak nola erabili ikasten dute. Horretaz gain, ikastetxean bertan ere barne formakuntza bat jasotzen omen dute proiektuko dinamikak eta saioak nola bideratu erabakitzeko. Horrez gain, nahiz eta ez bullying-aren inguruko formakuntza zuzena izan, gazteengan ematen den genero indarkeriari buruzkoa ere jasotzen dutela adierazi du.

B elkarrizketatuak aipatutakoari dagokionez, Ikastola hau kokatzen den herriko udalak, bizikidetzaren inguruko programa marko bat duenez, Bakeola entitatekoekin lanean dihardute, hori dela eta, herriko ikastetxe guztiek, Bakeola entitatearen partetik, bizikidetza behatokia eta bizikidetza planak aurrera eramateko aholkularitza eta laguntza eskaintzen diete. Berritzeguneak antolatzen dituzten bizikidetza mintegietan ere parte hartzen dutela adierazi dute. Beraz, laburbilduz ikus daiteke, A ikastetxean, KiVa-ren eta gazteen artean ematen diren genero indarkeriaren inguruko formakuntza jasotzen dutela,

eta B ikastetxean berriz, KiVa-ren inguruko formakuntzaz gain, zein Bakeola eta Berritzeguneko bizikidetza dinamiketan ere parte hartzen dutela.

Bizikidetza Planen sorrerari buruz ere galdetu nien. A elkarrizketatuak adierazi du bizikidetza taldearen artean proposamen orokor bat egiten dutela, ondoren gainerakoekin elkarbanatu eta denen artean jasotako proposamen eta ekarpenak ondoren bizikidetza planean aplikatzeko.

Aldiz, B elkarrizketatuak, bizikidetza plana sortzearen lana eta pisua dela eta, esan du bizikidetzaren arduradunak soilik egiten dutela proposamen orokorra eta argi bat, nahiz eta bizikidetzaren behatokia hainbat kide ezberdin egon. Ondoren, bileran jasotzen diren proposamen eta iritziekin osatuz. Ikusi daitekeenaren arabera, ez da zerbait irakasleen artean elkarlanean zerotik sortu den zerbait, beti bizikidetzaren arduradunen partetik osatutako proposamen batean oinarrituta sortutakoa baizik.

Irakasleen rolaen barnean, hauek Bizikidetza Planen inplementazioan eta honi loturik, KiVa programaren inplementazioan duten esku-hartzeari buruz aritu ginen hizketan. Bi elkarrizketatuek argi izan dute, kasu hauetan irakasleena orokorrean baino, tutoreen ardura izaten dela batez ere, Bizikidetza Plan hauen inplementazioa. Izan ere, hauek dira, astean zehar tutoretza orduetan gai honi buruz lotutako dinamika eta saioez arduratzen direnak. Halaber, biek hala biek, denbora falta adierazi dute. Denbora falta bullying-aren inguruko hainbat alderdi eta saio ondo landu eta planteatzeko. Honekin loturik, A elkarrizketatuak, kezka adierazi du gai hauek jorrazteko denbora falta nabarmena delako, horregatik, hurrengo ikasturteari begira, irakasgai batzuk birmoldatu eta bullying-a eta bizikidetzaren inguruko gaiak txertatzeko lekua egiteko asmoa dute.

Hala eta guztiz ere, B elkarrizketatuak ondo adierazi duen bezala, denboraz gain, irakasleen partetik inplikazio faltarik badago, ez du axola proiektu eraginkorrak martxan jartzea, gero ez badira ondo eta zentzuz aplikatzen. Bere arabera, irakasle batzuk oso sentsibilizatuta eta motibatuak daude gai hau lantzeko eta praktikan jartzeko, begirada “finduta” dutela adieraziz bere hitzetan, horrela, detekzio eta esku-hartze eraginkorrak egiteko erraztasunak izanez. Aldi berean, beste irakasle batzuk ez dutela inplikazio askorik erakusten adierazi du, “*umeen kontuak dira*” edo “*ez naiz hor sartuko*” bezalako aitzakiez baliatuz. Beraz, B elkarrizketatua, Ikastolako orientatzaile den heinean,

irakasleen inplikazioarekiko kritiko erakutsi da, lan gehiago egin behar delako eta sentsibilizazio handiagoa lortu behar dutela esanez.

Irakasleek arlo hauetan duten papera eta rolaekin amaitzeko, hauek duten garrantziari buruz galdetu zaie. Bi elkarrizketatuek berehala, ezinbestekoa eta erabateko garrantzia dutela adierazi dute, beraiek direlako jokaera desegoki hauek detektatzeko gaitasuna izan behar dutenak, eta honen aurrean protokolo bat martxan jarri eta esku-hartzea egingo dutenak. Hemen ere, sentsibilizazio eta inplikazioari erreferentzia egin dio B elkarrizketatuak, nahiz eta jokabide hauek ikusi, garrantzi askorik ez badiete egiten, bullying kasuak egotea onartzen delako, honen aurrean “tolerantzia 0” jarrera erakutsi behar dela azpimarratuz.

A elkarrizketatuak, hala ere, orokorrean, hobera egin duela adierazi du, irakaslek beraiek ere, ikasleekiko hurbiltasuna lortu dutelako, eta zenbaitetan, jarrera hauetan parte direnak edo hirugarrengeok, kasu hauei buruz hitz egiteko askatasuna eta gertutasuna lortu dutela adieraziz. Gainera, bullying-aren parte hartzaileekiko fokua ere aldatu dela esan du. Lehen biktima eta erasotzailea bakarrik hartzen zituzten kontuan, eta orain berriz, lekukoak, ikusleak zein defendatzaileak ere hartzen dituzte kontuan, beraien datuen arabera ia ikasgelaren ia %80a kokatzen delako talde horretan. Beraz, irakasleek ehuneko proportzio handi horretara heldu behar badu, bere figura, lana eta inplikazioa garrantzitsua dela esan du.

Honekin lotuta, irakasleek jaso duten formakuntza horrek, bullying-aren arteko erlazioari ikuste duten galdetzean, A elkarrizketatuak formakuntzari baino gehiago, hauetan ikasitakoaren aplikazioari egin dio erreferentzia, esanez, formakuntza jasotzea alferrikakoa izango dela, ez bada ondo aplikatzen, izan ere, eraginik ez duelako izango. Honekin B elkarrizketatua ere zalantzati erakutsi da, bere ustez, jasotzen den formakuntzak eragina duelako, batez ere, irakasleen prestaketa pertsonalerako, baina, hori gero arlo profesionalera eramanez eta jaso duen formakuntza horrek ikasgelan duen isla zenbaterainokoa den ez du oso argi ikusten.

Nire ikerketa lanari errotuta, funtsezkoa da, Bullying eta Bizikidetzaren Planen artean ikusi duten erlazioari buruz galdetzea, zehazki Bizikidetzaren Planak martxan dituztenetik, hobekuntzarik edo aldaketarik nabari izan duten. A elkarrizketatuak, bere partetik, prebentzio saioetan enpatia, trebetasun soziala, komunikazio ez-bortitza, talde presioa,

asertibitatea etab. landu dituztenetik, jazarpenean zehazki eta bizikidetzan orokorrean, eragina izan duela ikusi du, harreman sanoagoak sortu direlako ikasleen artean, irakasle-ikasle artean eta giroa hobetzea lortu delako, laburbilduz orohar albo ondorio positiboak nabari dituela adierazi du. Ez hori bakarrik, giroa hobetze horrek, gertutasuna ekarri du, konfiantza handituz. Esan daiteke, konfiantzaren eta giroaren hobekuntza horrek, ikasleari gertakariak azaltzeko askatasun eta lasaitasun bat eskaini diezaiokela. Honen gainetik, hala ere, bi elkarrizketatuek azpimarratzen dute, nahiz eta bullying kasuak gutxitu ia ezinezkoa izango dela bullying kasuak zero izatera iristea.

B elkarrizketatuak ere arazo hauekiko ikastetxeak duen sentsibilizazioa areagotu duela adierazi du, aldi berean arazoak ikusarazi eta azaleratuz. Aipatzen du gainera, nola, orain dela ia hamar-hamabi urte, bullying kasurik ez zutela adieraziko zuten, detekzio falta zela eta; baina, aldiz, orain, detekzio gehiago izaten dituztela esan du, pixkanaka begirada zorrotzagoa dutelako eta kritikoagoak direlako jarrera jakin hauen aurrean.

Hau guztia kontuan izanik, eta nolabait, laburbilduz, ikus daiteke bi ikastetxeen partetik sentsibilizazioa geroz eta nabarmenagoa dela bullying-aren problematikaren inguruan. Hori dela eta Bizikidetzaren Planaren gain, KiVa programa martxan dute, orain dela lau urtetik.

Jasotako formakuntzari dagokionez, zehazki bullying-ari lotutako formakuntza bakarra, KiVa programaren aplikazioaren ingurukoa dela ikusi dut, nahiz eta ondoren genero indarkeriaren, eta bizikidetzaren inguruko formakuntza eta mintegi orokorrak jaso.

Irakasleen rola eta garrantzia, biek hala biek azpimarratzen dutela ere ikusi dut. Hala ere, B elkarrizketatuak erakutsi moduan, kezka sortzen du, zenbait irakasleen partetik falta den interes eta sentsibilizazio falta. Hori horrela, bizikidetzaren planek eta irakasleek jasotzen duten formakuntzak eragin zuzena izan dezaketeela ere adierazi dute, izan ere, aplikazioa eraginkorra izan denez, detekzioak errazagoak izan dira, esku-hartze eraginkorrei pausu emanaz.

Elkarrizketa honetan, gai hauekin lotura duten beste hainbat datu interesgarri eskaini ditu B elkarrizketatuak. Aurrezaintza, prebentzio eta esku-hartzearekin lotuta, aipatutako KiVa proiektuaz gain, "Ikasle Laguntzailea" deritzon beste proiektu bat ere martxan dute Ikastola bertan. Lehen Hezkuntzako 6.mailan hasten duten proiektu honen

helburua, gatazkak sortu bezain pronto, ikasleek, gatazka hauek aurrean modu eraginkor batean ebazteko estrategiak izatea da. Horretarako, boluntario moduan aurkezten diren ikasle horiek, bullying-aren, gatazken eta jazarpenaren inguruko formakuntza bat jasotzen dute, baita hauek, kudeatzeko eta errazago ulertzeko mekanismoak ere. Formakuntza jaso ostean, dinamika hauek, gelan ikaskideen aurrean plazaratuko dituzte tutoretza orduetan, horrela, estrategia eta mekanismo horiek ikasle guztiek ezagutu ditzaten. Hau horrela, “ikasle laguntzaile” diren horiek, gertatzen diren gatazka horietan dinamizatzaile eta bitartekari izan daitezke, bai ikasleen artean eta baita ikasle-irakasle artean ere.

Behin, ikerketa kuantitatibo zein kualitatibo bidez jasotako datu eta informazioaren emaitzak ikusi eta analisi orokor bat egin ondoren, gure helburu eta hipotesiak kontuan hartuz, ondorio orokorrak ateratzeko pausua eman dezakegu.

7. ONDORIOAK

Bi ikastetxeetako Bizikidetza Planak ikusi eta aztertu ondoren, jasotako emaitza hauekin, ondorio eta proposamenak egin ditzakedala esan dezaket. Horretarako, gure ikerketaren oinarri eta abiapuntura jo beharko genuke, hain zuzen ere, helburu eta hipotesietara, batez ere, azken hauek bete diren ala ez ikusteko.

Honetan guztiz murgildu baino lehen, eta hipotesiekin kontrastatu aurretik, hainbat gauza azpimarratu nahiko nituzke. Ikusi dudanaren arabera, bi ikastetxeak, nahiz eta bailara bereko, Ikastolen Elkarteko bi Ikastola izan, oso Bizikidetza Plan ezberdinak dituztela. A ikastetxekoa oso laburra eta desegituratua iruditu zait, esan bezala, sarrerarik gabe, eta zuzenean, jarrera desegokiak zerrendatuz eta hauen aurrean hartu beharreko neurriak zein diren eta nola aplikatu behar diren zehaztuz.

Informazio gehiago behar dela esango nuke. Besteak beste, nire ikerketaren ildo den heinean, irakasleek plan hauetan eta esku-hartze horietan duten inplikazioa, papera edo rola zein den identifikatzea faltan bota ditut. Baita, irakasleek gai hauen arloan jaso beharreko formakuntzak zein diren aipatzea ere. Ez hori bakarrik, elkarriketan, ikastetxe

bertako irakasleak hainbatetan aipatutako KiVa proiektuari buruzko informaziorik ez dago Bizikidetza Planean kontuan hartuz hau dela bullying-aren aurrean erabiltzen duten tresna nagusia.

Beste muturrean, B ikastetxeko Bizikidetza Plana dugu; argi ikusten da plan hau Hezkuntza Sailak zehazten duen gidan oinarritua dela, eta bertan azaltzen diren pausuen arabera osatua dela. Ikastetxeko bizikidetzaren inguruabarrak aipatzen ditu, zein egoera izaten diren, zein plan dituzten martxan, zein diren planaren helburu nagusiak, urtean zehar egiten diren ekintza eta dinamikak, eta baita gatazken aurrean edo jazarpen egoeren aurrean hartu beharreko pausu eta urrats guztiak zehazten dituen prozedura ere. Hemen, A ikastetxearen pare, irakasleen rola gehiago zehaztea eskertuko nuke, nahiz eta aipatu irakasleak izaten direla esku-hartzearen partaide eta arduradun nagusienak.

Hala eta guztiz ere, elkarrizketak egin ditudanean, A ikastetxeko irakasle elkarrizketatuak ikastetxeak bizikidetzaren eta bullyingaren inguruan dituzten protokolo eta pausuei buruzko ideia argi eta antolatuagoak eskaini dizkit. Honekin esan nahi dudana da, Bizikidetza Plana nire ikuspuntu batetik, ez izan hain fidagarria edo ez izan hain eraginkorra nolabait, horren aurrean izandako esperientziaren berri ematean, erantzun positibo eta eraginkorrak ikusi dituztela iruditzen zait. Esan bezala, Bizikidetza Planean KiVa-ri buruz ez du ezer aipatzen, baina, bullying-aren aurrean erakutsi duten eraginkortasuna proiektu honen menpe egon dela adierazi duen moduan, planean bertan ere honi erreferentzia nagusi bat egitea beharrezkoa dela iruditzen zait. Bestalde, B ikastetxeko Bizikidetza Plana hain elaboratu eta garatua izanda ere, bertako orientatzailearekin izandako elkarrizketan guztiz bestelako egoera bat ikusi nuen, askoz ere, modu batera esatearren, kaotikoagoa. Hau da, hain plan antolatu zein pautatua izanda ere, hutsune eta ahulgune nabarmenak topatu nituen elkarrizketan. Zehazki irakasleen inplikazioari zuzendutakoak. Bizikidetza Planean ikusi dugun moduan, ikastetxe honetan irakasleen ahulgune eta indarguneak aipatu zituzten, horien artean, lanerako grina eta gogoia goraiatuz, eta enpatia eta gertutasun falta sumatuz.

Argi eta garbi aipatu dudanean moduan behin baina gehiagotan, Gradu Amaierako Lan honekin, Bizikidetza Planek, bullying-arekin edo eskola jazarpenaren inguruan duen eraginkortasuna identifikatu nahi nuen, horretarako kontuan hartuz irakasleek gai hauen inguruan jaso dituzten formakuntzak, planen inplementazioan eragina izan dezakeela. Honekin batera, ikusi nahi nuen, ea gaur egun irakasleek jasotzen dituzten formakuntzak

eraginik izan duten ala ez, eta horren baitan, formakuntza gehiago behar diren ala ez ikustea.

Horretan oinarrituz, nire hipotesiak baliatuko ditut ondorio nagusienak atera ahal izateko.

Lehen hipotesiari eutsiz, Bizikidetza Planek, bullyingaren eta eskola jazarpenaren inguruan eragin positiboa izango dutela esan nuen, horrela jazarpenaren gutxitzea emanek. Bi elkarrizketak burutu eta analizatu ostean, ikusi dugun moduan emaitzen atalean, A ikastetxean, honen arteko erlazioari buruz hitz egitean, orohar enpatia, trebetasun sozialak, komunikazio ez-bortitza, talde presioa edota asertibitatea bezalako arloak landu dituztenez, jazarpenaren gutxitzean eragina ikusi dutela esan du, ondorioz bizikidetza giroa egokiagoa eta onagoa bihurtuz. Hau kontuan izanda ere, nire iritziz, aldaketa hau, eta batez ere, ondorio positibo hauek ez dira izan Ikastolak berak martxan duen Bizikidetza Planaren eraginkortasunaren erantzun. Beste faktore eta ezaugarri batzuk izan dira horren erantzule nire ustez, hala nola, KiVa programa eta honen formakuntza edota, irakasleek jaso dituzten beste formakuntzak. Beraz, nire ustez, A ikastetxean, bullying kasuen gutxitzean eragin askorik ez du izan abian duten Bizikidetza Planak.

B ikastetxean aldiz, lotura zuzenago bat ikusi nezake. Analisi kuantitatiboan landu dudaren arabera, argi ikusten da Bizikidetza Plan antolatua eta ulergarria dela, horrela, kasu hauen aurrean eraginkortasunez esku-hartzeko baliagarria izan daitekeelarik. Horrekin batera, eta elkarrizketatuaren hitzei lotura eginez, sentsibilizazioa areagotzeko baliagarri izan dira, arazoak azaleratuz eta hauei bisibilizazioa eskainiz.

Honekin esan nahi dudana da, Bizikidetza Planek, eragin argia izan dezaketela bullying edo jazarpen kasuen gutxitzearekin, batez ere B ikastetxeokan ikusi dudaren moduan. Beraz, plan organizatu, egituratu eta formal batek, eraginkortasun handiagoa izango luke. Baina, aldi berean ikusi dudaren moduan, A ikastetxearen kasuan, KiVa programari esker lortu dituzte emaitza positiboak jazarpenaren inguruan, eta ez Bizikidetza Planei esker. Beraz, bai, plan eraginkorrak izateak emaitza positiboak ekarriko ditu, hala ezean, plan hauez haratago doazen proiektu edo programez baliatu beharko direlako eraginkortasun hori lortzeko, A ikastetxean ikusi dudaren moduan.

Bigarren hipotesiaren arabera, irakasleen papera Bizikidetza Planen inplementazio eraginkorrean garrantzitsua dela esan nuen. Análisi kuantitatiboan azpimarratu dudaren moduan, Bizikidetza Planetan, irakasleen rola ez da asko aipatzen, ez esateagatik ez dutela ia ezer esaten hauei buruz. Baina, elkarrizketarekin hitz egitean, oso argi eta kontziente dira, irakasleek Bizikidetza Planen aurrean duten papera eta indarra berebizikoa dela. Esan bezala, biei honen inguruan galdetzean, ezinbesteko garrantzia duela goraiatu zuten. Irakasleena orokorrean, baina, tutoreena zehazki. Azken hauek dira azken finean ikasgela batean hurbiltasun gehien erakusten dutenak, nolabait denbora gehiena eskaintzen dietelako bullying-a, jazarpena edota bizikidetzarekin erlazioa duten gaiei. Tutoretza orduak baliatzen dituzte batez ere Bizikidetza Planean zehaztuak dituzten ekintza, dinamika eta aktibitateak gauzatzeko, horrela, gai hauek landuz, eta hauen inguruko problematiken inguruan hitz eginez, nolabaiteko prebentzioa egiteko.

Baina, hainbat arazo ere, azpimarratu dituzte; alde batetik, A elkarrizketuak adierazi bezala, askotan denbora falta da gai hauek lantzeko eta ezagutzeko, tutoretza ordu gutxi dituztelako. Bestalde, B elkarrizketuak, behin baino gehiagotan aipatu duen modura, zenbait irakasleren partetik inplikazio falta nabaritu dela. Bi arazo hauek, eragin zuzena izango du Bizikidetza Planen inplementazioan, esan bezala, irakasleek ikas-programa dela eta denbora falta dutelako planetan aurreikusten diren helburuan aurrera eramán ahal izateko. Inplikazio falta horrek ere, eragin argia izango du; eragin negatiboa zehazki. Sentsibilizazio falta horrek, inplikazio falta ekar dezake, beraz, Bizikidetza Plan hauek modu eraginkor batean inplikatze arazoak izango dituzte, aipatu modura, askotan, jokabide hauen aurrean, ia entzungor egiten dutelako edota duten garrantzia baino gutxiago emango dietelako, “umeen kontuak” direla esanez. Honek, horrelako jarrerari bide ematen die, esku-hartzeak oztopatuz, eta ondorioz Bizikidetza Planen sustapenak kutsatuz.

Hau horrela, argi eta garbi esango nuke, hipotesi hau betetzen dela, eta garbi dagoela, irakasleen papera ezinbestekoa eta funtsezkoa dela Bizikidetza Planen inplementazio eraginkorra egiterako orduan, horrek, bullying-aren eta jazarpenean eragin zuzenak ekarriko dituelarik.

Hirugarren hipotesiari helduz, irakasleek bullying-aren inguruan jasotzen dituzten formakuntzak ez direla nahikoak azaltzen nuen. Ikusi bezala, bullying-ari aurre egiteko,

bi ikastetxeetan Bizikidetza Planaz gain, Turku Unibertsitateak abian jarri zuen KiVa programa edo proiektua ere martxan dute orain dela lau urtetatik. Proiektu hau izanik, Ikastola hauetan bullying-a ekiditeko modu zuzenena, bullying-aren inguruko formakuntzak ere zuzenean, proiektu honi begira daude. Formakuntza hauetan, gainera, bullying edo jazarpenean zentratu beharreen, orohar, ikasgeletan nola txertatu ikasten dute, plan hau aurrera eramateko duten gidaliburuaren aplikazioa nolakoa den, eta nola izan behar den ikusiaz. Horrekin batera, KiVa-k planteatzen dituzten dinamika, materialak edota ekintzak nola gauzatu ere ikusten dute formakuntza hauetan.

Halaber, B ikastetxean ikusi dudaren arabera, KiVa-aren inguruko formakuntzaz gain, herriko Udalak berak, Bakeola entitatearen laguntzaz, ikastetxeei bizikidetzaren inguruko formakuntza bat eskaintzen die, horrela Bizikidetza Planak garatu eta sustatzeko laguntza eskainiz. Berritzegunearen partetik ere mintegiak izan ohi dituztela adierazi du.

Baina, guzti hau ikusi ondoren, nabaria da bullying-aren eta jazarpenaren inguruan jasotzen duten formakuntza zuzenena, eta kasu honetan bakarra, KiVa proiektuaren ingurukoa dela; ez hori bakarrik, formakuntza hau, proiektuaren aplikazioan zentratzen da, eta ez bullying-ean zuzenean, nahiz eta modu batera edo bestera problematika berdina lantzen egon.

Bullying-aren inguruan, honen gutxitzea helburu duen proiektu baten aplikazioari zuzentzen zaion formakuntza bat soilik jasotzea, beraz, gutxi dela iruditzen zait. Proiektu honen mugetatik haratago doan problematika bat da bullying-a. Hain plan espezifiko batean soilik zentratuz, arazo eta gai honen inguruko nondik norakoek ezagutzaren beharra garrantzitsua dela iruditzen zait. Bullying-a zer den hobeto ulertu, honek dituen ondorio sakonagoak ezagutu eta esku-hartze ezberdinak ikustea funtsezkoa iruditzen zait, hau da problematika honek atzetik dakarrena ezagutzea.

Honi lotuta, aipatu nahi nuke, bullying-aren inguruan jasotako formakuntza bat. Nire herriko astialdi talde bateko begirale naizenez, behin udalak jazarpenaren inguruan antolatu zuen formakuntza eta mintegi batera joan nintzen. Formakuntza hau, zehazki irakasle edo hezitzaile moduan lan egiten duten pertsonen eta gurasoen zuzendua zegoen batik, bat, kasu hauen aurrean izan behar den jarrerak ulertu eta ikasteko. Hainbat saiotan banatzen zen formakuntza bat zen. Alde batetik, adituen partetik, bullying-aren

kontzeptua, testuingurua, egoera etab. ikusi genuen, hauek ekar ditzakeen ondorioei buruz hitz egin, parte hartzen duten pertsona ororen ikuspuntuak eta jarrerak ikusi, aztertu eta ulertu eta kasu hauen aurrean, zein jarrera izan behar dugun eta eraginkortasunez nola esku-hartu dezakegun ikasiz. Baina, bigarren saio batean, tertulia eta solasaldi bidez, hainbat kidek bullying-aren inguruan izandako bizipenak elkarbanatu zituzten, hauen aurrean izan dituzten arazoak azaleratu, eta azkenik iritziak, proposamenak eta aholkuak elkarbanatuz.

Honekin esan nahi dudana da, bullying-aren inguruko formakuntza orokor bat beharrezkoa dela, problematikaren erroa zein den ezagutzen ez bada, askorako ez duelako balioko proiektu bat aplikatzeko jasotzen den formakuntza horrek. Beraz, nire hipotesiari erantzun bat emanez, esango nuke, ez direla nahikoa bullying eta jazarpenaren inguruan irakasleek jasotzen dituzten formakuntzak, arazoaren muina ulertzeko, oinarrizko beste formakuntza batzuen falta sumatu dudalako.

Laugarren hipotesira salto eginaz, orokorrean, irakasleek jasotzen dituzten formakuntzak nahikoak ez direla esaten dut. Hau aurreko hipotesiarekin guztiz lotua eta errotua dago; eta ikusi dudanaren arabera, hipotesi hau ere betetzen dela esango nuke. A ikastetxeko irakasleak aipatu zidanaren arabera, hainbatetan esan bezala, KiVA proiektuaren aplikazioaren inguruko formakuntzaz gain, genero indarkeriaren inguruko formakuntza ere jasotzen dute. Alde batetik, gazteenen artean eman daitezken genero indarkeria kasuen ingurukoak eta bestetik, genero indarkeria jasaten duen familia giro batetik eratortzen diren seme-alaben aurrean egin beharrekoaren inguruko formakuntza. Bestetik, B ikastetxeko irakasleek, bullying-aren aurkako proiektu horretaz jasotzen duten formakuntzaz gain, bizikidetzari buruzko formakuntza oroko bat jasotzen dute. Baita, Berritzeguneko mintegien partetik ere. Hala ere, ulertzer a eraman didanaren arabera, formakuntza baino gehiago, azken finean, ikastetxean martxan jarri nahi den Bizikidetz Plan hau garatu eta sustatzeko laguntza da eskaini dietena, bizikidetzaren inguruko formakuntza orokor bat baino gehiago.

Hau kontuan izanda, eta nire hipotesia betetzen dela esateko, formakuntza falta sumatu dudala esango nuke. Ulertzen dut, denbora arazoak egon daitezkeela, eta askotan fokua problematika zehatz batean zentratzen dutela, baina, hainbeste haur, gazte eta neraberekin lan egiten duten ikastetxe bateko irakasleek, kompetentzia gehiago eta orotarikoak behar dituztela iruditzen zait. Formakuntza hauek asko ez ezagutu arren,

nahiko azalekoak direla iruditzen zait, eta ez direla gaian guztiz zentratzen, ezta irakasleek gai hauen aurrean esku-hartzeko izan behar dituzten gaitasunen inguruan ere.

Azken eta bostgarren hipotesiari pausu emanez, aipatzen nuen, Irakasleek bullying-aren eta eskola jazarpenaren inguruan izan duten formakuntza egokia bada, Bizikidetza Planetan duten paperak eragina izango duela bullying-aren eta eskola jazarpenaren gutxitzean. Hipotesi hau guztiz betetzen dela iruditzen zait. Aurretik ere aipatu dudan moduan, eta elkarrizketetan eta B ikastetxeko Bizikidetza Planena ikusi dudanaren moduan, ahulgune nagusiena irakasleen partetik, gai hauekiko duten sentsibilizazio, dedikazio eta inplikazioa dira. Elkarrizketatuek aipatu bezala, ez du axola jasotako formakuntza egokia izatean, ondoren, formakuntza horietan ikasitakoa ez bada ikasgelara eramaten eta ikasleen aurrean aplikatzen. Askotan, arlo pertsonalerako oso baliagarriak izan daitezke formakuntza hauek, baina, ondoren gerta daiteke arlo profesionalean islatzeko ez izatea gaitasunik.

Hipotesi hau egia dela esan behar dut, baño ñabardura egin nahi diot aipatutakoari, izan ere, plan hauen aplikazioaren oinarrian irakasleak daude, eta ez badira guztiz inplikitzen, formakuntza hauetan ikasitakoa aplikatzeko ez dute kompetentziarik izango, beraz, bullying-aren eta jazarpenaren aurrean ez lukete ezer egingo, esku-hartzeak ez lirateke egongo eta kasuen gorako tendentzia bat emango litzateke.

Hipotesiak alde batera utzita, orohar izan dudana sentsazioa da KiVa proiektuak zentratzen direla nagusiki eta ez hainbeste Bizikidetza Planean, hau da, fokua proiektuan eta honen aplikazioan jartzen dutela, eta askotan plan hauetan ezarrita dituzten ezaugarri, balio eta helburuak, alde batera uzten dituztela, nolabait, plan hauek “dekoratzeko” eta justifikatzeko soilik erabiltzen dituztela. Batez ere B ikastetxearen planarekin izan dut sentsazio hori. Dena oso polit erakusten dute planean, helburu, balore eta ideia oso argiekin, baina, orientatzailearekin izandako solasaldian, berak, ondo azaldu moduan, ahulguneak dituzte, batez ere irakasleen partetik, eta horrek ez die helburu eta balore hauek aurrera eramaten uzten. Beraz, Bizikidetza Plan hauek indartu egin behar direla esango nuke, behar duten eta izan baduten garrantzia eskainiz, plan egoki eta eraginkorrakoak sortuz, eta ez soilik aparteko plan bati eutsiz.

Hau dela ere, orohar ikastetxeak berak bullying-arekiko duen interesa eta inplikazioa ona eta egokia dela iruditzen zait, hau da, interesa dute hobetzeko, eta esku-

hartze eraginkorrak egiteko, proiektu ezberdinak dituzte martxan eta parte hartze eta kontzientzia gero eta gehiagoz nahi dute sustatu eta landu. Ez hori bakarrik, A elkarrizketatuak aipatu modura, KiVa proiektuan oinarrituz, Ikastolen Elkartek, bullying-aren aurrean beraien proiektu propioa sortu nahi dute eta hau aurrera pausu garrantzitsu bat izan daitekeela iruditzen zait.

Aipatu bezala, bullying eta eskola jazarpen hau, ezin da ulertu Gizarte Psikologiari loturarik eta erreferentziarik egin gabe. Testuinguruan aipatu bezala, honen atzean hainbat faktore daude, eta horien artean nabarmenetarikoa asimetria (Sachdev eta Bourhisek, 1991) dela esan dugu, honen atzean boterea eta estatusaren kontzeptuan gainjarriz. Hori horrela, hau gutxitzearen eta asimetria hori, nolabaiteko simetriara bideratzeko beharrezkoak dira esku-hartze eta prebentzioak, estatus eta botere banaketak alde batera utziz.

Boterea aitzakia hartuz, jazartzaile orok, biktimaren gaineko kontrol hori izan nahi duela ikusten da. Horretarako, irakasleen papera funtsezkoa da, simetria eta berdintasunerako bidea irekitzeko. Irakasleak dira, nolabaiteko arduraren dutenak erakusteko botere harreman horiek pareen artean ez direla eraginkorrak, bizikidetzaren egoki bat eta giro atsegina bat sortzerako orduan. Baina, irakasleen zeregin hau, bere botereen abusu gabe erabiltzea beharrezkoa, izango litzateke, ondorio eraginkorrak lortu nahi diren heinean, ikasleek ere ulertu dezaten, konfiantza eta hurbiltasun giro batetik, emaitza onagoak lortu daitezkeela.

Normalizazioari (Arnosok eta Larrañaga, 2013) ere garrantzia eman zaio gai hauen inguruan eztabaidatzeko unean. Normalizazio honek, jazarpen egoera hauei pausu ematen die, hauek normalizatuz eta egunerokoaren parte bilakatuz nolabait. Irakasleen inplikazio falta horretan ere nolabaiteko normalizazioa erakutsi da, esan bezala “haurren kontuak” dira esaten dutenean batik bat, edo “adinaren kontuak dira”. Ez. Ez dira gazteen kontuak edo adinaren kontuak. Horrelako, ikuspuntu batekin, normalizazio honi bidea irekitzen diogu, detekzioak ekidinaz, eta ondorioz arazoari irtenbiderik eman gabe. Horregatik dira, esan bezala formakuntza egoki, sakon eta antolatua beharrezkoak, horrelako egoeren aurrean, denek begirada argia izan dezaten, tolerantzia zero aplikatu eta jarrera desegoki guzti hauen aurrean, esku-hartu eta arazoari irtenbide bat emateko.

Askotan izan dut sentsazioa bullying-ari garrantzi gutxi ematen zaiola. Batez ere jendartean eta gizartean. Arrotza egiten zaigu zenbaitetan edo urruneko zerbait bezala ikusten dugu. Baina, hainbat gazte eta neraberen egunerokoaren parte da. Eta, axolagabekeria horretan, bullying-ak eta jazarpenak duen eraginari eta garrantziari ez diogu arretik eskaintzen, ezikusiarrena egin eta beste aldera begiratzen dugu.

Baina, jazarpena, egoera oso larria da. Hau beste era batera planteatuko balitz, arazo larritzat joko genuke. Adin txikikoen kontuak direla esango genuke, baina, adin nagusikoen artean emango lireratekeen kasuan izango balira, zenbaitetan Zigor Kodean zehaztuta eta tipifikatuta dauden gertakarien aurrean egongo ginatke. Bullying-aren barruan ohiko jarrerak izaten dira, irainak, mehatxuak edota jazarpena. Zenbaitetan indarkeria fisiko zein psikologikora ere egiten da salto. Gazteen artean ematen direnez, ez direla gure kontuak esango genuke, baina, helduen artean, mehatxuak emanez gero, Zigor Kodeak 169. artikulua araberara, honakoa dio: *“El que amenazare a otro con causarle a él, a su familia o a otras personas con las que esté íntimamente vinculado un mal que constituya delitos de homicidio, lesiones, aborto, contra la libertad, torturas y contra la integridad moral, la libertad sexual, la intimidación, el honor, el patrimonio y el orden socioeconómico, será castigado: 1.º Con la pena de prisión de uno a cinco años, si se hubiere hecho la amenaza exigiendo una cantidad o imponiendo cualquier otra condición, aunque no sea ilícita, y el culpable hubiere conseguido su propósito. De no conseguirlo, se impondrá la pena de prisión de seis meses a tres años”*, hau askatasunen aurkako delitutzat jotzen delarik. Kasurik larrienean, indarkeria fisikoaz sortutako lesioak egongo balira Zigor Kodeko 147.artikuluari jarraiki, honakoa zehazten du: *“El que, por cualquier medio o procedimiento, causare a otro una lesión que menoscabe su integridad corporal o su salud física o mental, será castigado, como reo del delito de lesiones con la pena de prisión de tres meses a tres años o multa de seis a doce meses, siempre que la lesión requiera objetivamente para su sanidad, además de una primera asistencia facultativa, tratamiento médico o quirúrgico. La simple vigilancia o seguimiento facultativo del curso de la lesión no se considerará tratamiento médico”*, kasu hauen artean, arinenak direla ulertuz.

Honekin esan nahi dudana da, ikuspuntua aldatzen badugu, errazagoa dela ikustea jazarpen eta bullying-ak duen garrantzia, eskola inguruan “normaltzat” jotzen ditugun jarrerak direla kontsideratzen dugun une horietan.

Ondorioekin amaitze aldera, orokorrean, problematika eta gai honen inguruan dagoen inplikazio falta azpimarratu nahiko nuke. Ez jendartean soilik, baita, ikasle, irakasle edota familiaren partetik. Duen larritasunari fokoa jarri eta irtenbide berriak aurkitzen saiatzeko beharra dagoela iruditzen zait.

Ez hori bakarrik, gehiago ikertu beharreko esparru bat dela esatera ere ausartuko nintzateke. Ikerketarekin hasi baino lehenago, nire marko teorikorako mundu mailan, eta nazio artean eginiko ikerketa eta lan ezberdinak begiratzen egon ostean, izan dudan sentsazioa da informazioa falta dela, ikerketa faltagatik. Ez da erraza izan testuingurua osatzeko informazioa bilatzea, batez ere bizikidetza planen inguruan eta zehazki hauetan eta bullying eta jazarpenaren gutxitzean irakasleek duten rolaren inguruan. Bizikidetza Planen inguruan bilatzen aritu naizenean, hauek izan duten eragin eta ondorioei buruz irakurtzerakoan, ohartu naiz, ikastetxe askotan, eta ikerketa askotan, aplikazioa ikusi dutela, eta nolabaiteko emaitzak atera dituztela, baina, izan duten eraginean oso azaleko hausnarketak egin dituztela; ez esatearren, plan hauei eginiko jarraipena ia ez zela existitzen.

Hori bera esaten du ere, Merma Molina, Ávalos eta Martinezek (2019) egindako ikerketa batek ere, hau da, Espainiar estatuan, Bizikidetza Planen eraginkortasuna ebaluatu duten ikerketa fidagarriak ez dela egin. Eta ikusi dudan moduan, oso azalek aztertu diren gaiak dirudite.

Ez hori bakarrik, ikerketaren batean erakutsi den moduan, hezkuntza administrazioaren partetik laguntza gehiago eskaini beharko lirakeela dialogo eta eztabaidetan oinarrituta (Merma Molina, Ávalos eta Martinez, 2019). Honekin ere, nolabaiteko adostasuna erakutsi behar dut, izan ere, laguntza askorik ez dutela iruditu zait, laguntza honen gehiengoa ikastetxeen artekoa dela kontuan hartuta.

Orokorrean, plan hauen inguruan, ezjakintasuna dagoela esango nuke. Pertsonalki, ni Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan nengoela ere, ez nuen ideiarik ere Ikastolan horrelako planak martxan zeudela. Zer esanik ez, bullying-aren aurrean erakusten zen axolagabekeria, eta arduragabekeria.

Asko landu beharreko eta ikertu beharreko esparruak izanik, interesgarria irudituko litzaidake, irakasleen gain gehiago zentratzea. Inoiz arreta handirik eskaini ez diodan arren, ikusi dut, Gradu Amaierako Lan honi esker, gutxi baloratu eta eskertzen

delat, ez zaiolako garrantzi askorik ematen hauek, Bizikidetza Planen implementazioan eta bullying eta jazarpenaren gutxitzean izan dezaketen eraginean.

8. BIBLIOGRAFIA

2/2006 Lege Organikoa. Hezkuntzari buruzkoa. 2006ko maiatzak 3.

201/2008 Dekretua. Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa. 2008ko abenduak 16.

85/2009 Dekretua.

19/2012 Dekretua. Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Bizikidetzaren Behatokia sortzen duen. 2012ko otsailak 21.

R2016ko urtarrilaren 18ko Ebazpena. EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan eskola-jazarpenerako egoeretarako jardun protokoloaren aplikazioa arautzen duena.

Arnosó, A. eta Larrañaga, M (2013). *Taldeen Psikologia: kontzeptua, egitura eta prozesuak*. Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetza. UPV/EHU.

Álvarez-García, D., Rodríguez, C., González-Castro, P., Núñez, J.C. eta Álvarez, L. (2010). La formación de los futuros docentes frente a la violencia escolar. *Revista Psicodidáctica*. 15(1), 35-56

Avilés, J.M., Irurtia, M.J., García-Lopez, L.J. eta Caballo, V. (2011). El maltrato entre iguales. *Behavioral Psychology / Psicología Conductual*, 19(1)

Bravo, A. I. eta Herrera Torres, L. (2011). Convivencia escolar en Educación Primaria. Las habilidades sociales del alumnado como variable moduladora. *Dedica. Revista de educação e humanidades*, (1), 173-212.

Castells, M. (1998). *La era de la información: Economía, sociedad y cultura*. Madril: Alianza Editorial.

Cerezo, F. (2016). *¿Son útiles los programas de intervención? ¿Cómo evaluar su eficacia?* ACIPE-Asociación Científica de Psicología y Educación.

Córdoba-Alcaide, F., Ortégak-Ruiz, R. eta Nail-Kröyer, O. (2016). *Gestión de la convivencia y afrontamiento de la conflictividad escolar y el bullying*. RIL editores.

Defensor del Pueblo (2000). *Informe sobre violencia escolar*. Madrid: Oficina del Defensor del Pueblo.

Defensor del Pueblo (2007) *Violencia escolar: el maltrato entre iguales en la educación secundaria obligatoria 1999-2006 (Nuevo estudio y actualización del informe 2000)*. Madrid: Oficina del Defensor del Pueblo.

Díaz, L., Torruco, U., Martínez, M., eta Varela, M. (2013). La entrevista, recurso flexible y dinámico. *Investigación en educación médica*, 2(7), 162-167.

Dobarro, A., García, T., eta Álvarez, D. (2013). ¿Qué medidas para la mejora de la convivencia se están desarrollando en los centros educativos?: una perspectiva desde dentro. *EJIHPE: European Journal of Investigation in Health, Psychology and Education*, 3(3), 207-213. DOI: <https://doi.org/10.30552/ejihpe.v3i3.50>

Eskola-jazarpen (2018). Euskaltzaindiaren Hiztegia. Ikus hemen: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=jazarpen&antzekoak=ez&option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=eu-ES&bila=bai

Espainia. Adin txikikoen epaitegia (Penaleko sala). Maiatzaren 12ko 86/2005 sententzia.

Espainiako Konstituzioa [EK] Estatuko Boletín Oficiala, 1978ko abenduaren 29a, 311. zenbakia

Eusko Jaurlaritza (2013). *Bake eta Bizikidetzaren Plana. Gizartea elkartzea helburu*. Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkaritza Nagusia.

Eusko Jaurlaritza (2016). *Ikastetxeen elkarbizitza plana egiteko gida*. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Eusko Jaurlaritza (2019). *Eskola-jazarpenaren bilakaera Euskadin: 2018-2019 ikasturtea*. <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/albiste/2019/eskola-jazarpenaren-bilakaera-euskadin-2018-2019-ikasturtea/n>

Félix, V., Soriano, M., Godoy, C., eta Martínez, I. (2008). Prevención de la violencia y promoción de la convivencia escolar en la Comunitat Valenciana (Plan PREVI). *Aula Abierta*, 36(1-2), 97-110.

- Gaeta González M.L., Martínez-Otero Pérez, V., Rodrigo Vega, M. eta Rodrigo Gómez, M. (2020). Problemas de convivencia escolar desde la mirada del alumnado de educación secundaria. *Estudios Pedagógicos (Valdivia)* 46(2), 341-357.
- Garaigordobil Landazabal, M. (2018). *Bullying y Cyberbullying: Estrategias de evaluación, prevención e intervención*. Bartzelona: Editorial UOC.
- Gázquez, J.J., Cangas, A.J., Padilla, D., Cano, Á. eta Pérez-Moreno, P.J. (2005). Assessment by pupils, teachers and parents of school coexistence problems in Spain, France, Austria and Hungary: global psychometric data. *International Journal of Psychology and Psychological Therapy*. 5(2), 97-108.
- Gibbs, G (2007). *El análisis de datos cualitativos en Investigación Cualitativa*. Madril: Ediciones Morata,
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2018). *Aniztasunean Bizikidetzarako Foru Plana. Diskiminazio eza bultzatzeko ekintzak*. Bizikidetzeta eta Giza Eskubideko zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2016). *Bizikidetzeta Lantzen. Bake, bizikidetzeta eta giza eskubideen udal politikak sustatzeko foru plana*. Bizikidetzeta eta Giza Eskubideko zuzendaritza.
- González-Calvo, G., Hortigüela-Alcalá, D., Hernando-Garijo, A. eta Pérez-Pueyo, A. (2019). The Coexistence Plan at a Secondary School: Analysis Base don the Voices of Students and Teachers. *The Qualitative Report*, 24(3), 572-585.
- Hezkuntza Ministeriotza (2018). *Acoso escolar, datos, cifras y estadísticas*. <https://www.epdata.es/datos/acoso-escolar-datos-cifras-estadisticas/257/espana/106>
- KiVa Antibullying Program. <https://espanaeusk.kivaprogram.net/what-is-kiva/>
- Kvale, S. (2011). *Las entrevistas en Investigación Cualitativa*. Madril: Ediciones Morata, S.L.
- Jares, X.R. (2001). *Educación convivencia*. Madril: Popular.
- Llorent, V., Farrington, D. eta Zych, I. (2020). El plan de convivencia y su relación con las competencias socioemocionales, el bullying y el cyberbullying en la educación secundaria. *Revista de Psicodidáctica*. 26(1), 35-44. DOI: <https://doi.org/10.1016/j.psicod.2020.11.002>

- Martínez-Otero Pérez, V. (2001). Convivencia escolar: problemas y soluciones. *Revista Complutense de Educación*. 12(1), 295-318
- Martínez Sánchez, I., Goig Martínez, R., González González, D. eta Álvarez Rodríguez, J. (2019). School Bullying in Compulsory and Advanced Secondary Education. Determination Factors in its Intervention. *International Journal of Environmental Research and Public Health*. 16(5), 750.
- Merma-Molina, G., Ávalos Ramos, M.A. eta Martínez Ruiz, M. (2019). ¿Por qué no son eficaces los planes de convivencia escolar en España?. *Revista de Investigación Educativa*. 37(2), 561-579. DOI: <http://dx.doi.org/10.6018/rie.37.2.313561>
- Monge-López, C. eta Gómez-Hernández, P (2020). El papel de la convivencia escolar en la formación inicial del profesorado de educación infantil y primaria. *Teoría de la Educación. Revista Interuniversitaria*, 33(1), 197-220. DOI: <https://doi.org/10.14201/teri.23580>
- Moscovici, S. (1976). *Psicología de las minorías activas*. Madrid: Morata.
- Navarro-Gómez, N. (2017) El suicidio en jóvenes en España: cifras y posibles causas. Análisis de los últimos datos disponibles. *Clínica y Salud* 28, 25-31. <http://dx.doi.org/10.1016/j.clysa.2016.11.002>
- Núñez de Arco, J. (2010). Victimología y Violencia Criminal. Un enfoque Criminológico y Psicológico. *Colección Bibliográfica de Ciencias Jurídico Penales*, 7.
- Ortega, Mora-Merchán eta Mora (2000). *Cuestionario sobre intimidación y maltrato entre iguales*. Proyecto de investigación sobre intimidación y maltrato entre escolares. Universidad de Sevilla.
- Ortega-Ruiz, R., eta Del Rey, R. (2002). Instrumentos para valorar la convivencia escolar. *Estrategias educativas para la prevención de la violencia, Mediación y diálogo*
- Ortega-Ruiz, R. eta Del Rey, R. (2007). *Adaptación del Cuestionario sobre el Estado Inicial de la Convivencia Escolar-2002*. R. Ortega y R. Del Rey (2003), La violencia escolar-etik berreskuratua.

- Ortega-Ruiz, R., Del Rey, R. eta Casas, J.A. (2016). Evaluar el bullying y el cyberbullying validación española del EBIP-Q y del ECIP-Q. *Psicología Educativa*. DOI: <http://dx.doi.org/10.1016/j.pse.2016.01.004>
- Ortega-Ruiz, R., Del Rey, R. eta Casas, J.A. (2013). La convivencia escolar: clave en la predicción del Bullying. *Revista Iberoamericana de Evaluación Educativa*, 6(2), 91-102.
- Ortega-Ruiz, R., Del Rey, R. eta Feria, I. (2009). Convivencia escolar: fortaleza de la comunidad educativa y protección ante la conflictividad escolar. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*. 66 (23,3) 129-158.
- Osasunaren Mundu Erakundea (2002). Informe mundial sobre la violencia y la salud: resumen.
- Parker, C. (2016) *Peacebuilding, Citizenship, and Identity. Empowering conflict and dialogue in multicultural classrooms*. Toronto: Sense publishers.
- Patton, M. Q. (2002). *Qualitative research and evaluation methods*. Sage Publications. Thousand Oaks.
- Peñalva Velez, A., Vega-Osés, A., López-Goñi, J.J. eta Satrústegui Azpiroz, C. (2015). Clima escolar y percepciones del profesorado tras la implementación de un programa de convivencia escolar. *Estudios sobre educación*. 28. <https://doi.org/10.15581/004.28.9-28>
- Rodríguez Rodríguez, R. (2007). Los planes de convivencia como herramienta para prevenir los conflictos escolares. *Jornadas Europeas sobre convivencia escolar*.
- Sachdev, I. eta Bourhis, R. (1991). Power and status differentials in minority and majority group relations. *European Journal of Psychology*, 21(1), 1-24.
- Sherif, M. (1935). A study of some social factors in perception. *Archives of Psychology (Columbia University)*, 27(187).
- Trianes, M.V. (2000). *La violencia en contextos escolares*. Malaga: Aljibe.
- Uruñuela Nájera, P.M^a. (2020). *El plan de Convivencia del Centro Educativo. Pautas para su elaboración*. Madril: Narcea S.A. ediciones.
- Vera Gonzalez, R. (2010). Violencia en las aulas: el Bullying o acoso escolar. *Revista Digital, Innovación y Experiencias Educativas*, 37(2), 7-9.

Wanceulen Ferrer, A. (2016). *Stop Bullying*. Wanceuelen, S.L.

Zigor Kodea [ZK]. 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa (Espainia).

9. ERANSKINAK

9. 1. ERANSKINA: ELKARRIZKETAK

A elkarrizketatua (Irakaslea, KiVa taldeko orientatzailea)

1. Ikastetxean, bizikidetza nolakoa dela esango zenuke?

Bizikidetza nahiko lasaia da, herria txikia da, herri erdian kokatzen da Ikastola, orduan, bizikidetza arazo larrik ez dakea.

2. Bullying egoerak izagten dituzue? Nolakoak izaten dira?

Egia da orain 4 urtetik, KiVa proiektua martxan jarri zutenetik, jazarpen kasuak asko jaitsi dira. Badaude eta zaila da desagertzea, baina, bai ikusten ari garela kasuak nahiko “arinak” direla, batez ere, ahozkoak, irainak, burlak, barre egiteak, ... Jazarpenean askotan zailenak direnak detektatzen baina, errazenak konpontzeko.

3. Kasurik egon bada, zein tendentzia ikusten duzue bullyingaren egoeran? (Hobera, okerrera, adina, generoa,...)

Datuak (aurtengoak, nahiz eta ez bukatu ikasturtea):

8 kasutan esku-hartu ditugu ikasturte honetan. Horietatik, 4 kasu DBH1en, beste 2 DBH2n, kasu bat LH5ean, eta beste bat DBH3an. Esku-hartze gehienak hala ere, DBH1 eta 2 artean izaten dira.

Genero aldetik, 5/8tik mutilak izan dira jazartuak (eta beraien erasotzaileak ere mutilak) eta 3/8tik neskak (hauen erasotzaileak ere neskak). Ikusi den bezala, erasotuak eta erasotzaileak kasu berdinetan, genero berekoak izan dira.

Hala ere, esan beharra dago, esku-hartzeak egiteak ez du esan nahi kasu gehiago ez daudenik, askotan, detektatu gabe edo guri jakinarazi gabe egon litezkeelako (eta ziurrenik badaudela kasu gehiago).

4. Irakasleek jasotzen dute/duzue formakuntzarik Bullyingaren inguruan? Eta honen prebentzioen inguruan?

(berak aurretik esan zidanaren arabera, KiVa proiektuaren inguruko formakuntza jasotzen dute, hau izanik, bullyingean zentratzen den formakuntza bakarra. Beraz, honen inguruan hitz egiten du)

KiVa formakuntzak bi alderdi ditu, alde batetik prebentzioa eta beste aldetik, esku-hartzea.

Prebentzioa egiteko, ikasmaterial bat du tutore bakoitzak, eta ikasmaterial horrek irakaslearen gida dauka, beraz, jasotzen duten formazioa, material hori nola erabili eta aplikatuko den ikasten zentratzen da, horrela, esaterako saioak nola programatu jakiteko. Programa horiek martxan jarri aurretik, guk, barne formakuntza bat egiten dugu, KiVa arduradunekin batera, saio horiek norekin egin eta nola egin prestatzeko (nolabaiteko entseguak).

Esku-hartzeari dagokionez, tutoreek ez dute zuzenean hartzen parte, neurriez KiVa taldea arduratzen gara. Tutoreek jakiten dutena da zein den prozedura; horregatik, jasotzen duten formakuntzan erakusten zaie talde horretan ze prozedura jarraitzen dugun ikaslearekin. Gero, egiten dugun esku-hartze horretan, tutoreek ere badute beraien zatia, adibidez, biktimaren babesleak izan daitezkeen ikasleekin gela barruan, familiekin egiten den informazio trukaketan, hauei kasuaren berri ematen zaielarik, eta ondoren jarraipenean ere parte hartzen dute, bai irakasleek eta baita familiek ere.

5. Irakasleok hartzen duzue parte BPak sortzean?

Bai. Gure bizikidetza taldean planaren proposamen bat egiten dugu, bertan ekarpenak jasoz. Behin ekarpenak eta proposamenak jasota, bizikidetza planera eramaten dira.

6. Irakasleon lana zein da BPen implementazioan? Nahikoa parte hartze duzuela uste duzu?

Irakasleek eta, batez ere tutoreek, beraien tutoretza orduetan edota egunerokotasunean, aplikatu eta aurrera eraman behar dituzte, erabat zuzena izanik irakasleon lana implementazioan.

Etapen arabera, parte hartzea ezberdina izango da; esaterako Lehen Hezkuntzan, parte hartzea irakasleen partetik handiagoa izaten da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aldiz, gehiago kostatzen da. Hau tutoretzetan ari gara ikusten batez ere, izan ere, guk nahi baino prebentzio gutxiago egin eta lantzen delako. Tutoretza orduak azken finean beste hainbat gauzekin daude beteak, gai asko nahi dira landu eta tutoreei ez die denbora ematen hau aplikatzeko. Datorren ikasturtera begira, hala ere, planteatzen ari gara ikastorduren bati edo ikasgairen bati orduak eta edukiak kentzeko, aplikazio hau egiteko denbora gehiago eskaini behar diogula ikusten ari garelako. Esaterako Etika ikasgaiaren ematen diren gaiak eraldatu eta bizikidetzan, bullying eta KiVa lantzeko gaiak sartu.

7. BPez gain baduzue beste programarik martxan bullyingaren aurka?

Aipatu bezala, KiVa programa martxan dugu orain dela lau urtetatik.

8. Laguntza nahikoa daudela uste duzue bullyingari aurre egiteko? (proiektuak, programak, formakuntzak,...)

Orain dela lau urte KiVa programa martxan jarri genuenean, Ikastolen Elkarteak babesa eskaini digu. Urtean hiru aldiz, jarraipena egiten da programarena, eta balorazio hauek beste Ikastolekin partekatzen ditugu, dauzkagun kezka, kasuak,... aipatzeko; beraz, alde horretatik babestuak sentitzen gara, izan ere, ia 70 ikastola gara proiektu hau martxan dugunak, eta elkar laguntza hori ikusten da.

Bestalde, kasu zailagoak direnean, Hezkuntza Sailaren Ikuskaritzatik laguntza ere jaso izan dugu; aholkularitza eskainiz batez ere.

9. Ikusten duzu loturarik irakasleen formakuntzan eta bullyingaren eta jazarpenaren artean?

Formakuntza bera baino gehiago aplikazioan batez ere, izan ere, formakuntza jaso baina gero ez bada aplikatzen, ez dugu eraginik ikusiko. Gainera, urtero, bai irakasle eta baita ikasleek ere, Turkuko Unibertsitateak zuzenean pasatzen digun galdetegi bat betetzen dute KiVa proiektuaren inguruan eta ondoren unibertsitateak berak guri emaitzak ematen dizkigu. Ikusi da azken lau urteetan, jazarpen kasuak kopurua gutxitu egin direla proiektu honi esker. Lehen urtean, jazarpena jasotzen zutenen %16 zen, gaur egun ordea, %6 inguruan gaude. Halaber, ikusi dutena da KiVa aplikatzen duten herrialdetan, %5tik behera jaistea ia ezinezkoa dela; honekin esan nahi dudana da,

jazarpena 0 izatea ia ez dela posible, proiektu hauek martxan egonda ere, zaila delako. Helburu bat ere sortzen du honek, ikastetxean bertako komunitatean, izan ere, hori aurre egitea errazagoa delako, onartzen badugu ia ezinezkoa izango dela jazarpen kasurik ez egotea ikastetxean bertan, hobe da onartzea kasuak egongo direla eta horren aurrean esku-hartze eraginkor bat egitea.

Irakasleok gure partetik, ikasleak ez ditugu epaitu behar, ulertu behar dugulako ikasle horiek jakin batean desegokia izan dela ulertu eta jarrera aldaketa hori da aldatu behar duguna, ez pertsona bera. Ez dugu epaituko pertsonaren arabera, baizik eta jarreraren arabera. Programa hau martxan jarri aurretik, ez zen hala izaten, izan ere, neurri diziplinarioak hartzen baitziren, eta hor ikasleak epaitzera jotzen genuen (*ikasle hau gaiztoa da, honek ez du inoiz ikasiko, zigortu egin behar da...*). KiVarekin aldaketa nabarmena ikusi dugu guzian partetik, esan bezala, pertsonak epaitzeari uko egin diogulako, eta momentuko jarrera aztertzeraz eta zuzentzeraz pasa garelako.

10. Irakasleen papela garrantzitsua dela esango zenuke?

Erabatekoa, batez ere detekzioan. Baita ere ikaslearen hurbil egoteko orduan ere, ikasleak (jazartuak, lekukoak, jazartzen duenak) izan dezan askatasuna eta gertutasuna, kontaktua izateko eta gertakarien berri izateko.

KiVa martxan jarri zenetik ere fokoa aldatu da; izan ere, lehen biktima eta jazartzailea bakarrik hartzen baziren kontuan, orain beste inguruko ikasle, lekuko eta defendatzaileengan ere jartzen dute fokua, azken finean azken hauek ikasgela bateko ia %80 izaten direlako, eta ehuneko handi horretara heltzen bazara, askoz errazagoa izango da murriztea kasuak edo behintzat detektatzen. Hor irakasleek ere paper garrantzitsua dute, gelaren zati handi horrekin tratatu behar baitu eta une oro erne egon behar duelako kasuak detektatzeko orduan.

12. Hobekuntzarik nabaritu duzue BPak martxan daudenetik?

Bai, ikusten dugulako prebentzio saioetan enpatia, trebetasun soziala, komunikazio ez bortitza, talde presioa, asertibitatea etab. lantzen direla eta hauek jazarpenaz gain bizikidetzaz sano bat izatea ekartzen du, harreman sanoagoak izateko eta giroa hobetzeko (lanerako, ikasleen artean, elkar laguntzeko,...). Esan dezakegu, albo onorio oso positiboak ikusi ditugu orohar jazarpenean izan duen eraginaz aparte.

Klima hori hobetzean, irakasleen papera ere aldatu egiten da, ikasle-irakasle harremana ere hobetu delako, eta irakasleak gelakide bat izatera heldu daitekeelako. Konfiantza giro hori handitu egiten da.

13. Hobekuntzarik nabaritu duzue irakasleek jaso duten formakuntzari esker?

Bai. Egia da formakuntza hauek azken urteetan jarraipenekoak izan dira. Hobekuntzak eta aldaketa hauetan eragina izan dute, aurrez esan bezala, beste ikastetxeetako bizikidetzari buruz entzuteak, hauen kezak, kasuak etab. aztertuz, eta iritzi eta jokabideak zein teknikak elkarbanatuz; azken finean elkar lagunduz eta elkar aberastuz.

14. Etorkizunari begira, ze aurreikuspen dituzue?

KiVa proiektuarekin, printzipioz lau urteko hitzarmena egin zen, orduan, Ikastolen Elkarteak beste lau urtez luzatzea proposatu digu. Baina, urte hauetan ikastolok gure proiektu propioa martxan jartzeko ideia dugu, orduan, lau urteko luzapen honetan, esperientzia bat badugunez, ikasmaterialgintzan, ikastolen bizikidetzaren proiektu propio berri bat diseinatzen hasiko gara, Haur Hezkuntzatik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoraino eskainiko dena.

Bestalde, aipatu bezala, datorren ikasturtera begira, ahulguneak ikusi ditugu, batez ere DBH-ko tutoretza ordutan orduak falta zaizkigulako KiVa-ko prebentzioa egiteko eta horiek indartzeko, beste irakasgai batzuk moldatu beharko ditugu, 2-3 aste bitartean behintzat bullying-a eta honen prebentzioa landu ahal izateko.

B Elkarrizketatua (Orientatzailea)

1. Ikastetxean, bizikidetzaren nolakoa dela esango zenuke?

Ditugun gora-behera guztiekin, bizikidetzaren ez da ona, gatazkak dituzte euren artean. Ona ez izatean hala ere, esan nahi digu begirada aldatzen ari garela eta lehen normaltzat jotzen genituen gauzak orain arazo bezala identifikatzen ditugu. Beraz, honek begirada aldaketa ekartzen digu.

2. Bullying egoerak izaten dituzue? Nolakoak izaten dira?

Bai, urtero azaltzen dira.

3. Kasurik egon bada, zein tendentzia ikusten duzue bullyingaren egoeran? (Hobera, okerrera, adina, generoa,...)

Ez da erraza zehaztea. Askotan DBHn lehertzen dira egoera hauek, baino, beraiekin hitz egin ostean, ikusten da LHko lehen eta bigarren zikloan hasi zirela jarrera asko.

Urtero izaten dira, eta denetatik ematen da: nesken artean, mutilen artean, talde dinamika oso desorekatuekin,...

4. Irakasleek jasotzen dute/duzue formakuntzarik Bullyingaren inguruan? Eta honen prebentzioen inguruan?

Bai. Adibidez, gure herriko udalak, programa marko bat du jarria eta horietan prebentzio eta lanketa mailan ildo batzuk markatzen dituzte. Ildo horien barnean bizikidetza sartuta dute. Orduan, udaletxeak entitate batekin subkontrata moduko bat egiten du (kasu honetan Bakeolarekin) eta udaletxearen partetik, ikastetxe guztioi eskaintzen zaigu alde batetik, bizikidetza behatokia eta bizikidetza planak aurrera eramateko aholkularitza eta laguntza eta gero ikasle laguntzaileen programa. Gure ikastola, bi proiektu horietan murgilduta dago.

Hasierako urteetan, Bakeolak, ikastola honi lehen diagnostikoa egiten lagundu zion, baita, tutoretza planak egiten, ikusmolde ezberdinak sartuz, hala nola, komunikazio eraginkorrerako estrategia ezberdinak, harremantzeko moduak, gatazken kudeaketarako pausuak, bitartekaritza nola egin, etab. Beraz, entitate honen partetik, klaustro osoak saioak jaso ditu. Bestalde, esan beharra dago, Berritzeguneak, bizikidetzaren mintegia du, eta bertan ere parte hartzen dugu, horrela, tarteka adituen formakuntzak jasotzen ditugu.

Aparte, ikastolako formakuntza planean urtero saiatu izan gara horrelako gaiak sartzen. Adibidez, komunikazio ez bortitzaren inguruan. Beraz, ikastolaren partetik esan dezaket orokorrean egon dela gai hauekiko sentsibilizazioa eta formatzeko nahia.

5. Irakasleok hartzen duzue parte BPak sortzean?

Bizikidetza behatokia osatzen dute: maila bakoitzeko irakasle batek, orientazio departamenduak, ez dozenteen ordezkari batek, kirol arduradunak, bizikidetzako arduradunarek eta zuzendaritza taldeko kideren batek. Kontua da, ikastolan dagoen lan bolumen guztiarekin, hau aparte egin beharreko beste plan bat da, beste gehigarri bat. Orduan, bizikidetza behatokiko bileretan ez du denbora ematen planaren diseinuarekin etab. hasteko, ez da lankidetzan sortzen den zerbait. Urtetan izan naiz bizikidetzako arduraduna eta bizikidetzako lehen eta bigarren planean, nik proposamenak egin ditut, eta gero bileretan bai eman direla iritziak, ikuspuntu ezberdinak; baina, beti proposamen argi bat eginda eta ondoren horren gain eztabaida bat izan da. Esan nahi dudana da, ez dela izan zerotik abiatuta sortu dela denen artean, beti bizikidetzako arduradunak egindako proposamen batetik abiatuta baizik.

6. Irakasleon lana zein da BPen implementazioan? Nahikoa parte hartze duzuela uste duzu?

Ezinbestekoa, alde batetik tutoreak ez badira inplikatzeko eta ez badute gogoia edo grina erakusten, nahi ditugun programak jarri ditzakegu martxan, baina, ez dira inoiz ondo aterako. Bestalde, programa askoren zeharkako ekintzak, tutoretza planetan sartzen ditugu, beraz, hauen lana ezinbestekoa da.

Hala ere, parte hartze honek gehiago izan beharko luke. Denbora ez dugu inork, eta oso erraz erabiltzen dugun aitzakia da, baina kontua da garrantzitsuena gaiarekiko sentsibilizazioa, inplikazioa eta motibazioa dela. Irakasle batzuk gaiarekin oso sentsibilizatuak eta motibatuak daude, begirada finduta dute eta harreman desorekez berehala ohartzen dira, esku-hartzeak eginez; baina, badaude irakasle batzuk daudela ia beste aldera begiratzen dutela, hau da, garrantzi asko ez diela ematen gai hauei eta “*umeen kontuak dira*” edo “*ez naiz hor sartuko*” bezalako aitzakiak erabiltzen dituztela.

7. BPez gain baduzue beste programarik martxan bullyingaren aurka?

Bai, KiVa programan ere martxan dugu. Honen inguruan ere formakuntza jasotzen dugu Ikastolaren Elkartetik, urtean sei mintegi izaten dituelarik ikastetxeko KiVa taldeak.

KiVa bi unitatetan banatzen da, LH 1-6 artekoa eta bestea DBH-ri begira. Hor oso planifikatua eta sekuentziatua dago, horrela lana nolabait erraztuz.

Bestalde, ikasle laguntzaile programa dugu. Programa hau LH 6-an hasten dugu. Honen arabera, ikasle laguntzaileak diren horiek formakuntzak jaso eta dinamikak lantzen dituzte komunikazio eraginkorraren, mezuen erabileraren, gatazken ebazpenaren, bitartekaritzaren eta bullying-aren inguruan, gero beraiek, dinamika horiek tutoretza orduetan plazaratzen dituzte, formakuntza hori ikasle guztiek jaso dezaten. Proiektu honen helburua da, gatazkek sortzen diren bezain pronto, beraiek estrategiak izatea gatazka horik modu eraginkor batean ebatzi ahal izateko berdinen artean, heldu baten esku-hartzearen beharrik gabe; beraz, esan dezaket helburua nolabait probentzioa egitea dela, izan ere gatazkek beti egongo dira, baina, kontua da, modu egoki batean kudeatzeko gaitasuna izatea. Horrela, ikasle laguntzaileak bitartekariak izan daitezke gatazketan, baina, arazoak dituzten ikasleek ere ikasle hauen jo dezakete egoera azaldu eta esku-hartzea egiteko. Horrelakoak ematen direnean, formakuntzan bertan komentatzen dira, tutoreen bitartez ere esku-hartze egokiak emateko.

8. Laguntza nahikoa daudela uste duzue bullyingari aurre egiteko? (proiektuak, programak, formakuntzak,...)

Diru laguntza aldetik ez dugu laguntzarik izaten. Laguntza material aldetik, arazoa ez da materialik ez egotea, baizik eta agian material gehiegi dagoela eta denbora behar dela material guzti hori ulertu, aztertu eta gero gelaratzeko. Hainbeste dago arakatze horrekin, ezin dela gauza batean zentratu.

9. Ikusten duzu loturarik irakasleen formakuntzan eta bullyingaren eta jazarpenaren artean?

KiVan inguruan jasotako formakuntzarekin bai eta proiektu honek jarri dituen mekanismoek erlazio zuzena erakutsi dute.

Jaso ditugun formakuntza asko, norberaren prestaketa pertsonalerako ezinbestekoa izan dira, baina, horrek zein puntutaraino izan du isla ikasgelan? Hor zalantza egiten dut.

10. Irakasleen papela garrantzitsua dela esango zenuke?

Ezinbestekoa, helduen begirada beharrezkoa delako. Gainera, ausardia ere behar da ikusi duzun horri izana jarri eta pausuak emateko esku-hartzera. Askotan izaten dut sentsazioa, kasuak ikusten direla eta identifikatzen direla, baina, jokabide desegoki edo “umeen kontuak” bezala ikusten direla, jazarpen bezala kalifikatu beharrean. Beraz, bai garrantzitsua dela begirada hori finduta izatea, zentzu horretan tolerantzia 0 izan behar delako, ikusten denean jarrera bat, zuzenean esku-hartzea egiteko.

11. Hobekuntzarik nabaritu duzue BPak martxan daudenetik?

Galdera honek tranpa du. Programa hauek sentsibilizatu, ikusarazi eta arazoak azaleratzea lortu du eta esku-hartze gehiago egiten dira. Duela 11-12 urte bullying kasuak ez genituela izaten esaten genituen, baina, orain beti ditugu, detekzioa eta azaleratzeak eman direlako. Orain, errazago esaten dute ikasleek ere. Konturatzen ari gara begirada fintzen ari garela, ohiko jarrerak direla ikusi dugu, baina, baita ez direla onagarriak, eta hauen aurrean zerbait egitera iritsi gara.

12. Hobekuntzarik nabaritu duzue irakasleek jaso duten formakuntzari esker?

Bai, sentsibilizazio maila horretan, eta gertakariei izena jartzerakoan batez ere. Hala ere, oraindik beldur asko dago.

13. Etorkizunari begira, ze aurreikuspen dituzue?

Orain arte modura, planekin jarraitzea eta ahal den moduan, gure sentsibilizazioa eta esku-hartzeak hobetzea.

Galderaz hauez gain eskainitako informazioa:

LH 5-ean, *Socio-bullying* galdetegia pasatzen dugu. Hau, ikasle bakoitzari pasatzen zaio, eta bere gelakide bakoitza identifikatu behar du batetik seirako zenbaki batekin .

1 = jarrera iraingarriak/zirikatzaileak dituen pertsona (erasotzailea)

2 = irain/zirikatzeak jasotzen dituen (biktima)

3= maila berean daudenak, hau da, batzuetan zirikatu egiten du eta beste batzuetan jaso egiten ditu (zirikatzailea)

4= irainak/zirikatzeak egiten dituztenei babesa ematen dietenak (erasotzailearen jarraitzailea)

5= laguntza eskaintzen diona irainak/zirikatzeak jaso dituenari (biktimaren laguntzaileak)

6=ikuslea eta ezer egiten ez duena edo isilik geratzen direnak (ikuslea)

Dena pertzepzioetan oinarritzen da eta ez ebidentziatan. Beraz, alarma adierazle moduan erabiltzen da, gelakideen pertzepzioetan ikasle bakoitzaren jokabideak zein diren identifikatzeko. Perfilak atera ondoren, gurasoekin eta ikasleekin bilerak egiten dira jarrerak mozteko, batez ere, erasotzaile edo biktima perfila duten horietan.

9. 2. ERANSKINA: B IKASTETXEKO BIZIKIDETZA PLANEAN ZEHAZTEN DUTEN JARRERA ZUZENTZAILEEN OHIKO PROZEDURA



10. LANAREN LABURPEN EXEKUTIBOA

Sarrera, kontzeptuak eta testuingurua

Gatazkez beteriko mundu honetan, bullying-a bezalako errealitate batetik aurkitzen gara. Errealitate gordin bezain zaila. Hori horrela, nire Gradu Amaierako Lan honetan, bizikidetzeta eta bullying-a batzen dituen ikerketa lan bat burutuko dut.

Eskola munduan ematen den bullying-a ikasle batek beste bati eragiten dizkion tratu txar, jarraitua, fisikoa nahiz moralizat definitzen du Euskaltzaindiak (2018). Jazarpen hau, modu errepikakor batean eman ohi da, muturreko kasuak izanik. (Wanceulen, 2016; Vera, 2020). Eskola jazarpenak halaber, baditu ezaugarri nagusi batzuk, esaterako, biktima bat egotea, erasotzaile bat edo gehiago izatea, biktima eta erasotzaileen arteko desoreka egotea eta gehienetan indarkeriaz eragindako jokabide zehatzak izatea denbora jakin batean (Vera, 2020).

Garrantzitsua da ere ikustea, bullying-aren edo jazarpenaren biktima izan direnen artean, ondorio ezberdinak ematen direla. Garaigordobilek (2019) egindako lanean ikusi den moduan, hauen artean, min fisikoa, insomnia, antsietatea, TEPT edota depresioa bezalako arazoak gain azaleratu dira.

Kriminologiaren begirada batetik ere garrantzitsua da bullying-aren aurrezaintza eta honen aurreko esku-hartzea, izan ere, Oinarrizko Eskubideen urraketen aurrean topatu gaitzke, zehazki pertsonen duintasunari edota nortasunaren garapen librearenak (EK, 10.art). Bullying-a jarrera bortitz bezala kontsideratu daiteke, suntsipen bulkada bat izan daitekeelako (Núñez de Arco, 2010). Honekin, lotura estua dute zenbati suizidio kasu ere, ikusi den ikerketa baten harira, buruaz beste egiten duten pertsona geroz eta gehiagoren arrazoia jasandako jazarpena izan delako (Navarro-Gómez, 2017).

Gure lanaren oinarrian Gizarte Psikologiaren alorra dagoenez, garrantzitsua da hainbat teoria klasiko eta ikuspuntu ezberdin aztertzea ere. Horrelako jarreraren atzean, hainbat faktore, ezaugarri eta arrazoi egon daitezke. Gizarte Psikologiaren ikuspuntutik, asimetria (Sachdev eta Bourhisek, 1991) eta boterea (Arnosoa eta Larrañaga, 2013) pisuzko arrazoiak izan daitezke, diskriminaziorako bidea ireki dezaketelako, taldeen arteko bereizketa eta bazterketak emanez. *Ardi beltzaren teoria* ere, aipagarria izan daiteke (Arnosoa eta Larrañaga, 2013), izan ere, taldeko identitate soziala mantentzeko

asmoz, taldean eragin negatiboa izan dezaketen kideen bazterketa ahalbideratzen duelako, mehatxatuak sentitzen direlako askotan. Normalizazioa (Sherif, 1935) emateak ere badu bere lotura jazarpenarekin, izan ere, egoera berri zein egituratu gabeen aurrean, erantzun kolektibo bat emateko beharra ikusten dute; horrela, talde artean irizpide ezberdinak arau eta lege bihurtuz (Arnosó eta Larrañaga, 2013).

Bizikidetza Planei dagokionez, honen kontzeptua eta ikuspuntu ezberdinak ezagutzea komeni da, batez ere Bigarren Hezkuntzan eman daiteken bullying-aren aurrezaintza eta esku-hartzerako lan marko bezala funtzionatzen dutelako. Bizikidetza Planak, bizikidetza-arazoak prebenitzeko, eta hauen aurrean esku-hartzeko neurriak biltzen dituen programak dira (Dobarro, García & Álvarez, 2013). Hauek, ikastetxeen bizimoduari eusten dioten oinarrizko zutabeetako bat dira, eguneroko eskolak jasotzeaz gain, balioak partekatze eta komunikazio- eta lankidetzakanalak ezartzeko leku gisa uler daitezten (González-Calvo, Hortigüela-Alcalá, Hernando-Garijo eta Pérez-Pueyo, 2019).

Gizarte Psikologiaren ikuspegitik ere badute bere garrantzia, batez ere, minorien edo gutxiengoen (Moscovici, 1976) egoerari aurre egiteko.

Plan hauek helburu ezberdinak izan ditzaketela ikus dezakegu, Batzuek, ikastetxeko eguneroko gatazka eta buruhausteekin konektatzea izango dela diote, horretarako beharrezkoak izango delarik, hezkuntza komunitateko partaide ezberdinen parte hartzea (Uruñuela, 2020). Eusko Jaurlaritzak (2016) Ikastetxeen elkarbizitza plana egiteko gidan, oinarrizko bost puntu garrantzitsu jaso beharko dituztela adierazten du:

- Elkarbizitzaren inguruko hausnarketa bat, eta honen inguruko ikuspuntuak ulertzea.
- Ikastetxearen indarguneak eta ahulguneak zein diren identifikatzea.
- Helburu orokorrak finkatzea.
- Elkarbizitza hau hobetzeko ekintzak prestatu eta martxan jartzea
- Aurrera eramandako ekintza hauen balorazio eta jarraipena egitea.

Planen inguruan ere hainbat lege topatu genitzake, hauen beharra zehazten dutenak, adibidez, 2/2006 Lege Organikoa edota 85/2009 Dekretua.

Euskal Autonomia Erkidegoko mailan, bizikidetza eta bullying-ari buruzko hainbat plan, proiektu eta programa topa genitzake. Horien artean esanguratsuenak ondorengoak dira: *Aniztasuneko Bizikidetzarako Foru Plana* (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2018), *Bizikidetza Lantzen* (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2016), *Bake eta Bizikidetzarako Plana* (Eusko Jurlaritzza, 2013) eta *Ikastetxeen Elkarbizitza Plana* (Eusko Jurlaritzza, 2016).

Gaur egungo egoera

Gaur egun gai hauen inguruan zein egoera dagoen ere ikustea beharrezkoa ikusten dut. Rodriguezen (2007) arabera, gatazkez inguratuak gaude, gure izatean eta existentzian eragin zuzenean eragiten duelarik. Gainera, autore honen ustez ere, eskola bezalako inguru sozialetan, haur eta nerabeen ongizateaz arduratzen dira, baita, hauek izan dezaketen influentzia suntsitzailen ekiditean eta prebentzioan, horrela, biktima zein erasotzaileak babestuz.

Indarkeria honek, gainera, indarkeria gehiago sortu dezake (Rodriguez, 2007) eta horrela, konfliktuz beteriko atmosfera bat sortzen bada, bortizkeria gailendu egin daiteke, horrela, irakasle eta hezitzaileen lana aldrebestuz (Greta, Martínez-Otero, Rodrigo, Rodrigo, 2020).

Arrazoi hauek direla eta, ulertu daiteke Bizikidetza Planak modu batera edo bestera beharrezkoak direla. Ez hori bakarrik, izan ere, kontuan hartu behar dira, plan hauek aurrea eraman ahal izateko, eta aurrezaintza eta esku-hartze eraginkor bat egiteko, jazarpenean eta bullying-ean eragina duten faktoreak. Martínez-Oteroren (2001) urtez hainbat arrazoi argi daude honen atzean; hala nola, gizartea eta hemen aurkitzen diren desegituraketak, pobrezia edota langabezia, bestalde, komunikabideak eta azkenik, eta garrantzitsuenetarikoa familia. Azken hauek, nerabeen garapenerako sostengu direla arrazoitzen du, beraz, familia barneko edozein egoerak zuzenean eragin gaitzake. Eskolaren garrantzia ere azpimarratzen da, noski (Martinez-Otero, 2001), gazte eta

nerabeen arteko erlazioak eskola inguruan ematen direlako eta hauen arteko gatazkek ere nerabe hauen hezkuntza eta garapenean eragiten dutelako.

Gaur egungo egoera aztertzeko, modu objektiboena prebalentzia datuak ikustea izango da. Azken urteetan, Espainiar Estatuan, ia 5.557 kasu identifikatu zituzten, nahiz eta hauek salatzekeo deiak bikoitzak izan (Hezkuntza Ministerioa, 2018). Euskal Autonomia Mailari dagokionez, 2018-2019 urtean, kasuen goranzko joera bat ikusi zen, guztira, 96 kasu identifikatuz, nahiz eta aztertutako kasuak 755 izan (Eusko Jaurlaritza, 2019).

Gai honen alorrean eginiko ikerketa ugari ere ikusi ditut nire ikerketa lana burutu baino lehen. Hauen artean, orohar, ikerketa falta ikusi da, Estatuko Herri Defendatzaileak (2007) eskaintzen duen txostenean, hutsune zientifiko bat zela adierazten zen; datu gutxi eta fidagarritasun maila baxua zutela defendatuz, eta horren aurrean zerbait egiteko beharra azpimarratzen zuen.

Bullying-a edo eskola jazarpenaren gutxitzea eta Bizikidetzaren planen artean dagoen erlazioa aztertzen duten ikerketak ikusi ditut (Del Rey, Ortega eta Feria, 2009; Del Rey, Ortega eta Casas, 2013; Martínez-Otero, 2001). Elkarbizitzaren pertzepzioak arduratu diren ikerketaren bat ere ikusi dut (Del Rey, Ortega eta Feriak, 2009), eta honen arabera, nahiz eta bizikidetzaren handia izan, gatazkek beti daudela ziurtatzen du, gainera, kritikoak azaltzen dira, izan ere, informazio falta sumatu dute.

Irakasleen rol eta papera ere aztertu dute zenbaitek, (Monge-López eta Gómez-Hernández, 2020; Peñalva, Vega-Osés, López-Goñi eta Satrustegui, 2015) eta irakasleek gai hauen inguruan jaso beharreko formakuntzak ere (Álvarez-García, Rodríguez, González-Castro, Núñez eta Álvarez, 2010). Hala ere, Bizikidetzaren Planen eraginkortasuna aztertu duten ikerketa batean, (Merma Molina, Ávalos eta Martínezek, 2019), ikusi dute hau frogatu duten ikerketa fidagarririk oraindik ez dela aurrera eramán, baina, hala eta guztiz ere, hauek ikastetxe eta zentro ezberdinetan bizikidetzaren egokiagoa izan dadin, hainbat ikerketa egin dituztela ziurtatzen dute, horrela, estrategia eta proposamen berriak baloratuz.

Eskola arautegiari ere garrantzi gutxi eskaini zaiola babesten dute (Merma Molina, Ávalos eta Martínezek, 2019), baina, hobekuntzak proposatu dituzte, esaterako, hezkuntza administrazioak laguntza gehiago eskaintzea, dialogo eta eztabaidan

oinarritutako mekanismo egokiak izatea, interbentzio eta prebentzio ekintza gehiago sustatzea (jarrera prosozialak bultzatuz) edota zuzendarientzako programa bereziak ezartzea. Azkenik, gehien interesatzen zaidan proposamenak aurkeztu zituzten, irakasleei zuzendutakoak.

Hau ikusita, irakasleek bizikidetzaren egokia izateko papera garrantzitsua izan daiteke, izan ere, gatazken inguruko eztabaida eta dialogo pedagogikoak, ikasleen ikasketa, hezkuntza eta baita inklusio prozesuan eragin berebizikoa izan dezaketelako (Parker, 2016). Ez hori bakarrik, eskolako indarkeriaren jatorria konplexua eta kausa anitzekoa denez, konponbidean gizarte osoak parte hartu beharko luke (familia, legegileak, komunikabideak...). Hala ere, irakasleen zeregina, azken batean, arazo horiei egunero aurre egiteko lan zaila duena denez, bereziki garrantzitsua da (Álvarez-García, Rodríguez, González-Castro, Núñez eta Álvarez, 2010). Honi lotuta, Álvarez-García, Rodríguez, González-Castro, Núñez eta Álvarezek (2010) irakasle izateko ikasten ari diren ikasleei buruz eginiko ikerketan aipatzen duten bezala, hauen lanaren emaitzetan erakutsi da eskolako bizikidetzaren inguruko formakuntza egoki bat baliagarria dela.

Azkenik, gaur egungo egoera honen aurrean Euskal Autonomiako Ikastoletan indarrean dagoen proiektu finlandiarra ikusi dut, KiVa proiektua. Proiektu honen bitartez, bullying-ari eta jazarpenari modu eraginkor batean aurre egin nahi zaio, prebentzioa, esku-hartzea eta jarraipen egoki baten bidez. Horretarako, tresna eta material ezberdinak eskaintzen dituelarik. Mundu mailan gehien aztertua izan den programa dela esatea ere garrantzitsua iruditzen zait.

Gradu Amaierako Lan honek ere izango ditu bere interes zientifiko, sozial eta kriminologikoak ere.

Arlo teorikoena aztertu eta ikusi ondoren, arlo praktikoenera joan behar gara. Hori horrela, ikerketa lanari helduko diot. Horretarako, aldez aurretik lanaren metodologia, helburu eta hipotesiak zein diren zehaztu beharko dira.

Helburu eta hipotesiak

Lanaren helburuei dagokionez, esan beharra dago, garrantzitsuena eta nagusia Bizikidetza Planek, bullying-arekin edo eskola jazarpenaren inguruan duen eraginkortasuna identifikatzea izango dela, horretarako irakasleen rola eta formakuntzan duen eragina identifikatuz. Bestalde, irakasleek jasotako formakuntza horiek zenbateraino eragiten duten ere ikusiko da, horrela, beharrak eta ahulguneak identifikatuz eta hauen inguruan hausnartuz.

Hipotesiei dagokionean, hemen ere helburuekin erroturik, bost hipotesi planteatu ditut. Esan nezake, Bizikidetza Planek eragin positiboa izango dutela bullying edo eskola jazarpenean, horretarako inplementazio eraginkorra garrantzitsua izango delarik. Ez hori bakarrik, aurretiaz ere esan dezaket, nire ustez, irakasleek gai hauen inguruan jasotzen dituzten formakuntzak ez direla nahikoak, batez ere bullying-ari erlazionatutako formakuntzei dagokionean. Hori horrela, azken hipotesi bezala, esan dezaket, irakasleek eskola jazarpenaren eta bullyingaren inguruan jasotzen dituzten formakuntzak egokiak badira, Bizikidetza Planetan eragina izango dutela, eta horrela, bullying-aren gutxitzean ondorioak eragingo dituela.

Metodologia eta analisisien prozedurak

Metodologiari dagokionez, ikerketa lan hau aurrera eramateko erabili dudana metodoa, ikerketa kuantitatiboa zein ikerketa kualitatiboa batzen dituen metodo mistoa izan da. Horretarako, bi iturri nagusi izan ditut, alde batetik, ikastetxe ezberdinetako Bizikidetza Planak eta beste alde batetik, ikastetxe hauetako kide ezberdinei egindako bi elkarrizketa. Azpimarratu beharra dago, etikari ere berebiziko garrantzia eman diodala. Gibbse (2007) arabera, ikerketa honetan parte hartuko duten laguntzaile zein elkarrizketatuek zehazki jakinaren gainean egon behar dute beraien bidez lortuko diren datu eta informazio guzti hori zertarako erabiliko den, baita, zein asmo eta helbururekin erabiliko den. Horrez gain, ikerketatik edozein unetan atera daitezkeela ere adierazi beharko zaiela dio.

Hori kontuan hartuz, ikerketan lagundu didan ikastetxe orori lehenik eta behin, lan honek duen interes akademikoa azaldu eta anonimotasuna bermatuko niela ziurtatu

nien, horregatik, ez dira lanean inongo momentutan ikastetxe hauen izenik aipatuko ezta hauek kokatzen diren herriak ere.

Datuak, Bizikidetza Planak eta elkarrizketak lortzerako orduan, gorabehera nahikoa izan dituen. Ikerketa, Urola Kostara mugatu nahi nuenez, bailarako 6 ikastetxeetara idatzi eta deitu nuen. Hauekin harremanetan jartzea zaila izan da benetan, batzuen partetik inongo erantzunik jaso ez dudalarik edo zuzenean ezezkoa jaso dudalarik. Gainera, ikastetxeren batek laguntzeko asmoa erakutsi zuen arren, azkenean erantzunik gabe geratu nintzen. Baina, azkenean bi ikastetxeren partetik baiezkoa jaso nuen. Behin baiezkoa izanda, erraza izan zen hauen bizikidetza planak lortu eta bertako irakasle edo orientatzailearen batekin hitzordua ezartzea.

Hori horrela, ikerketaren laginari erreparatuz, Bizikidetza Planei dagokionez, esan bezala, bi ikastetxe ezberdinetakoak eskuratu ditut. Elkarrizketatuak ere ikastetxe berberetakoak izan dira. A ikastetxeko A elkarrizketatua, gizonezkoa da, irakaslea eta gainera KiVa proiektuko lan taldeko kidea da. B ikastetxeko B elkarrizketatua, aldiz, emakumea eta ikastetxeko orientatzailea.

Ikerketaren metodologia zehatzagora mugatuz, bitan banatu dut: alde batetik, ikerketa kuantitatiborako erabiliko dudan analisisien prozedura zehaztuz eta beste alde batetik, ikerketa kualitatiboaren analisisia burutzeko erabiliko dudan prozedura.

Bi ikerketak aurrera eramaterako, beharrezkoa iruditzen zait elkarrizketen transkripzioa egitea, informazio hori eskura izateko momentu oro.

Bizikidetza Planak eta elkarrizketak modu kuantitatibo batean analizatzeko, garrantzitsua izango da kontuan hartzea zer lortu nahi dugun, eta horretarako termino eta atalen kodifikazio zein kategorizazio bat egitea garrantzitsua iruditu zait.

Kodifikazioa, analizatu beharreko datuak tratatzeko bakoitzak izan dezakeen modua da. Horrek esan nahi du, gure ikerketarako interesgarriak izan daitezkeen testu eta pasarteak identifikatu eta erregistratu ditzakegula, gure ideia teoriko eta deskriptiboak indartuz. (Gibbs, 2007). Hori horrela, metodo honen bitartez, datuak eta informazioa modu organizatu batean antolatu eta gestionatu genezake, modu egituratu batean analisi bat egitea lortuz (Gibbs, 2007).

Bestalde, kodifikazioaren bidez lortutako informazio eskura dugula, lortutako Bizikidetza Planen eta Eusko Jaurlaritzak (2016), bizikidetza eta elkarbizitza Planak egiteko oinarri hartzen duen gidarekin konparatuko ditut. Analisi konparatibo batek, maila deskriptibotik haratago joatea ahalbideratzen digu, horrela, faktore, fenomeno, kasu edo inguruabar ezberdinen arteko erlazio bat lortzera eraman gaitzake Gibbsen (2007) ustez.

Horrela, ikerketa kuantitatibo honetan, bai elkarrizketak eta baita Bizikidetza Planak, lehenik eta behin irakurri eta aztertu ondoren, kodifikatu eta kategorizatu egingo ditut, horrela, informazio jaso, antolatu eta datuak eta ehunekoak ateratzeko aukera izanik. Hala ere, elkarrizketetan ez bezala, eta esan dudan moduan, Bizikidetza Plan hauek, Eusko Jaurlaritzaren gidarekin konparatuko ditut.

Ikerketa kualitatiboaren prozedura, kuantitatiboaren antzera hasiko dugu, hau da, kategorizazio eta kodifikazioarekin. Planak eta transkripzioak eskura ditugula, hauetan lantzen diren gai eta alor ezberdinak jorratuko ditut, horrela, bullying-ean, bizikidetzan, irakasleen rolean, hauek jasotako formakuntzan edota aurrezaintza eta esku-hartzean zentratuz. Horrela, informazioa modu ordenatu batean kategorizatua izango dugu, gure analisia egiteko errazagoa izan dadin.

Emaizak

Metodologia honen bidez lortutako emaitzei dagokionez, bi analisi mota egin ditut, alde batetik, Bizikidetza Planen eta elkarrizketen analisi kualitatiboa, eta bestalde, analisi kualitatiboa.

Analisi kuantitatiboaren bidez, bizikidetza planetan orohar desorekak ikusi ditut. Alde batetik, A ikastetxeko planak betetzen zituen atalak, B ikastetxekoak ez zituen betetzen, eta alderantziz. Gai asko, ikastetxeen %50ak bakarrik lantzen zituen. Eusko Jaurlaritzako (2016) Bizikidetza Planak sortzeko gidarekin alderatu dudanean, desegituraketa eta desoreka hauen askoz ere nabarmenagoak izan ziren. B ikastetxeak, gida honetan zehazten ziren 10 item edo ataletatik, 9 betetzen zituen, aldiz, A ikastetxeak, 3 besterik ez.

Elkarrizketetatik lortutako datu kuantitatiboei dagokionez, ikusi dut, a ikastetxeak, bertan jasotzen diren jazarpen kasuan ondo kuantifikatuak dituztela, datu zehatzak dituztelarik, aldiz B ikastetxean, kasuak daudela esan arren, ez dituzte datu zehatzik, ez kopuruaren inguruan, ezta maila edo generoaren inguruan ere.

Analisi kualitatiboa apur bat sakonagoa izan da, informazio kualitatiboa jasotzea errazagoa egiten zaidalako. Horrela, aipatutako kategoria bakoitzaren analisi sakonago bat egitea lortu dut. Bizikidetza Planei dagokionez, ikusi dut, A ikastetxean, soilik bizikidetza oztopatzen duten jarrera desegokien zerrenda bat dutela eta hauen zuzenketa edo esku-hartzea nolakoa izango den zehazten dituzten urratsak zerrendatzen dituztela. Aldiz, B ikastetxean, askoz ere antolatuagoa, egituratuagoa eta sakonagoa den plana dute, bertan, Eusko Jaurlaritzaren (2016) gida horretan jarraitu beharreko pausuak modu zorrotzago batean betetzen dituztela ikusirik.

Elkarrizketei dagokionez, aukera handia eskaini didate informazio interesgarria lortzeko. Hauetan, batez ere, irakasleei eta hauen rol, paper eta formakuntzaren inguruko hausnarketa sakonagoa egiteko aukera izan dut, izan ere, biek hala biek irakasleen garrantzia azpimarratu dute, hauek, formakuntza egokien beharra dutela zehaztuz. Jasotzen duten formakuntzen inguruan ere hitz egiten aritu ginen.

Honen harira, bi elkarrizketatuek, formakuntza jasotzearen garrantzia aipatu zidaten, baina, hala ere, formakuntza hauek, jasotzeak baino ia garrantzia gehiago zuela ikasitako ikasgelan plazaratu eta aplikatzeak. Baina, horren aurrean, zenbaitetan, irakasleen partetik arduragabekeria eta inplikazio falta erakutsi dutela seinatu zuten. Ez hori bakarrik, askotan, jazarpen hauen aurrean, “*haurren kontuak dira*” bezalako arrazoiak gailentzen direla diote, eta horren aurrean oraindik ere lan asko dagoela azpimarratuz.

Ondorioak

Azken ondorioei eutsiz, atal honetan nire hipotesiak bete diren ala ez ikusiko dut batik bat.

Lehen hipotesiari dagokionez, betetzen dela esan nezake, plan eraginkorrek izateak eragin positiboak izango dituelako. Baina, aipatu beharra dago ere, plan horiek

agian ez direla beti Bizikidetza Planak izaten, izan ere, nahiz eta B ikastetxeko Bizikidetza Plana egokiagoa izan A ikastetxekoarena baino, A ikastetxean KiVa proiektuari ematen dioten garrantzia dela eta, erantzun positiboak lortu dituzte.

Bigarren hipotesia ere betetzen dela esan dezaket, irakasleen papera funtsezkoa dela erakutsi dutelako Bizikidetza Planen inplementazio eraginkorra egiterako orduan, horrek bullying-aren aurrezaintza, esku-hartzean, eta gutxitzean eragina izan dezakeelarik.

Hirugarren hipotesiarekin ere ados erakutsi behar naiz, izan ere, bullying-aren inguruan jasotzen dituzten formakuntzak ez direla asko ikusi baitut. Ez hori bakarrik, esan dezaket, bakarra dela orohar jazarpenaren inguruan jasotzen duten formakuntza eta hau zuzenean edo zeharka KiVa proiektuarekin lotuta dago. Honekin, bullying-aren eta jazarpenaren inguruko formakuntza oroko baten beharra azpimarratzen dut, ez soilik programa baten aplikazioari buruzkoa.

Laugarren hipotesiari dagokionez, hau ere betetzen dela esan nezake. Esan bezala, bullying eta jazarpenaren inguruan jasotako formakuntza urria dela iruditzen bazait ere, beste alorretan jasotzen dituzten formakuntzak ere asko ez direla esango nuke, beraiek aipatutakoaren arabera. B ikastetxeak, jazarpenaz gain, bizikidetzaren inguruan ere jasotzen dute formakuntza eta A ikastetxean, genero indarkeria ezberdinen inguruan.

Bostgarren eta azkenari dagokionez, egia dela, eta ondorioz, betetzen dela esaten dut.. Elkarrizketetan hainbatetan aipatu duten inplikazio falta horrek, hala ere, erlazio zuzena izango du honekin, izan ere, aipatu moduan, irakasleek bullying-aren eta eskola jazarpenaren inguruan izan duten formakuntza egokia izanda ere, Bizikidetza Planetan duten papera eta rola ez bada egokia ez da eraginkorra izango jarrera hauen gutxitzean. Baina, orohar, ikastetxe hauek bullying-arekiko duten interesa eta inplikazioa ona eta egokia dela iruditzen zait, hau da, interesa dute hobetzeko, eta esku-hartze eraginkorrak egiteko, proiektu ezberdinak dituzte martxan eta parte hartze eta kontzientzia gero eta gehiagoz nahi dute sustatu eta landu. Ez hori bakarrik, nahiz eta inplikazio falta sumatzen duten kasuak ikusita ere, formakuntza hauek, modu egokian inplementatzen direla edo saiaten direla esaten dute, horrela, irakasleen paper horrek duen eragin positiboa azpimarratuz.

Hipotesiz gain, nire ondorio eta iritzi propioak ere azaleratu ditut atal honetan. Hori horrela, aurretiaz aipatutako Bizikidetza Planen artean dagoen desoreka hori, elkarrizketatuekin hitz egiterako orduan ez da asko nabaritu, izan ere, KiVaren bidezko esku-hartzeak egokiak izan direnez, jazarpenaren gutxitzean eragin positiboak ikusi dituzte, horrela Bizikidetza plan horietan dituzten hutsuneak eta ahulguneak nolabait estaliz. Baina, hauek egokiak izanda ere, hainbatetan goraiapatutako proiektu hori nolabait Bizikidetza Planetan islatu beharko litzatekeela iruditzen zait, horrela, plan hauek indartu behar direla esan dezakedalarik. Hala ere, ikastetxeek gai hauekiko duten interesa eta ikasteko grina azpimarratu nahiko nuke, hobekuntza bilatzen saiatzen direlako, arazoei irtenbideak emanez.

Gizarte Psikologiari erreferentzia eginez, ere kritikarik handiena bullying eta jazarpen honen normalizazioa (Arnosó eta Larrañaga, 2013) aipatzea beharrezkoa da, azken finean, kasu hauetan esku-hartzen ez badira patroik batzuk sortuko direlako jarreretan. Horri irakasleen axolagabekeria, sentsibilizazio eta inplikazio falta gehitzen badiogu, bullying kasuei bidea irekiko diogu, esku-hartzeak faltako direlako.

Kriminologia eta arlo penalago bati keinu eginez ere, jazarpenak eta bullying-ak duten garrantzia eta larritasuna azpimarratzekoa beharrezkoa dela esan beharra dago. Esan bezala, askotan “umeen gauza” bezala kontsideratzen da, duen larritasunaren aurrean itsu gaudela erakutsiz. Eta hau beste ikuspuntu batetik aztertuko bagenu, larritasun hori beste era batekoa dela ikusiko dugu. Haurren kontuan izan beharrean, jarrera hauek helduen artean emango balira, askoz ere arazo larriagoa dela irudituko zitzaigun. Ez hori bakarrik, jazarpenaren eta bortizkeria hauen kasurik larrienetan, mehatxu eta lesioak gauzatuz gero, Zigor Koderak joenezake eta hauek delitu diren heinean, jazarpena eta ondorio hauek eragin dituen pertsona hori zigortua izatera heldu daiteke. Eta hor, jada larriagoa dela iruditzen zaigu; baina, ez garena ohartzen da, gazteen artean jarrera berdinak eman daitezkeela, eta gizarteak hauen aurrean askotan beste aldera begiratzen duela.

Hau guztia kontuan izanda, balorazio orokor bat egin beharko banu, ikertzeko asko falta dela esatera ausartzen naiz. Ikusi eta aztertu ditudan ikerketetan ere hutsune asko aipatzen ziren honi lotuak, eta kritikoak azaltzen dira, eta egia esan ados nago, ez delako guztiz erraza izan informazio egokia bilatzea, askotan oso azaleko informazioa edo fidagarritasun gutxikoa topatu izan dudalako.

11. ESKER ONAK

Hilabete luzez iraun duen prozesu polit zein gora-beheratsua izan da Gradu Amaierako Lan hau egitea. Baina, bidean asko izan dira lanean parte hartu eta lagundu didatenak.

Horregatik, eskerrik asko, ikerketan parte hartu duten ikastetxeei, hauek gabe, ez litzatekeelako posible izango ikerketa lan hau aurrera eramatea.

Bestalde, nire eskerrik beroenak etxekoei, familia-kide eta lagun guztiei, oztopo, eta inspirazio falta guztietan ere nire ondoan egoteagatik, behar dudana bultzadaxoa, babesa eta laguntza eskainiz.

Azkenik, eskerrik asko Olaia. Zu gabe lan hau kaos bat izango litzatekeelako. Bidean galduta nengoen bakoitzean, motibazio eta laguntza eskaintzeagatik.